


GIPUZKOAKO GAZTERIAREN MOTIBAZIOA IKASKETEN AUKERAKETAN

EMAITZEN TXOSTENA



1. Motibazioa
2. Helburuak eta metodologia
3. Batxilergoko ikasleak: lehentasunak eta konpetentziak
4. Interes profesionalak
5. Lan-munduratzearen garrantzia
6. Eragileak eta informazio-iturriak
7. LHko Prestakuntza Zikloen aukeraketa
8. Genero-desberdintasunak. Emakumea eta STEAM
9. Ikastetxe publikoen eta pribatuen arteko aldeak
10. Ondorio nagusiak
11. Jarduera-proposamenak
12. Eskertzak
13. Bibliografia
14. Eranskinak
 - I. Eranskina: Inkesta Batxilergoko ikasleei
 - II. Eranskina: Ikastetxeei egindako inkesta
 - III. Eranskina: Batxilergoko ikasleen matrikulazio datuak Gipuzkoan
 - IV. Eranskina: Familien ekarpen ekonomikoak, inkestaren arabera
 - V. Eranskina: Focus Groups
 - VI. Eranskina: Ikastetxeak - Galdetegia.
 - VII. Eranskina: Ikaleak - Galdetegia





Espainiako Lan Merkatuaren Egoerari buruzko **InfoJobs ESADE txostenaren** arabera (2017), 16-24 urteko populazio aktiboaren % 74k diote ikasketak aukeratzean, gehiago begiratu diotela bokazioari, aukera profesionalei baino. Azterlan horrek berak erakutsi du, populazio aktiboaren % 40k diola, egiten duten lana ez dela egin zituzten ikasketei lotutakoa.

Azterlanaren arabera, bokazioaren arabera ikasi zutenek ikasi zuten horri lotutako lanik ez izatearen arrazoi nagusiak hauek direla: norbere borondatea (populazio aktiboaren % 41) eta bigarrenik, ikasi zuten horri lotuta ez dagoelako lan askorik (% 35). Ikasketak laneko etorkizunean pentsatuta aukeratu zituztenetatik % 47 ez dira ari ikasi zuten hari lotutako lanean, modu proaktiboan erabaki zutelako norabide-aldaketa egin nahi zutela. Hala ere, ikasketak bokazioari jarraituz aukeratu dituzten herritar aktiboen % 78k diote ez direla damutu hartutako erabakiaz. Ikasketetarako eginiko aukeraz damutu direnek diote aldatu egingo luketela prestakuntza eta arlo teknologikoren bat (gizonen % 42k ingeniartzako edo teknologiko goi mailako ikasketak aukeratuko lituzkete) edo osasun arloa (emakumeen % 27k osasun-ikasketak egiteko aukera aztertuko luke) aukeratuko luketela.

Euskal unibertsitateetan gradua eginiko hiru ikasletatik batek ez luke berriro aukeratuko jada amaituta duen titulazioa edo unibertsitateko ikasketak, eta ez dago alderik ez zentro publiko eta pribatuen artean, ez eta emakume eta gizonen artean ere (EIN, Unibertsitateko **tituludunak lan-munduan txertatzeko inkesta**-EILU-2014).

Ikasketak amaitu baino lehen utzi egin dituzten ikasleei ere erreparatuz gero, gizarte gisa, murriztu egin behar ditugu alferrik galdutako baliabideak eta denbora, eta frustraziozko egoera pertsonalak





Uzte hori, neurri handi batean, ikasketen inguruan espero dena gero errealitatearekin bat ez datorrelako gertatzen da eta gutxienez, 30 milioi euroko kostua du urtean (EHUko datuak bakarrik aintzat hartuta); hau da, unibertsitate publikoaren gastuaren % 7,5 inguru¹.

Bestalde, Gipuzkoako 500 enpresari enplegu eta kontratazio arloan zituzten aurreikuspenei buruz eginiko inkesta batean oinarrituta prestatutako Gipuzkoako 2018ko enplegu-beharrei eta profil profesionalari buruzko txostenak erakutsi zuen bete beharreko lanpostuak unibertsitateko ikasketei eta Lanbide Heziketako erdi eta goi mailako prestakuntza zikloei lotutakoak zirela eta lanpostu horietan, enpresen eskaera handiagoa zela beharrezko gaikuntza duten langileen eskaintza baino. 2018rako sektore pribatuan unibertsitateko ikasketak eta graduondokoak dituzten pertsonak kontratatzeke aurrez ikusitako ia 3.700 kontratazioetatik ia % 58 ingeniariak ziren eta beste STEM ikasketa batzuk ere lehen postuetan zeuden; LHko prestakuntza-zikloetan, bete beharreko beharren % 70 baino gehiago fabrikazio mekanikoko ziklokoak, elektrizitatea eta elektronikakoak eta enpresen kudeaketakoak dira.

Hala, kontratazioak egiten dituzten enpresen ia hiru laurdenek zailtasunak izaten dituzte behar dituzten profil profesionalak aurkitzeko.

Horregatik aitortu zuen **EGABek "EAEko gazteen enplegarritasuna eta lan-munduratzeari Europako eskualde-ikuspegi alderatutik"** berak eginiko azterlanean, honako hau: "zalantzarik gabe, **garrantzitsua da informazio eta orientazio egokia jasotzea ikasketak eta egin nahi den ibilbide profesionalari ondoen dagozkion praktikak aukeratzean.**

¹ 'Espainiako Unibertsitateen Adierazle Sintetikoak, 2019' (BBVA Fundazioa eta IVIE) metodologia erabiltuta eginiko kalkulua, graduoko ikasleen ikasketa-uztearen bolumena eta ikasketak zer urtetan uzten dituzten aintzat hartuta, eta EHUko ikasle bakoitzarekin eginiko gastuaren hurbilketa eginda (EducaBase-ren datuak)

Bestela esanda, gazteei orientazioa akademikoa eta lanerako orientazioa eskaintzeko bi-deak dira haien enplegarritasuna hobetzen laguntzen duten elementuetako batzuk eta esperientziak erakusten du, gaur egun, hezkuntza-sisteman gutxi garatuta daudela eta badirudiela erabakiak hartzeko garaian ibilbide akademikoa eta profesionala hartzen direla aintzat eta informazio gutxi ematen dela aukera onenaren inguruan, gazteen profila eta ikasketen aukera profesionalak eta enplegarritasuna kontuan hartuta.

Batzorde honen iritziz, tresna horiek indartzeak lagundu egingo dio gazteen enplegarritasunari eta batxilergoa baino askoz lehenago ekin behar zaio horri eta emakumeen arazo espezifikoak eragingo dien ekintzak ere behar dira".





Batxilergoa egiten ari diren gazteen ikasketa-aukeraketan eragiten duten faktoreak identifikatzea azken urteetako interesgune eta aztergai bihurtzen ari da gazteek aukeratzen dituzten ikasketen, ikasketa horiek eskaintzen dituzten lan-aukeren eta lan-merkatuko eskaeren eta aukeren arteko desoreka azaltzeari begiratuta (Chacón eta Moso, 2018; ADEGI, 2018; Eusko Jaurlaritza, 2016; Mapfre Fundazioa et al., 2018; Laboral Kutxa, 2015; ELGA 2017).

Prestakuntzari eta arlo profesionalari lotutako erabakiak hartzeko prozesuari asko eragiten die zenbait aldagaik; adibidez, hezkuntza sistemako ikaskuntza-prozesuak berak, familiako maila sozioekonomikoak, zenbait errealitate profesionalen inguruko informazio-faltak eta/edo aurreiritziak eta abarrek.

Faktore horiek identifikatzeak eta oinarri horiei baliozkotasun zientifikoa emateak aukera emango du epe labur, ertain eta luzerako hezkuntzan, arlo publikoan eta enpresa arloan ekintza-plana zehatzak ezartzeko.

Horregatik, **“Gipuzkoako gazteek ikasketak aukeratzeko duten motibazioa”** proiektuaren helburua ezagutza-oinarri objektibo bat ezartzea izan da eta oinarri hori identifikatzea gazteen motibazioetan, esperotako horretan eta ikasketak aukeratzeko prozesuan eragiten duten aldagaia zein diren, eta aldagai horietako bakoitzak aipatutako prozesu horretan zer pisu erlatibo duen.

Hona hemen, zer planteatu dugun:

- Identifikatzea erabakiak hartzeko prozesuan esku hartzen duten eragileak, bakoitzak duen informazioa eta eragiteko gaitasuna
- Ezagutzea unibertsitateko eta lanbide heziketako diziplina akademikoek zer itxaropen sortzen duten.
- Neurtzea eragileek, ibilbide pertsonalek eta aldagaiek erabakiak hartzeko prozesuan zer pisu duten.
- Lanbide heziketako zikloen edo unibertsitateko graduen artetik eta eskaintzen diren titulazioen artetik aukeratzean esku hartzen duten aldagaia zehaztea.

Ikasketen aukeraketa jokabide bokazional gisa (Rivas, 1988; Gil, 1997; Rivas, 2002; Rivas, 2003; Carbonero eta Merino, 2004; López, 2004; Núñez eta Rubio, 2005; Martín 2006; Chacón eta Moso, 2018), pertsona batek mugiarazten dituen prozesu psikosozialen multzo gisa (testuinguruari lotutako prozesu erabakigarriak, soziokulturalak eta pertsonalak edo kognitibo-emozionalak) hartu izan da literaturan, lehentasunak ezarrita (interesetan, motibazioan eta bokazioan oinarrituta), sartu nahi duen edo sartu berria den helduen mundu profesional horrekiko, eta erreferentzia gisa gaztaroa-nerabezaroa bizitzeko faseak hartuta.

Laurogeita hamarrekotik hamarkadan hasita, ikasketak aukeratzeko erabakietan laguntza emateko, programa integralak sortu dira eta programa horien helburua pertsonari, haren bizi osoan zehar, garapenerako laguntza ematea da. Norbere burua ezagutzea, bizitzako ibilbidearen plangintza egitea eta erabakiak hartzea dira programa horren elementu nagusiak eta eredu gehienek ikuspegi kognitiboa-jokabidezkoa dute (alderdi neokonduktistak eta kognitibistak uztartuz), pertsona erabakiak hartzeko ardurazko prozesu batera bideratzeko (Gil, 1997; Rivas, 2003; López, 2004).

1985ean Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen Lege Organikoa (LODE) onartu zenetik 2013ko Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoa (LOMCE) onartu zen arteko tartean, zenbait lege onartu dira (LOGSE 1990ean, LOCE 2002an, LOE 2006an) eta lege horiek aitortu egin dute ikasleek hezkuntzari eta arlo profesionalari lotutako orientazioa jasotzeko eskubidea dutela eta ikastetxeetako irakaskuntzako egiturei eskuordetu diete ikasleei orientazioa eta tutoretza eskaintzeko funtzioak koordinatzearen ardura.

Euskadin, 90eko hamarkadan, zerbitzu horiek sendotu egin ziren eta 1988an Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak sortutako Orientazio Pedagogikorako Zentroak (COP) birmoldatu eta gaur egungo Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentro, Berritzegune, bihurtu ziren. Hezkuntzan laguntzeko zerbitzu bat dira, aholkularitzari, prestakuntzari eta berrikuntzari lotutako funtzioak betetzen dituzte eta haien berregituratzea 2009an gauzatu zen eta arautu egin zitzaien egitura, antolaketa eta funtzionamendua Berritzegune nagusi bat eta eremukako hemezortzi Berritzegune jarrita (Orcasitas, 2003; Monzón, 2008), hala, euskal hezkuntza-sare osora iristeko.

Ikasketen aukeraketaren arrazoiak jokabide bokazionalaren testuinguruan aztertzeko lana hezkuntzako aholkularitza- eta orientazio-prozesuak aplikatzen diren lekuan egin behar da, alegia, ikastetxeetan bertan. Proiektu honetarako, hemen aurkeztuko dugun analisiak Gipuzkoan batxilergoa eskaintzen duten eta proiektuan parte hartu duten ikastetxeetan eskuratutako emaitzak erakusten ditu, Gipuzkoan batxilergoa egiten ari diren gazteen ikasketa-aukeraketan eragiten duten faktoreak aztertzeko sortutako eskala sortaren bidez. Sorta lehen aldiz aplikatuko denez, metodologia aldetik, tresnari eginiko analisia esploraziozkoa da.

Ikasketen aukeraketari eragiten dioten faktoreak aztertzeko erabilitako galderen sortan txertatuta daude neurketa psikologikorako alderdiak, erabakiak hartzeko prozesuan garrantzi gehien izan dezaketen aldagaiei buruzko informazioarekin; aldagai horien artean daude autokontzeptua, jarrerak eta prestakuntza profesionalerako eta unibertsitaterako aukerei buruzko lehentasunak.

[illegible]

Mota honetako beste azterlan batzuetan bezala, galdera-sorta osatzeko INFORMAZIO SOZIO-DEMOGRAFIKOA - 1. BLOKEA (ikus, adibidez, ISEI 2012) dugu, emaitzak sexuaren, hezkuntza mailaren eta beste aldagai batzuen arabera testuinguruan kokatzeko aukera ematen duena, DATU SOZIOEKONOMIKOAK - 3. BLOKEA (item batzuk ISEI-IVEI Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea) eta/edo kulturalak ere bai. Jasotako aldagai sozio-demografikoak hezkuntzako edozein ebaluazio-azterlanetan –izan eskualdekoetan (ikus, adibidez, ISEI 2012), estatukoetan edo nazioartekoetan (adibidez, PISA azterlanak)– ohikoak izaten direnak dira.

Beste bloke bat ere gehitu dugu, 2. BLOKEA, IKASTEKO OHITURAK ETA ORIENTAZIO OROKORRAK gaitzat dituzten itemak dituen, arlo edo ikasgaietan dituzten lehentasunei buruzkoa.

Zenbait ikuspuntutatik aztertu ditugu ikasleek norabide akademiko bat edo bestea zenbait aldagairen arabera aukeratzeko arrazoiak eta eragin handiena dutenetako bat nortasunaren eta nortasunak aukeraketa bokazionalan eta gogobetetze profesionalean duen pisuaren arteko analisia (Holland, 1997) izan da. RIASEC eredua esaten zaio eta kultura eta herrialde ugaritan kontrastatu izan da (Elosua 2007a, b). Azterlanean parte hartu duen Gipuzkoako laginaren LANBIDEARI LOTUTAKO LEHENTASUNAK deskribatzeko, Holland-en eredu tipologikoa erabili dugu, proiektuaren ezaugarrietara egokituta¹.

Gure proiektuko lanbide-profilen azterketan, 4. BLOKEA, bost item berri gehitu dizkiogu Holland-en tipologian proposatutakoei. Item bakoitzak modu deskriptiboan txertatzen den lanbide-jarduera multzo bat deskribatzen du eta ikasle bakoitzak, horietako bakoitzari jartzen dio ea zer neurritan iruditzen zaion erakargarria, zer neurritan doitzen den bere aukera eta gaitasunetara eta zer neurritan gerturatzen den egingo duen aukera errealer, eta ikasleek

¹Sei mota daude:

(1) ERREALISTA: praktikoa, fisikoa, zehatza, pragmatikoa, mekanizatua eta tresnetara bideratua. Lanbide errealistetako lan-zereginetan, irtenbideak aurkitzeko lanak eskuz egitea eskatzen duten arazo praktikoak izaten dituzte. Askotan, landareekin, animaliekin eta mundu errealeko materialekin lotutakoa izaten dira; adibidez, egurrarekin, tresnekin eta makinekin. Multzo honetako lanbide askotan kanpoan egiten da lan eta ez da paper-lan askorik egin behar izaten; ezta beste pertsona batzuen ondoan aritu beharrik ere.

(2) IKERTZAILEA: analitikoa, intelektuala, zientifikoa, esploratzailea, pentsalaria. Ikerketaren alorreko lanbideetan, askotan, ideiak landu eta asko pentsatu behar izaten da. Lanbide hauetan sartzen da datuak bilatzea eta problemak buruan ebaztea.

(3) ARTISTIKOA: sortzailea, originala, independentea, kaotikoa, asmatzailea, komunikabide, grafiko eta testuekin lotutakoa. Lanbide artistikoetan, askotan, forma, diseinu eta ereduarekin egiten dute lan. Askotan, autoadierazpena erabili behar izaten da eta lana ezarritako araurik gabe egin daiteke.

(4) SOZIALA: elkarlantzalea, solidarioa, besteei laguntzen diena, sendatzailea/zaintzailea, irakaslea. Lanbide sozialetan, askotan, beste pertsona batzuekin lan egin eta komunikatu behar izaten da; edo eskolak eman. Lanbide hauetan, askotan, hirugarrenei laguntza edo zerbitzuak ematen aritzen dira.

(5) EKINTZAILEA: ingurune lehiakorak, lidergoa, konbentzitzea, estatusa. Ekintzailatzeko lanbideetan, askotan, proiektuak abiarazi eta garatu egin behar izaten dira. Lanbide hauetan, batzuetan, beste pertsona batzuen lider izan eta erabaki asko hartu behar izaten da. Batzuetan, arriskuak hartu behar izaten dira eta askotan negoziatzen sartzen dira.

(6) KONBENTZIONALA: xehetasunei begirakoa, antolaketa, kudeaketa Lanbide konbentzionalan, askotan, aurrez ezarritako prozedurei eta errutinei jarraitu behar izaten zaie. Lanbide horietan sartzen da datuak eta xehetasunak landu behar izaten dira ideiak baino gehiago. Jarraitu beharreko autoritate-ildo argi bat egoten da.

AUTOKONTZEPTUA –5. BLOKEA– aldagaiak industria-psikologian, erakundeen psikologian, hezkuntzako psikologian, psikologia klinikoan eta kirolaren psikologian duen garrantzia nork bere buruaren pertzepzioak ikerketa-aldagai gisa duen garrantziari lotuta dago (Shavelson, Hubner eta Stanton, 1976), baina baita autokontzeptua jokabide asko azaltzen dituen aldagaia izateari ere (Stevens, 1996). Espezialisten artean adostasun handiena duen autokontzeptuaren eredu teorikoa eta eraikitako sortaren eskalaren oinarri teorikoa osatzen duena Shavelson-ek aldarrikatutakoa da. Autokontzeptua (dimentsio anitzeko eredu baten bidez zehaztutako konstruktua da ezaugarri ditu antolatua, ikuspegi askotakoa, hierarkikoa, egonkorra, esperimentala, baloraziozkoa eta bereizgarria izatea) norbanakoak bere buruaz dituen pertzepzio multzoa da eta pertzepzio horien oinarrian daude besteekin dituen esperientziak eta dituen jokabideei lotuta bere buruari esleitzen dizkion ezaugarriak. Hala, norbanakoak bere buruaren inguruko autoebaluazio global bat eta zenbait autoebaluazio espezifiko ditu (Shavelson, Hubner eta Stanton, 1976; hemen: Fuentes, García, Gracia eta Lila, 2011). Lan honetan, autokontzeptu akademikoan biltzen ditugun alderdi zientifiko eta teknologikoei eskaini diegu arreta (Marsh, 1989; Marsh eta Byrne, 1993; Marsch, Byrne eta Shavelson, 1988). Autokontzeptuaren ebaluazioa erantzun graduatuko edo Likert motako itemen bidez egiten da. Lanbide-lehentasunei lotutako azterlanean bezalaxe, inkesta honen bidez jasotako datuek aukera ematen dute ikasle-laginaren deskribapen orokorra eta konparatiboa egiteko. Galdera-sorta aldagai berriekin osatu dugu, ebaluatzeko, ea erantzun duten pertsonak zenbateraino gai sentitzen diren matematikan, teknologian, ahalegin-errendimenduan, proaktibotasunean eta gaitasun sozialean.

Interesak, motibazioak, jarrerak eta bokazioa aztertzeko, 6 eskala bereiz aplikatu dira ikasketei eta lanerako lehentasunei erreferentzia eginda irudi orokorra eskuratzeko. Hala, INTERESAK, LEHENTASUNAK eta POSIZIOA ebaluatu dira lanpostuen ezaugarriei lotuta –6. BLOKEA–; ikasketak egiteko motibazioari lotuta –7. BLOKEA–; informazio-iturriari lotuta –8. BLOKEA–; aukera bokazionalerako posizioari lotuta –9. BLOKEA–; eta Lanbide Heziketako eta unibertsitateko ikasketei buruzko iritzia lotuta –12. BLOKEA–.

Sortako atal hau osatzen duten eskala moten helburua hau da: aztertzea lanbide-heziketari eta unibertsitateko ikasketei buruzko iritzia/urreiritziak eta ezagutzak; informazioa eskaintzea ikasleek baloratutako lanpostuen ezaugarriei buruz; ikasketak aukeratzeko garaian pisurik handiena duten motibazio-faktoreak identifikatzea; ikasleen interesei forma ematen pisu handiena duten informazio-iturriak ezagutzea; edo egin nahi dutenarekiko posizionamendu bokazionalaren maila ezagutzea. Lanaren zati hau, sortaren gainerakoa bezala berria denez, Katalunian Everis eta e-Motivak (2013) eginiko azterlanen eta txostenen antzekoa da, edo Mapfre Fundazioak, 2018an, Espainiako prestakuntza profesionalari buruz eginikoaren eta beste honen antzekoa ere bai: Aragoiko batxilergoko ikasleek ikasketekin jarraitzeko eginiko hautaketaren eta unibertsitate joatearen analisia –eragina orientazio akademiko, profesional eta pertsonaleko prozesuan– (Cortés et al., 2010). Gainera, beste azterlan batzuetan arreta txikiagoa edo arretarik eskaini ez zaien alderdi batzuk ere badi-tu; adibidez, gogokoen dituzten lanpostuen ezaugarri sozioekonomikoei buruzko atala eta

IKASLEENTZAKO INKESTA, 'INTERESAK, PRESTAKUNTZARAKO ETA LANERAKO AUKERAK'

Gipuzkoako batxilergoko ikasleak, 2018-19

DATU SOZIOEKONOMIKOAK-DEMOGRAFIKOAK

1. (sexua, maila, modalitatea, ikastetxe mota, eskualdea...)
3. (gurasoen ikasketa maila eta lana, etxeko diru-sarrerak...)

LEHENTASUNAK ETA GAITASUNAK

2. OHITURA eta ORIENTAZIO OROKORRAK (pozik ikasketekin, ikasteak lan ona bat aurkitzen lagunduko dit, pertsona gisa neure burua garatzen, ikasteari/etxerako lanak egiteari, eskolaz kanpoko jardueri eskainitako denbora, notak, gai gustukoenak/errazenak...)
4. ZEREGIN edo LANBIDE JARDUERA BATEKIKO LEHENTASUNAK (zeregin gustukoena/doitua/hautatua)
5. GAITASUNAK (Nota matematikan, langileztat dut neure burua, ondo egokitu naiz informatikara, behar adina denboran aritzen naiz ikasten...)

ERAGILEAK

14. INTERES PROFESIONALAK / ERABAKIAK
Erabakia dut batxilergoa amaitzean, prestakuntzarekin jarraituko dudala hemen:: batxilergoa amaitzean zer ikasiko dudana erabaki dut honen PRESIOPEAN:: etorkizuneko ikasketei buruzko nire erabakian pisurik handiena izan duena besteek diotena da

INFORMAZIO ITURRIAK

8. Nola eskuratu duzun egingo dituzun ikasketei buruzko informazioa: neronek, aitak, amak, irakaslee, orientatzaileek, internetek...

INTERES PROFESIONALAK, MOTIBAZIOAK, BOKAZIOA

7. MOTIBAZIOA IKASKETETARAKO (Batxilergoa amaitzean egiteko ikasketei dagokienez, honako hauei ematen diezu garrantzia: ahalegin handia egin behar izatea, gustukoak izatea, interesatzen zaidan lanerako beharrezko izatea, lana erraz aurkitzen laguntzea, nire familiak ordaintzeko modukoak izatea...)
 9. BOKAZIOZKO IDENTITATEA (Badakit zer lan mota egitea gustatuko litzaidakeen, badakit zer lanekin atera dezakedan bizimodua, badakit zer ikasketa egokitzen den ondoen nire ezaugarri pertsonaletara, argi daukat zer ikasketa ez ditudan egin nahi, kezkatu egiten nau ikasketak amaitu ondoren lana izango ote dudan...)
 12. IKASKETEI BURUZKO IRITZIA (Badira lanbide heziketan gustuko ditudan ikasketak, unibertsitateak gustuko ditudan ikasketak eskaintzen ditu, lanbide heziketa unibertsitatera joaten ez direnentzako da, unibertsitateko ikasketak teorikoegiak dira, etxean uste dute hobe dela unibertsitatera joatea, lanbide heziketa zer egin nahi duen argi duenarentzat da...).
- POSIZIONAMENDU ESPEZIFIKOA:
10. UNIBERTSITATEKO IKASKETEI BURUZKO IRITZIA (UNIBERTSITATERA joatea erabakiz gero, zer ikasketa egitea gustatuko litzazukeen/zer ikasketa doitzen den zure gaitasunetara/zer ikasketek lagunduko lizuketen lan on bat aurkitzen)
 11. LANBIDE HEZIKETARI BURUZKO IRITZIA (Lanbide Heziketara joatzea erabakiko bazenu, zer ikasketa egitea gustatuko litzazukeen/zer ikasketa doitzen den zure gaitasunetara/zer ikasketek lagunduko lizuketen lan on bat aurkitzen)
- INTERESAK ETA LEHENTASUNAK LANPOSTUAREN EZAUGARRIEI LOTUTA
6. LANPOSTUAREN ezaugarriak (Lan-munduari dagokionez, honako hauei ematen diezu garrantzia: gustuko lana izatea, gauza berriak ikasteko aukera emango didan lana izatea, soldata, prestigioa...)

LAN MUNDURATZEA-LANA

13. (Balio handiagoa ematen diot honi: gustuko dudana ikastea, ahalik eta denbora luzeenean jarraitzea ikasten, ikasi nahi dudana lanbidean aritzea, lan bat ahalik eta lasterren eskuratzeko, soldata ona izatea, familiaren etxetik joan eta nire bizimodua egitea...)
- Zer bidetatik uste duzu lortzen dela LAN BAT AZKARREN
Zure ustez, zer ESKATZEN EDO BEHAR DU GIZARTEAK

hezkuntzatik kanpoko eragileek orientazio-prozesuan duten zeregina. Erantzun graduatuko neurri gisa eraikitako eskalek honako hauekin lotutako alderdiak aztertzen dituzte: enpleguaren kalitateari emandako garrantzia (enplegatzailea, soldata, kokapena), eskaintzen den lanbide-heziketarekiko iritziak eta jarrerak, ikasketen aukeraketan zuzenean eragin dezaketen aldagai indibidualak eta familiakoak eta ikasleek erabilgarri dituzten informazio-iturriak

10. eta 11. BLOKEEK POSIZIONAMENDU ESPEZIFIKOAREN maila ebaluatzen dute lehentasunei, gaitasun eta aukeretara doitzeari eta UNIBERTSITATEKO IKASKETEKIKO eta LANBIDE HEZIKETAREKIKO lan-itxaropenei lotuta.

13. BLOKEAN IKASLEEK ENPLEGUARI EMATEN DIOTEN GARRANTZIA EDO ZENTRALITATEA identifikatzeko lehentasunak aztertuko ditugu. Eskala World Values Survey delakoak kudeatutako balioei buruzko nazioarteko azterlanean dago oinarrituta. 100 herrialdetan baino gehiagotan ebaluatua izan da eta haren 10 itemeko eskala 400.000 pertsonak baino gehiagok erantzun dute. Gure kasuan, eskala 11 alderdiko zerrenda baten bidez egokitu dugu eta alderdi horiek ematen zaien garrantziaren arabera ordenatu behar dira. Sartu ditugun alderdiek aukera ematen dute Gipuzkoako gazteen lehentasunak modu berritzailean ebaluatzeke, zuzenean neurtzen baitute batxilergoa egiten ari diren gazteen adinean enpleguak zer zentraltasun duen.

Amaitzeko, 14. BLOKEAN, sorta amaitzean duten ERABAKITZE MAILAREN SENDOTASUNA aztertu dugu. Azterlana amaitzeko, badugu ziurgabetasunaren edo erabaki bokazionalaren eskala ere, eginiko aukeraren sendotasuna ebaluatzen duena.

Ikasketak aukeratzeari lotutako motibazioetan, itxaropenetan eta erabakiak hartzeko prozesuan eragiten duten aldagaiak identifikatzeak lagundu egin behar du politika eta ekintza zehatz eraginkorrak garatzen, orientazio profesional eguneratua eta modernizatua behar bezala bideratzeko aukera izateko eta orientazio horrek informazio erreala eman dezan aukeraketa egokia eta ikasleen interesetara eta lan-merkatuaren aukeretara doitutako aukeraketa egiteko.

Helburuak lortzeko, honako bi premisa hauetatik abiatu gara. (1) Gazteen ehuneko txiki batek du irteera profesional bati lotutako bokazio profesional argi jakin bat. (2) Aukeraketa- edo erabakitze-prozesuari asko eragiten diote zenbait aldagaik; adibidez, hauek: autoeraginkortasunaren inguruko sinesmenek (ibilbide profesionala garatzearen teoria kognitibo soziala) (Lent, Brown eta Hackett, 1994, 2000); norberak bere buruarengan hautemandako ezaugarriak, familiako diru-sarrerek, aurreko ikasturteko batez besteko notak, lanbidearekiko gustuak eta soldata eta enplegu ona lortzeko aukerak (Rivas, 2007; Blanco, 2009); sozializazio diferentzialak (familia-jatorria eta itxaropen sozialak, generoari eta kulturari lotutakoak), jasotako orientazioak, aurretik eskolan eginiko ibilbideak eta kostua-onura-arriak balantzeak (Merino, 2007)

Egoera horren aurrean, azterlan kuantitatibo honen bidez, ezagutza-oinarri objektibo bat finkatu nahi dugu Gipuzkoako gazteei ikasketak aukeratzean, motibazioan, itxaropenetan eta erabakitze-prozesuan eragiten dieten aldagaiak identifikatzeko. Horrek aukera emango du epe labur, ertain eta luzerako estrategia eta ekintza-planak diseinatzeko, hala, gazteek ikasketa industrial, tekniko eta teknologikoei buruz ikuspegi errealistagoa eta zabalagoa izan dezaten eta aukeraketarekin gogobetetze pertsonal handiagoa eta ongizate sozial hobea lortu ahal izango da, eskaera profesionala eta proiektatutako itxaropenak hobeto doituta.

Hala, informazio horrekin, jarduera zehatzak biltzen dituen ekintza-plan bat diseinatu dugu, eta zenbait arlo biltzen ditu:

- **Hezkuntza arloa:** norbere burua ezagutzeko ekintzak, “zertan naiz ona?”, irakasgai teknikoak ikasteko prozesua, stem emakumea...
- **Arlo publikoa:** komunikaziorako eta gizartearen sentibilizaziorako politikak emakumea arlo tekniko-industrialean aritzearen inguruan, pertzepzio sozialaren aldaketa ziklo profesionalari vs unibertsitateko ikasketei buruz, “LH marka” delakoaren inguruko ekintzak eta abar.
- **Enpresa arloa:** industria-errealitatearen berri zabaltzea, egiazko informazioa ematea eta alde zuzenetik pentsatutako ideiak ezabatzea, enpresak gazteengana eta ikastetxeetara gerturatzea eta abar.




Inkestan parte hartu dute¹, guztira, batxilergoko bi mailetako 1.641 ikaslek (lehen mailan % 51k eta bigarrenen % 49k). Gipuzkoako 11 eskualdetakoak eta 36 ikastetxetakoak (guztira 71) izan dira. Gipuzkoan maila horretan, guztira, dauden 10.596 ikasleetatik % 15,5 osatzen dute eta batxilergoko 1. eta 2. maila egunez egiten ari diren ikasleetatik % 16,1 (10.189 ikasle guztira)..

Batez ere 2001 eta 2002 urteetan jaiotako pertsonak dira, 6.700 inguru Gipuzkoan bi urteetako bakoitzean (beraz, 3.000 gazte baino gehiago ez dira batxilergoa egiten ari, erdi mailako prestakuntza-ziklo bat baizik; gehienak DBH amaitu ondoren).


% 86,2 Euskal Autonomia Erkidegoan jaiotakoak dira eta % 78,7k familia (ama-aita), ja-torritz, Euskal Autonomia Erkidegokoa dute. % 77,3k bizi diren herrian bertan ikasten dute

7 urte zituzten azken krisialdi ekonomikoa hasi zenean, beraz, helduagotan bizi izan dituzte, zati handi batean gainera, krisialdiak sortutako arazo ekonomikoak eta lan-arazoak. Hala, lan-merkatuaren pertzepzio subjektibo txarra dute, haien ustez, lan-merkatuan langabezia handia eta egonkortasun-falta baitaude (eta hori ez dator bat haien inguruko pertsonen egoera horietan erabiltzen dituzten datuekin).



¹ Atal honetan, 1. eta 3. blokeetako datu sozioekonomiko-demografikoei lotutako galderetan eskuratutako emaitza nagusiak labur deskribatuko ditugu; baita 2. blokeko (Ohiturak eta orientazio orokorrak), 4. blokeko (Lehentasunak lanbide-jarduera bakoitzean) eta 5. blokeko (Gaitasunak) lehentasunei eta gaitasunei (ikasketekin eta zereginekin lotuta) lotutako galderen erantzunak ere.

Batxilergoko emakumezko ikasleak, modalitateka (%)




Fuente: Alumnado matriculado curso 2017-18. Mº Educación y Formación Profesional / Mº Ciencia, Innovación y Universidades

Gainera, **ez dute independentzia ekonomikoa izateko**, gurasoen etxetik joateko edo nazioartera joateko **desira argirik adierazten**. **Familia txikietakoak** dira (% 12k ez dute anaia-arrebarik eta ia % 80k anaia-arreba bakarria dute) eta horri Gipuzkoan, errentetan, dugun berdintasun-falta txikia gehituta gehienek **arlo materialetik ondo hornituta dute etxea¹** eta eroso daude hornitze horrekin.


¹ Etxeko hornidurak, galdetu ditugunak, oso antzekoak dituzte ikasle guztiek eta oso zaila da alde sozioekonomikoen arabera bereiztea. IV. eranskinean azalduta eta hurrengo grafikoan jasota dagoen moduan, ezin dira ia bereizi hornitze handieneko eta txikieneko bi muturrak, bi dezimaleko aldea bakarrik dago. Ikasleen % 80 tarteko egoeran dago eta oso antzeko hornitzeak dituzte.

Ikasleen % 90ek haien gela propioa dute eta % 75,2k ikasteko erabiltzen dute gela hori. Hori dute ikasleen % 78,6k ikasteko lekuri gogokoena. Etxeen % 95etan Internet eta wifi dituzte eta ia % 50etan, gutxienez, tablet bat dute eta etxeen % 31,3tan, gutxienez, ordenagailu bat (% 68etan bat baino gehiago). Etxeen % 21etan, gutxienez, Smartphone bat dute (% 77etan bat baino gehiago). Etxeen % 48,8etan, gutxienez, ibilgailu bat dute (% 49,1etan bat baino gehiago). Etxe bakoitzean, batez beste, 262 liburu dituzte.


Amaren ikasketa maila (%)



Aitaren ikasketa maila (%)





Adierazle sozio-ekonomikoa




Bestalde, 2017-18 ikasturtean Gipuzkoan batxilergoa egiten aritu diren ikasleek (maila guztiak), batez ere, zientzia-batxilergoa aukeratu dute¹, % 56,2k, hain zuzen. Arabako ikasleen artetik % 55,3k aukeratu dute **zientzia-batxilergoa** eta Bizkaikoen artetik % 53k (Euskal Autonomia Erkidegoan % 54,6k eta Espainian % 45,9k).

Batxilergoan gizarte-zientziak ikasi dituztenei begiratuta, Gipuzkoan % 33,7k egin dute aukera hori, Araban % 31k eta Bizkaian % 35,4k (Euskal Autonomia Erkidegoan % 34,2k eta Espainian % 20,3k).

Beraz, Gipuzkoan zientzia-batxilergoan matrikulatutako ikasleen batez bestekoa goi-goiko postuan eta Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoaren gaineretik dago, eta Espainiako batez besteko baino hamar puntu gorago ere bai. Gizarte-zientzien modalitateari dagokionez, Gipuzkoako matrikulazioa Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoaren parean dago eta Espainiako batez bestekoa baino hamahiru puntu gorago.




1 Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak eta Zientzia, Teknologia eta Unibertsitateen Ministerioak emandako behin betiko matrikulazio-datuekin alderatua (EDUCAbase, 2019).




Nabarmentzekoa da ikasle gehienek unibertsitateko ikasketak eginak dituztela (% 48,7k), % 22,4k lanbide-heziketakoak eta % 26k batxilergoa edo maila apalagoko ikasketak. Ikasleen aitei dagokienez, % 33,2k unibertsitateko ikasketak eginak dituzte, % 31, lanbide-heziketakoak eta % 31,4k batxilergoa edo maila apalagokoak.

Aurreko grafikoan ikusten da alde handiak daudela ikastetxe publiko eta pribatuetako ikasleen gurasoei dagozkien unibertsitateko ikasketen ehunekoen artean; amen artean 6 puntuko aldea dago ikastetxe publikoen eta pribatuen artean eta aiten artean, berriz, 9 puntukoa. Hala ere, amen zein aiten arteko aldea 5 puntura jaisten da Lanbide Heziketa amaitu dutenen ehunekoak batuz gero.

Eginiko inkestatik eta focus groups direlakoetatik eskuratutako datuek **batxilergoa egiten ari diren gazteen** nolabaiteko **argazkia** erakusten dute. **Egiten ari diren ikasketei lotuta dituzten gaitasun eta lehentasunak zein diren eta dituzten gaitasunei buruz zer autoebaluazio egiten duten ikusten da**, eta argazki hori nahiko urrun dago zenbait estereotipotatik.



DBHko batez besteko nota batxilergo-modalitatearen arabera



- Pozik daude egiten ari diren ikasketekin:** % 75 baino gehiago pozik daude eta % 8, berriz, ez daude ados edo ez daude batere ados. Ez daude hain ados ikasketek lana aurkitzen lagunduko dietela esatearekin (4 puntuko aldea, besterik ez), edo ikasteak pertsona gisa errealizatzeko balio dietela esatearekin (9 puntuko aldea lehenengoarekin)..

Ikasleen % 87ren ustez, **unibertsitateko ikasketak amaitzea da helburua** (% 90etik gora dira Zientzia eta Teknologia, arlo Biosanitarioa modalitatea aukeratzen dutenen artean eta % 62,5 dira modalitate Artistikokoak) eta, hala, gutxiengo batentzat izan ezik (% 10), Lanbide Heziketa ez dago prestakuntzarako berehalako itxaropenen artean.

Hala ere, **ikasleen % 23k ez dute oraindik erabaki** batxilergoa amaitzean unibertsitateko ikasketak edo Lanbide Heziketa egingo ote duten. % 68k adierazi dute unibertsitateko ikasketak egitea erabaki dutela (Zientzia-Teknologia, arlo Biosanitarioa modalitatekoetatik % 72k eta modalitate Artistikotik % 53k) eta % 9k, berriz, ziklo profesionaleko ikasketak. Badakite LHko ikasketek enplegarritasun handiagoa emango dietela (badago LHko ikasketak baliozko izatearekiko aitortpena), baina unibertsitateak eskaintzen dituen ikasketak 'gustukoagoak' dituzte eta iruditzen zaie gizarteak gehiago eskatzen duela edo gehiago behar duela unibertsitatea. Aitortu dute familiak eta ikastetxeak egiten duela unibertsitatera joateko nolabaiteko presioa ere. Ikastea, garapen pertsonalerako, ona dela iruditzen zaie.



- Ahalmen gaitasun onak** dituztela iruditzen zaie (lana ahalik eta kalitate onenarekin egitea, ahalegina –matematikari izan ezik–, analisia eta irtenbide-proposamenak, gaitasun kritikoa, eskoletara joatea –emakumeek hobea–) **ikaskuntza teknologikoan** ¹(smartphone, IKTak, ordenagailua –gizonek hobea-).

Baina ikasleen % 44k bakarrik adierazi dute egunean ordubete eta bi orduren artean eskaintzen dizkiela ikasteari eta etxerako lanak egiteari eta % 18k bi ordu baino gehiago. % 32k, berriz, ordubete baino gutxiago eskaintzen dizkie zeregin horiei eta % 6k ez du ez ikasten, ez etxerako lanak egiten (ez dago alde handirik batxilergoko modalitate bate-tik bestera).

¹ Z belaunaldia esaten zaion hau (1995-2015ean jaioak) belaunaldi autodidakta dela esaten da (Interneteko tutoretzen bidez ikasten dute), problemak eta beharrak modu pertsonalean eta bideratuan konpondu eta asetzen dituztela, arreta-tarte labur-rrarekin (aplikazio baten erabilera-denbora). Eta belaunaldi dagozkien balioei lotuta, 'Multigenerational Research in Human Resource Management' (Parry eta Ng, 2016, AEB) azterlanak honako hau dio: 'in general, younger generations of workers -particularly for Millennials- tend to exhibit a strong preference for extrinsic aspects of work (e.g., material rewards) and leisure time, and have low work centrality; while older generations tend to emphasize intrinsic aspects of work, prestige, and also report higher work centrality'.

'Educa20.20: Situación de la educación en España' azterlanaren arabera, gurasoen kasuan ere gertatzen da: Euskadiko aita eta amen % 85 baino gehiagoren iritziz (Espainiako batez bestekoaren gainetik) haien seme-alabek emaitza akademiko onak eskuratzen dituzte. Eta pertzepzio hori dute, iruditzen zaielako seme-alabek, emaitza on horiek, egiten duten ahaleginagatik eta dituzten gaitasunengatik lortzen dituztela.

Frogatuta dago, pertsonok gehiegi balioesten dugula egiten dugun ahalegina. Hala, [Oficina de Estadísticas Laborales de los Estados Unidos](#) (BLS) delakoaren azterlan baten arabera, astean zenbat ordu lan egiten duten galdetzen zaienean, egindako lanaren erregistro zehatzagoa egiten dutenean baino ordu kopuru handiagoa adierazten dute (% 5-10 gehiago): astean 40 ordu lan egiten dutenek, batez beste, 43 ordu egiten dituztela diote.

Gai gogokoena eta errazena
(3 gogokoen/errazenen arteko %)Gai gogokoena eta errazena
(batez besteko nota)

Hala, badirudi ikasleek barneratua dutela errealitatearen ikuspegi kritikoa eta ahaleginaren garrantzia eta emaitzak, eta gai ikusten dute haien burua gauzak zalantzan jarri eta kritikak egiteko eta irtenbideak bilatzeko garaian, proaktibotzat dute haien burua. Ahalegina, gaitasun teknologikoa eta matematikarako gaitasuna aldagaiak dira autokontzeptua konstruktua ondoen azalduko luketenak.

Baina **zehaztu** egin behar da autopertzepzio hori eta adierazi behar da, ziurrenik, eta erantzun informatuei erreparatuta, **ahalegin handiagoa eginda emaitza hobeak eskuratu**ko lituzketela. Beraz, emaitzak oro har –eta bereziki, adibidez, matematikan– hobetzeraz bideratutako ahalegin handiagoa egiteak autokontzeptua hobetzen lagun dezake.

- **Helburu orokorre** dagokienez, ez daude orientazioa galduta: argi dute zer ez duten egin nahi (lan egin edo ikasi), iruditzen zaie etorkizunean izango duten lana oso gauza garrantzitsua dela eta kezka sortzen die horrek. Kezkatuta daude egingo dituzten ikasketek eskaintzen duten enplegarritasunari buruz ere (sakonago aztertuko dugu hori ondorengo ataletan). Garrantzi ertaina du (ez handia) denbora libre izateak, kirola egiteak edo gizarte-eraketa egiteak (topikoetan sartu nahi izan gabe, aurreko milenial belaunaldiari lotutako balioak).
- Ikasketak amaitzean **lan 'egokia' izateari balioa ematen dioten arren, batxilergoa amaitzean egingo dituzten ikasketen aukeraketa gehiago baldintzatzen dute dituzten 'gustuek'** (eta hor pisua dute orain dituzten irakasgaiek eta horiek irakasteko moduak). Agian, ez dutelako ikasketa mota bakoitzak eskaintzen dituen lan-aukeren inguruko informaziorik, edo urrutikotzat dituztelako.
- **Ez dute matematika gorrotatzen** (ikasleen 2. ikasgai gogokoena da¹ hiru ikasgai gogokoena zein dituzten galdetzean) eta Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia eta Biologia ere gustuko dituzte; Gorputz Hezkuntza dute, zalantzarik gabe, gai gogokoena eta STEM gai batzuk, Fisika, Kimika eta Informatika adibidez, batez bestekoaren gainetik daude (nahiz eta ez zaizkien errazak iruditzen), baina ez, aldiz, Teknologia eta Industria-teknologia.

Gutxien gustatzen zaizkienak Natura-zientziak, Geologia, Latina/Greziera eta Frantsesa dira.

Baina komeni da gustuko dituzten gaietan gizonen eta emakumeen arteko aldeei ere erreparatzea (8. kapitulua).

- Hala ere, matematikako noten banaketak ez du gainerako irakasgaietan ohikoa den banaketa-eredua –kanpaia– jarraitzen eta batez besteko nota txikiagoa da.

Zientzia-Teknologia, arlo Biosanitarioa modalitateko ikasleek lortzen dituzte nota onenak galderei zegozkien lau arloetan eta atzetik dituzte Gizarte Zientziak, Humanitateak eta Letrak eta Artistikoa modalitateetako ikasleak.

- **Bokazioari dagokionez jarduera erakargarriena¹**, ikasle bakoitzaren aukerei eta gaitasunei ondoen doitzen zaiena eta etorkizuneko ikasketei begira aukeratzea aurreikusten duten aukera ikerketa da (hor sartzen dira laborategiko lanak; makinak, ibilgailuak edo teknologia diseinatzea eta fabrikatzea eta zerbitzu mediko eta osasun arlokoak eskaintzea) eta atzetik ditu 'pertsonei zerbitzuak eskaintzea, zaintza eta gizarte-laguntza' eta 'beste pertsona batzuei irakastea, besteak hezteak, orientatzea eta gaitzea'.

Kasu guztietarako daude, berez, prestakuntzarako ibilbideak, bai unibertsitatean, bai lanbide heziketan.

Aipagarria da, hala ere, konponketak duen balorazio orokor baxua (gauzak konpontzea; makinak fabrikatzea, prestatzea, instalatzea; tresnak erabiltzea, etab.), baina pixka bat hobea da gizonen artean eta modalitatea zientifikoa, eta lotuago dago ziklo profesionalekin eta STEM lanbide batzuekin.

- Beharrezkoa litzateke, ikasteari eta etxerako lanak egiteari eskaintako denborari lotuta, eskolaz kanpo egiten dituzten jarduerari buruz ere hausnartzea; % 3 bakarrik dira institututik irtetean eskolaz kanpoko jarduerarik egiten ez dutenak eta harrigarria da ikus-tea **ikasleen ia % 40k ikasketetan laguntzeko eskolak jasotzen dituztela**. Kirola egiteaz gain (% 68), ikasleen % 38k hizkuntzak ere ikasten dituzte eta beste % 25 ikasketetan laguntzeko akademietara ere joaten dira.

Gaitasunen blokeari eginiko analisi faktorialean gaitasunak **ahalegina², gaitasun teknologikoa³ eta matematikarako gaitasuna⁴** aldagaietan multzokatzen dira. Trinkoenak dira eta osagai duten item kopuruari begiratuta (gutxienez lau), autokontzeptuaren konstruktua ondoen azaltzen dutenak dira, bariantzaren % 50 baino gehiago azaltzen baitute (bariantza azalduaren proportzioa)

¹ Ordena aldatu egin daiteke aplikatutako metrikaren arabera. Batez besteko notaren bidez baloratuta (3 'erakargarriena', 2 'dezente gus-tatuko litzaizuke' eta 1 'zerbait gus-tatuko litzaizuke') eta aukera erakargarriena aintzat hartuta, emaitzak antzekoak dira; baina eskaintako hiru aukeren artean baloratzen duten emaitza guztiak aintzat hartuta, lehen postuan dago 'Pertsonari zerbitzuak eskaintzea eta gizarte-la-guntza' eta atzetik du 'Beste pertsona batzuei hezkuntza, heziketa, orientazioa eta prestakuntza eskaintzea'.

² Honako item hauek osatzen dute: 'Nire burua langileztatu dut', 'Behar adina denboraz ikasten dut', 'Matematikako ariketak behar adina aldiz errepikatzen ditut', 'Lanak ahalik eta kalitate handienarekin egiten saiatzen naiz' eta 'Egiten dudana lanean, beti ahal dudana ahaleginik handiena egiten dut'.

³ Honako item hauek osatzen dute: 'Ondo egokitzen naiz aplikazio informatikoetara', 'Ondo moldatzen naiz IKTekin', 'Ondo aritzen naiz ordenagailuarekin lanean' eta 'Azkar ikasten du smartphoneko aplikazio berriak erabiltzen'.

⁴ 'Nota ona ateratzen dut matematikan', 'Ulertzen ditut matematikako ariketak', 'Matematikako ariketak behar adina aldiz errepikatzen ditut' eta 'Lanean erraz aritzen naiz matematikako eskolan'.

¹ Ordena aldatu egin daiteke aplikatutako metrikaren arabera. Batez besteko notaren bidez baloratuta (3 'gogokoena', 2 'bigarren gogokoena' eta 1 'hirugarren gogokoena') eta gogokoan duten aukera aintzat hartuta, emaitzak antzekoak dira eta lehen hirurak Gorputz-heziketa, Biologia eta Gizarte-zientziak dira; baina hiru gogokoenen artean baloratzen duten erantzun guztiak aintzat hartuta, hau litzateke hurrenkera: Gorputz-heziketa, Matematika, Gizarte-zientziak eta Ekonomia.


Gaitasunen autoebaluazioa

(Maiz eta beti edo ia beti...)




(Ikasle guztien artetik 'beti' eta 'ia beti' erantzun dutenen %)

Jarduera erakargarriena, doituena eta aukeratutakoa



(Nota ertaina baliosten 3 'erakargarriena', 2 'nahiko gustatuko litzaizuke' y 1 'zerbait gustatuko litzaizuke')



Eginiko inkesten zati handi batek **batxilergoko ikasleek adierazitako interes profesionalen ezagutzarekin** du lotura, **ikasketekiko motibazioari, identitate bokazionalari edo ikasketei eta horien ezaugarriei buruzko iritzi orokorrari** lotuta¹.

Hasteko, batxilergoko ikasleentzat oso edo erabat garrantzitsua da **batxilergoa amaitzean egingo dituzten ikasketei begira, 'ikasketak nire gustukoak izatea'** (erantzunen % 97an 4 eta 5eko balorazioa 5etik), **'interesatzen zaidan lanerako beharrezkoak izatea', 'lana erraz aurkitzeko aukera ematen dutenak izatea' eta 'nire familiak ordaintzeko modukoak izatea'** (% 75-85).

Beraz, **nagusi dira ikasketak 'norbere gustuekin' bat etortzea eta egin litekeen lanarekiko kezka.**

Balorazioen % 50etan edo gutxiagotan dago ikasketek 'diru asko irabazteko balio izatea' eta % 30etik behera, ikasketek 'izen ona izatea', 'ikasketa-zentroaren kokapena (hiri berean/beste hiri batean) edo izen ona', 'ahalegin handia ez eskatzea', 'ahalik eta iraupen laburrenekoak izatea', 'lagunen batek ere ikasketa horiek egitea' eta 'aitak eta/edo amak ikasitakoa izatea'.

Etorkizuneko lanaren gaineko kezka hori **identitate bokazionalari** eta interes profesionalen balorazioari lotuta adierazi dute. Hala, nabarmendu dute **etorkizuneko lana oso garrantzitsutzat dutela** (eta azken lekuan kokatu dute horren aurkakoa: 'ez nau lan-munduratzeak kezkatzen, urrunekoa da'), kezka sortzen diete etorkizuneko lanari lotutako alderdiek eta ikasketak amaitu ondoren lana izateak.

Gainera, **diote ondo dakitela zer lan EZ duten egin nahi eta zer ikasketa EZ duten egin nahi** (bazterketa bidez) eta balorazio gutxiago eskuratu du haien ezaugarri pertsonalei ondoen zer ikasketa doitzen zaien jakiteak.


Ikasketak aukeratzeko motibazioa ere, badirudi, **familiak laguntzeko dituen aukera ekonomikoek** baldintzatzen dutela. Alderdi horiek etorkizuneko ikasketei buruzko amaierako erabakia molda dezakete, eta horrek eragin dezake, erabakitze-heinean, beti gogobetetze handiena sortzen dienaren alde egitea, betiere, familiaren ekonomiak horretarako aukera ematen badu eta egin beharreko ahalegina egiteko modukoa iruditzen bazaie.

Balorazioaren azken postuetan daude, negatiboan, ez dakitela zer urrats egin behar duten lortu nahi duten lana lortzeko, ez dutela argi batxilergoa amaitzean zer ikasi, ezin dituztela erraz deskribatu lortu nahi duten lanaren ezaugarriak eta ez dituztela ondo ezagutzen lortu nahi luketen lanerako beharrezkoak diren gaitasun profesionalak.

¹Atal honetan sartu ditugu honako bloke hauetako galderak: 7. blokea, Ikasketekiko motibazioa; 9. blokea, Identitate bokazionala; eta 12. blokea, Ikasketei buruzko iritzia. Eta hor sartzen dira iritzi espezifikoak eskatzen duten blokeak ere: 10. blokea, Unibertsitateko ikasketei buruzko iritzia; eta 11. blokea, LHko ikasketei buruzko iritzia.


Interes profesionalen eta etorkizuneko lanaren balorazioa

(5etik 5 edo 4 puntuko balorazioa eman duten ikasleen %)




Oso garrantzitsua da batxilergoa amaitu ondorengo ikasketek ezaugarri hauek izatea

(5etik 5 edo 4 puntuko balorazioa eman duten ikasleen %)



Ikasketei buruzko iritzia

Ados nago Ez dakit Ez nago ados



Etorkizuneko lanaren gaineko kezka hori **identitate bokazionalari** eta interes profesionalen balorazioari lotuta adierazi dute. Hala, nabarmendu dute **etorkizuneko lana oso garrantzitsutzat dutela** (eta azken lekuan kokatu dute horren aurkakoa: 'ez nau lan-munduratzeak kezkatzen, urrunekoa da'), kezka sortzen diete etorkizuneko lanari lotutako alderdiek eta ikasketak amaitu ondoren lana izateak.

Gainera, **diote ondo dakitela zer lan EZ duten egin nahi eta zer ikasketa EZ duten egin nahi** (bazterketa bidez) eta balorazio gutxiago eskuratu du haien ezaugarri pertsonalei ondoen zer ikasketa doitzen zaien jakiteak.

Ikasketak aukeratzeko motibazioa ere, badirudi, **familiak laguntzeko dituen aukera ekonomikoek** baldintzatzen dutela. Alderdi horiek etorkizuneko ikasketei buruzko amaierako erabakia molda dezakete, eta horrek eragin dezake, erabakitze-heinean, beti gogobetetze handiena sortzen dienaren alde egitea, betiere, familiaren ekonomiak horretarako aukera ematen badu eta egin beharreko ahalegina egiteko modukoa iruditzen bazaie.

Balorazioaren azken postuetan daude, negatiboan, ez dakitela zer urrats egin behar duten lortu nahi duten lana lortzeko, ez dutela argi batxilergoa amaitzean zer ikasi, ezin dituztela erraz deskribatu lortu nahi duten lanaren ezaugarriak eta ez dituztela ondo ezagutzen lortu nahi luketen lanerako beharrezkoak diren gaitasun profesionalak.

Hau da, **informazio-falta handia dute lanari buruz, lanerako gaitasun zehatzei eta haien talentuari ondoren doitzen zaizkion gaitasunei buruz eta etorkizunerako irudikatzen duten lan horretarako behar diren ikasketei buruz.**


Ikasketei buruz duten iritzian adostasun handia dago zenbait adierazpenetan; adibidez, hauetan: **'Unibertsitateak nire gustuko ikasketak eskaintzen ditu'** eta 'Ikastea ona da garapen pertsonalerako'.

% 50eko adostasuna dago, halaber (gutxietsi behar ez den % 20-30eko desadostasun mailarekin), hauetan ere: 'Lanbide heziketan gustuko ikasketak aurki ditzaket', 'Ikasteak herritar arduratsu izaten laguntzen du', 'Lanbide heziketaren aitoren soziala apala da', 'Nire etxean uste dute hobe dela unibertsitatera joatea'.

Beste muturrean, % 50 baino gehiago **ez daude ados LHren balorazio apalarekin** (hala, oso balorazio txikia eta desadostasun maila handia jaso dute honako adierazpen hauek: 'Lanbide heziketak ez du intelektualki gaitzen', 'Nire etxean uste dute hobe dela lanbide heziketa ikastea', 'Lanbide heziketak ez du behar besteko garapen profesionalik eskaintzen', eta 'Lanbide heziketa unibertsitatera iristen ez direnentzako da'). Eta, modu osagarrian, hauekin: 'Ikasle on batek unibertsitatean ikasi behar luke', eta 'unibertsitatearen aitoren soziala apala da'.


UNIBERTSITATERA joateko erabakia hartuko bazenu...

(asko eta guztiz gustatuko litzaizukeena %)



LHra joateko erabakia hartuko bazenu...

(asko eta guztiz gustatuko litzaizukeena %)



Amaitzeko, aipatu behar da ezaugarri eta balorazio hauetan **ez dagoela alde nabarmenik gizonen eta emakumeen artean; ez eta zentro publikoen eta pribatuen artean ere.**

Hala, ikusten da interes profesionalei dagokion **motibazio-erreferentzia nagusia** zera dela, **ikasketak ikasle bakoitzaren 'gustukoak' izatea** eta alderdi hori erabakigarria dela erabakia hartzeko prozesuan. Baina horren osagarri, **instrumentalki baloratzen dute ikasketak egingo duten lanerako erabilgarri izatea eta ikasketek lana lortzeko aukera ematea**. Beraz, etorkizuneko ikasketak erabakitzeke aukerak lanera bideratuta egoteak badu presentzia, nahiz eta berehalako garrantzirik ez izan.

Gehienek ez dute lana gertu ikusten, baina etorkizuneko lanarekin lotura duenak ikasleen % 65i sortzen die kezka eta ikasketak amaitzean lana izateak ere antzeko neurrian kezkatzen ditu. Ehuneko handi batek adierazi du badakitela zein diren haien ezaugarri pertsonaletara ondoen doituko liratekeen ikasketak.

Deigarriak dira **bigarren mailako garrantzia** edo **batere garrantzirik** ez duten beste alderdi batzuk ere. Adibidez, gurasoen prestakuntza mailak sor dezakeen erakarpena oso txikia da. Eta ikastera familiako etxetik urruti joatearekin, lagunen aukeraketa akademikoarekin, ikasketen iraupen laburrekin eta zentroaren izen onarekin lotutako alderdiek garrantzi erlatiboa dute.

Unibertsitateko ikasketei eta lanbide-heziketakoei buruzko jarrera-hartze espezifiko bi blokeei dagokienez, ikasle bakoitzari eskatu zaio hartzeko jarrera bat (1) ikastea gustatuko litzaiokeenari buruz, (2) dituen gaitasun eta aukeretara ondoen doituko litzakeenari buruz eta (3) lan on bat lortzera bideratuko lukeenari buruz

Honako hau baieztatu dezakegu:

- Ikasleen iritziz, **unibertsitateko ikasketa gogokoenak** (3. aukera "dezente gustatuko litzaizuke" eta 4. aukera "gehien gustatuko litzaizukeena") dira, aldi berean, **ikasleen gaitasunetara ondoen doituko liratekeenak**: gizarte-zientzien eta zientzia juridikoen ezagutza arloa (% 56 gogokoenetan eta % 56 doitzeari begira), osasun-zientziak (% 54 eta % 51,5, hurrenez hurren), hezkuntza-zientziak (% 48 bi kasuetan) eta laugarren lekuan, ikasketa teknikoak eta zientziak (% 46 eta % 44).

Lan on bat lortzeko aukera emango luketen aukerei dagokienez, lehen postuan dago osasun-zientzian ezagutza-arloa (% 69), bigarrenetan ikasketa teknikoak eta zientziak (% 63) eta hirugarrenean, gizarte-zientziak eta zientzia juridikoak (% 54).

Lanbide-heziketako ikasketei dagokienez ere, gogokoen dituztenak dira, ikasleen iritziz, **haien gaitasunetara ondoen doituko liratekeenak**: lehen postuan, 'Gizarte-osasun zerbitzuak, ostalaritza, kultura' familia (% 63 gogokoenetan eta % 64 doitzeari begira);

horren atzetik 'Administrazioa, kudeaketa, marketina eta kalitatea' (% 57 eta % 58); hirugarren lekuan, 'Arte grafikoak, informatika, irudia eta soinuak' (% 47,5 eta % 46) eta laugarren lekuan, 'Fabrikazio mekanikoa, automatismoak, robotika' (% 41 bi kasuetan).

Eta pixka bat berrordenatzen dira lan on bat lortzera bideratuko lituzketen lanbide-heziketako aukerak izateko: 'Administrazioa, kudeaketa, marketina, kalitatea' familia (% 62); 'Gizarte-osasun zerbitzuak, ostalaritza, kultura' (% 57); 'Fabrikazio mekanikoa, automatismoak, robotika' (% 56); eta 'Elikagai-industria, kimika' (% 44).

- Bitxia da nola gizonen eta emakumeen arteko joera erreproduzitzen den **lan on bat lortzera bideratzen dutela iruditzen zaien ikasketetan**. Unibertsitatekoen artean, emakumeek gehiago nabarmen dituzte 'osasun-zientziak' eta ondoren daude, gertu 'ikasketa teknikoak eta zientziak'. Gizonek, berriz, gehiago nabarmendu dituzte 'ikasketak teknikoak eta zientziak', ia horiek bakarrik. LH-prestakuntza-zikloetan, emakumeek gehiago nabarmendu dituzte 'Gizarte eta osasun zerbitzuak; soziokulturalak; ostalaritza eta turismoa; irudi pertsonala' eta gizonek, berriz, askoz gehiago 'Fabrikazio mekanikoa' eta 'Elektrizitatea eta elektronika'.

Interes profesionalei buruz egin dugun faktore-analisian, honako hauek ikusi ditugu:

- 7. blokean ikasketetarako motibazioari lotutako interes profesionalak azal ditzaketen hiru dimentsio nabarmenenak azaltzen dira: **izen ona/estatusa¹, eraginkortasuna/ahallegina² eta kidetasuna³**. Bariantzaren % 60 azalduko lukete (bariantza azalduaren proportzioa).
- Prestakuntzarako aukeren argitasunari dagokienez, 9. blokean, (identitate bokazionala) bi dimentsio azaltzen dira. Lehenengoak sendotasun handiagoa du interes profesionalak azaltzeko **eta prestakuntza-aukeraren argitasuna⁴** deitu diogu (bariantzaren % 50 baino gehiago azalduko luke) eta **ikasketa-lana doitzea⁵** delakoak ez du hainbesteko sendotasunik (bariantzaren % 10 azalduko luke).
- Eta estereotipoetan oinarritutako LHko ikasketei eta unibertsitatekoen buruzko iritzia azaltzeko (12. blokea), hiru dimentsio daude, baina sendotasun handiagoko dimentsio bakarrera murriz daitezke: **LHri buruzko estereotipo soziala** (bariantzaren % 40 azalduko luke).

¹ Honako item hauek osatzen dute: 'Ikasitakoak balio dezala diru asko irabazteko', 'Prestigiodun ikasketak', 'Prestigiodun zentroa' eta 'Lana erraz aurkitzeko aukera ematen duten ikasketak'.

² Honako item hauek osatzen dute: 'Ahalgin handia eskatzen ez duten ikasketak', 'Ahalik eta iraupen laburrenako ikasketak' eta 'Ikasketa-zentroa etxetik gertu'.


³ Honako item hauek osatzen dute: 'Nire aitak/amak ikasitakoa izatea', 'Beste hiri/erkidego batean egin beharreko ikasketak' eta 'Nik egin nahi dutudan ikasketak lagun batek ere egitea'.

⁴ Honako item hauek osatzen dute: 'Argi dut zer ikasiko dudun batxilergoa amaitzean', 'Badakit zer urrats egin behar dudun lortu nahi dudun lana lortzeko', 'Erraz deskriba ditzaket lortu nahi dudun lanaren ezaugarriak', 'Ondo ezagutzen ditut lortu nahi dudun lanerako beharrezkoak diren gaitasun profesionalak', 'Badakit zer lan mota gustatuko litzaidakeen', 'Badakit zer lan motarekin ateratzea dezakedan bizimodua', eta 'Badakit zer ikasketa doitzen diren ondoen nire ezaugarri pertsonaletara'.

⁵ Honako item hauek osatzen dute: 'Badakit zer lan doitzen den ondoen nire ezaugarri pertsonaletara' eta 'Argi daukat zer ikasketa ez dudun egin nahi'.



Ez zaio garrantzi nabarmenik ematen lan-munduratzeari¹ batxilergoa amaitu ondorengo ikasketei lotuta; ez du berehalako garrantzirik (baina horrek ez du esan nahi ez duenik batere 'baliorik' etorkizuneko ikasketei buruzko erabakia hartzean).



Lehen aipatu dugun moduan, batetik, lan-merkatuaren pertzepzio partziala dute, lan-merkatuan langabezia handia eta egonkortasun falta nagusi direla uste baitute (bizialdiaren zati handi bat azken krisialdi ekonomikoan bizi izan duen belaunaldia da) eta lana oso urrun ikusten dute eta ez dute independentzia ekonomikoa lortzeko, gurasoen etxetik joateko edo nazioarteko mugikortasunerako desira handirik adierazten.

De hecho, saben que los estudios de FP les conceden una mayor empleabilidad y hay un reconocimiento hacia la validez de estudios de FP aunque la mayoría considera que la Universidad ofrece estudios 'más de su gusto' y será su opción de continuidad de estudios elegida.

Hala, badakite LHko ikasketek enplegarritasun handiagoa ematen dutela eta badago LHko ikasketen baliozkotasunaren aitortpena, nahiz eta gehienek ustez, unibertsitateak 'gustukoago' dituzten ikasketak eskaintzen dituen eta aukera horren alde egingo dute ikasten jarraitzeko. Hala, lan-munduratzearen zentraltasunari buruzko galderen blokean 'Gustuko dudana ikastea' lehenetsi dute, 10etik 8,7ko batez besteko notarekin; hau da, ia erabateko balioa eman diote horri

Bigarren lekuan dago '**Ikasi nahi dudan lanbidean aritu ahal izatea**', 7,6ko batez bestekoarekin. Eta lehen aipatu dugun moduan, '**Soldata ona izatea**' hirugarren da balorazioan, 6,6 punturekin. Posizio garrantzitsua da, baina puntuazioan ere alde nabarmena du lehen bi itemekiko.

Laugarren postuan hasi dira lan-munduari balioa ematen. Hala, 'Lana aurkitzeko aukera handiagoak izatea' delakoak 6,3 puntu lortu ditu batez beste, baina ez dute ikasleek lanean hasteko presarik ere (4,8).

¹ Atal honetan sartu ditugu honako hauek: 6. blokea, Interes profesionalak eta lanpostua; eta 13. blokea, Enpleguaren zentraltasuna eta garrantzia.

Balorazioari lotuta azken postuetan eta 5etik behera ditugu 'Ikasketen iraupena ahalik eta gehien luzatzea' (3,0), 'Familiako etxetik joan eta nire bizimodua egitea' (4,0) eta 'Gizartearen balorazioa eta aitortza sentitzea' (4,3).

Balorazioen ordena ez da aldatzen eta batez bestekoa ere ez da ia aldatzen emakumeak eta gizonak eta zentro publikoak eta pribatuak alderatuta (zentroen artean, gehieneko aldeak 4 hamarrenekoak dira).

Gizonen eta emakumeen arteko bi alde nagusiak hauek dira: emakumeen balorazioa altuagoa dela soldataren garrantziari –emakumeek 8,1 eta gizonek 7– eta 'Familiako etxetik joan eta nire bizimodua egitea' baieztapenaren garrantziari dagokionez –emakumeek 6,2 eta gizonek 4,2–.

Ikasleek identifikatu dute **lana azkar aurkitzeko hobe dela LH-Prestakuntza-ziklo bat egitea (% 46)**, baina hala ere, badago **dikotomia bat haien ustez gizarteak eskatzen dietenarekin** (adibidez, komunikabideek, erakundeek, politikariek edo enpresek iradokitzen dutena) eta gehienek uste dute eskatzen zaien hori ikasketekin unibertsitatean jarraitzea dela (% 44).

Galdera-sortaren 6 blokean, etorkizunean izango duten lan-munduari lotuta, galdetu diegu ea zer garrantzi ematen zaien **lanpostuaren ezaugarri** batzuei.


Hala, **'nire gustuko lan bat izatea'** eta **'segurtasuna eta egonkortasuna lanean'** gailendu dira (% 90ek baino gehiagori oso garrantzitsua edo erabat garrantzitsua dela adierazi dute), 'laneko giro ona' baieztapenaren aurretik. Laugarren postuan 'soldata' dago (gehiago gizonetan eta gizarte-zientzietan) eta ondoren, 'gauza berriak ikasteko aukera emango didan lan bat izatea' (% 80ri baino gehiagori oso garrantzitsua edo erabat garrantzitsua iruditzen zaie).

Bigarren taldean, % 70ek baino gehiagok oso garrantzitsutzat edo erabat garrantzitsutzat dituzte 'Lanpostu hobe lortzeko aukera izatea', 'Nire laneko zereginak askotarikoak izatea, ez monotonoak', 'Lan interesgarria eta sozialki garrantzitsua dena izatea' (emakumeentzat 10 puntu gehiago), 'Proiektu profesional bat garatzeko aukerak izatea', 'Lan egingo duan enpresaren sendotasun ekonomikoa' eta 'Erakundeak ingurumenarekiko kezka izatea' (emakumeentzat 8 puntu gehiago).

Eta **amaierako taldean** (tarteko blokea ez dugu xehatuko), **ikasleen % 50 baino gutxiagorekin**, oso garrantzitsutzat edo erabat garrantzitsutzat dituzte enpresa mota (multinazionala, publikoa) eta haren kokapena (gertu, nazioartean); hala: enpresa etxetik gertu izatea; Lanak nazioarteko mugikortasunerako aukera ematea; Nire kontura lan egitea, nire lana edo enpresa eratuta (adi, ekintzailetzak oso balorazio baxua du, pixka bat altuagoa gizonetan); Lan egingo duan enpresaren prestigioa; Enpresa bizi naizen udalerrian egotea; Enpresa sektore publikokoa izatea; edo Enpresa multinazional batean lan egitea.

Lan munduarekin zein da BAKOITZARI EMATEN DIOZUN GARRANTZIA

(guztiz eta oso garrantzitsua den jendearentzat %)



5. **R**ELEVANCIA DE LA INSERCIÓN LABORAL



Lanpostuaren ezaugarrien garrantziari buruzko bloke honi egindako analisi faktorialean, honako aldagai hauen inguruan daude ezaugarriak multzokatuta: **Ibilbide profesionala¹, Pertsonalki aberastea², Mugikortasuna/Kontziliazioa³ eta Gizart-erantzukizuna⁴**. Horiek dute sendotasunik handiena eta horiek azaltzen dituzte ondoen lanpostuen ezaugarriei lotutako interes profesionalak (bariantzaren % 40-50).


Hala, ondoriozta daiteke **ikasle bakoitzak laneko errealitateari buruz informazioa eskuratzeko eta iritzia izateko lan aktiboa egiten duela** eta laneko errealitatera doitzeari dagozkion elementuak aintzat hartzen dituela, lanpostu bati dagozkion alderdi garrantzitsuenak aztertuta.


Lanpostu bati lotutako alderdien artean ikasleek gehien baloratu dituztenak **bokaziozko lana izatearekin (gustukoa)** lotutakoak dira etorkizunerako prestakuntza-aukerei buruzko erabakia hartzeko garaian, baina baloratu dituzte lanaren segurtasuna eta egonkortasuna eta laneko giroa, lanean aberastasun pertsonala lortzea, ezaugarri sozioekonomikoak eta lanaren estatus soziala ere.

Hala, ikasketa batzuk edo besteak egiteko erabakiaren zentraltasuna eta garrantzia ondoen azaltzen dituzten faktoreak **uztartu egiten dituzte alderdi bokazionalak** (gustuko dudana ikastea) **eta enpleguari edo lan-munduratzeari lotutakoak** (ikasi nahi duten lanbide horretan aritu ahal izatea eta soldata/lan-baldintza onak izatea).

1 Honako item hauek osatzen dute: 'Proiektu profesional bat garatzeko aukerak izatea', 'Lanpostu hobeak lortzeko aukera izatea', 'Soldata', 'Enpresaren sendotasun ekonomikoa', 'Enpresaren prestigioa', 'Segurtasuna eta egonkortasuna lanean', 'Egindako lanagatik goikoen aitortpena jasotzea'.
2 Honako item hauek osatzen dute: 'Gauza berriak ikasteko aukera emango didan lana', 'Laneko giro ona', Segurtasuna eta egonkortasuna lanean', 'Erakundeak ingumenarekiko kezka izatea', 'Enpresak sormena sustatzea' eta 'Laneko zereginak askotarikoak izatea, ez monotonoak'.
3 Honako item hauek osatzen dute: 'Nazioarteko mugikortasunerako aukera ematen duen lana', 'Enpresa multinazional batean lan egitea', 'Enpresa bizileku dudan udalerrian izatea', 'Enpresaren irudi soziala', 'Sektore publikoko enpresa izatea', eta 'Nire kontura lan egitea, nire lana edo enpresa eratuta'.
4 'Nota ona ateratzen dut matematikan', 'Ulertzen ditut matematikako ariketak', 'Matematikako ariketak behar adina aldiz errepikatzen ditut' eta 'Lanean erraz aritzen naiz matematikako eskolan'.

Garrantzia lanpostuaren ezaugarriei lotuta (oso garrantzitsutzat edo erabat garrantzitsutzat jotzen duten pertsonen %)






Proiektuaren helburuetako bat da hauek **identifikatzea**: zer **eragilek**¹ esku hartzen duten batxilergoaren ondoren egin beharreko prestakuntza mota erabakitzeko garaian, ikasleen eragiteko zer gaitasun duten eta mezu esanguratsuak helarazteko **informazio-kanal** eraginkorrenak.

Gogora dezagun batxilergoko ikasle gehienen hasierako nahia unibertsitateko ikasketak amaitzea dela (% 87), eta gutxiengo batek soilik aintzat hartzen duela Lanbide Heziketan jarraitzeko aukera (% 10). Hala ere, ehuneko horiek dezente murrizten dira, erabakia hartu duten galdetzen bazeaie. Izan ere, oraindik % 23k ez dute erabaki (% 68k, aldiz, erabaki dute unibertsitateko ikasketekin jarraituko dutela, eta %9k, ziklo profesionalekin), batxilergoko 2. mailako ikasleen artean ere bati.

Lehenik eta behin, azpimarratu behar da ia-ia **ez dagoela presiorik** egungo zikloa amaitzean zer prestakuntza egingo duten erabakitzeko: emakumezkoen % 62k eta gizonezkoen % 54k adierazi dute ez dutela presiorik jasan. Presioak jasaten dituzten ikasleei dagokienez, % 24k funtsean gurasoengandik² jasotzen dituzte, eta ia inork ez du adierazi irakasleen (% 7) edo orientatzaileen (% 3,5) presiorik jasaten duenik




1 Atal honetan, 14. blokeari (Erabakiak hartzea) eta 8. Blokeari (Informazio-iturriak) buruzko gaietan lotutako emaitza nagusiak bildu ditugu.

2 Amen % 48,3k unibertsitateko prestakuntza du, eta aiten, % 32,9k. Aiten % 31k ditu Lanbide Heziketako ikasketak, eta amen % 22,2k.

Amek, batez ere, esparru hauetako lanbideak dituzte: zientifiko-intelektuala (% 20,4), zerbitzu-langileak (% 20) eta administrazio langilea (% 19,7). % 8,5eko zuzendaritzako lanpostuak dituzte eta % 15,9k oinarrizko okupazio bat edo ordaindu gabekoa dute. Aiten kasuan, gehien errepikatzen diren enpleguak eraikuntzako langilea (% 18,4), zuzendaritza-gerentzia (% 16,6) eta makina-, instalazio-, muntaketa-langilea (% 14) dira.

Nire..... diotenak du PISU handiena nire etorkizuneko ikasketei buruzko erabakian. (%)



Etorkizuneko prestakuntzari buruzko erabakian egon daitekeen eraginari erreparatzen badiogu, aitortu dute inguruneke eragileek gero eta eragin handiagoa dutela, nahiz eta **lautik batek adierazi duen bere irizpidearen arabera erabaki duela. Ama eta aitaren eragina¹ % 15 ingurukoa da bakoitzarentzat.** Eta gainerako eragileek eragin txikiagoa dute, % 10etik beherakoa kasu bakoitzean, irakasleak eta orientatzaileak aintzat hartuta (% 5,6 soilik lehen eraginerako).

Hau da, badirudi, zer ikasi eta irteera profesionalak erabakitzeko garaian, **amaren aholkuak** duela indar handiena (aitaren rol zertxobait txikiagoarekin alderatuta), eta baliteke, familia-nukleoa **amen prestakuntzak eta lanbideak eta unibertsitateko ikasketak egiten dabilzan edo egin dituzten anai-arrebak izateak** unibertsitatean ikasteko aukeren erreferentzia-, orientazio-, fokuratze- eta/edo sendotze-funtzioen bat betetzea, edo, behinik behin, unibertsitatean ikasteari lotutako gizarte-ordezkaritza transmititzea.

Hala ere, oro har, **gurasoen prestakuntza-mailak** eragin dezakeen erakarpina txikia dela dirudi. Eta ikasteko familiaren etxetik urrutira lekualdatu behar izatearekin, lagunen aukera akademikoarekin, ikasketen iraupen laburrarekin edo ikastetxearen edo egin beharreko ikasketen prestigioarekin lotutako alderdiek garrantzi erlatibo oso txikia dute.

Eta aipatu dugun bezala, beste gai garrantzitsu bat da gazteek batxilergoa amaitzean zer prestakuntza egin behar duten erabakitzeko informazioa lortzeko bideak, eta zer informazio behar dituzten eta zenbateraino asetzen dituen jasotako informazioak.

Hasiera batean, **ez daude pozik egun duten informazioarekin**, ia denek (% 87) 'ahalik eta informazioa egokiena eta zehatzena izan nahiko bailuke, egin ditzakeen ikasketei buruz'.

¹ 'Educa20.20: Situación de la educación en España' azterlanaren arabera, Euskadin gurasoen % 52k adierazi dute seme-ala-bei ikasketei/lanbideari buruzko aholkuak eman dizkietela. Eta % 57k soilik esan du horretarako dokumentatu egin dela. Internet (% 68) izan da gurasoek gehien erabilitako baliabidea dokumentatu ahal izateko, eta ondoren tutorea (% 35) eta orientatzailea (% 33) izan dira beste baliabide erabilienak.

Batxilergoa amaitzen egin ditzaketen ikasketei buruzko INFORMAZIOAREKIN lotuta (Beti / ia beti edo maiz -4 eta 5 balorazioa, 5eko eskalan)

	Guztira	Emakumea	Gizona
Ahalik eta informazio egokiena eta zehatzena izan nahiko nuke egin ditzaketen ikasketei buruz	87	92	80
Zuzenean entzun nahiko nieke lanean ari diren profesionalak, enpresak bisitatu, lanpostuak ikusi	71	75	65
Unibertsitateko irakasleek ikasketei buru zer esan dezaketen entzun nahiko nuke zuzenean	64	70	56
Interneten aurkitu dut ikas dezaketenari buruzko informazio baliagarria	60	67	50
Informazio-hitzaldietara, solasaldietara, mahai-inguruetara...joan nahiko nuke.	50	56	41
Nire amak irteera profesionalak buruzko aholkuak ematen dizkit	49	51	46
Nire amak zer ikas dezakedan aholkatzen dit	47	47	46
Nik neuk bilatzen dut informazioa	47	51	40
Lanbide heziketako ikastetxetako irakasleei zuzenean entzun nahiko nieke ikasketei buruz hitz egiten	43	44	41
Nire aitak irteera profesionalarekin lotutako aholkuak ematen dizkit	39	38	39
Lanbide heziketako ikastetxeak bisitatzea lagungarria izango zait zer ikasi nahi dudana erabakitzeko	37	38	36
Nire aitak zer ikas dezakedan aholkatzen dit	35	33	37
Batxilergoa amaitzean zer ikasi daitekeen jakiteko orientazio-saioren batean parte hartu dut	30	33	26
Institutuko orientatzaileak zer ikas dezakedan argitzen dit	28	27	29
Unibertsitateko jardunaldi irekietan parte hartzen du	27	30	22
Institutuko irakasleek komeni zaizkidan ikasketei buruzko informazioa ematen didate	23	22	24
Institutuko tutoreek komeni zaizkidan ikasketei buruzko informazioa ematen didate	21	20	22
Ikasketei, lanbideei... buruzko dokumentalak ikusi ditut telebistan edo Interneten	21	19	23
Nire anai-arrebek zer ikas dezakedan aholkatzen didate	21	17	21
Nire lagunak zer ikas dezakedan ikasketei buruzko informazioa ematen didate	13	13	14
Ez dut orientaziorik behar, ez eta informaziorik ere	11	10	13
Nire lagunak zer ikas dezakedanari buruz duten iritziak eragina du nigan	7	5	9
Zer ikasketa egingo ditudan erabakitzeko, kontuan hartzen ditut nire lagunak zer ikasketei buruz hartu dituzten iritziak	5	3	7

Horrez gainera, nahiko argi dute zer informazio mota jotzen duten baliagarritzat beren erabakiak hartzen laguntzeko, eta zentzu horretan, hiru ikasletik bik adierazi dute ‘Zuzenean entzun nahiko lieketela lanean ari diren profesionalei, enpresak bisitatu, lanpostuak ikusi...’ eta ‘Unibertsitateko irakasleek ikasketei buruz zer esan dezaketen entzun nahiko luketela zuzenean’ (askok jada erabakia baitute Unibertsitatera joango direla, baina zer karrera aukeratu zalantzatan dabiltza) edo erdiarentzat interesgarria litzateke ‘informazio-hitzaldietara, solasaldietara, mahai-inguruetara... joatea’. Egiaz, % 27k parte hartu dute Unibertsitatearen jardunaldi irekietan.

Batez ere informazioa beren kabuz bilatzen dutelako lortzen dute (% 47). **Informazio-iturri nagusiak dira Internet** (% 60k adierazten dute), eta **ama eta aitaren aholkuak** (% 49-35).

Ikastetxeen eraginari dagokionez, orientatzaileek eta irakasleek ikasketen erabakiak hartzen laguntzeko informazio-igorle gisa oso parte-hartze txikia dute²: dirudienez, tutoreek eta irakasleek presio handiagoa eragiten dute orientatzaileek baino. Orientatzaileek, beren zeregina aintzat hartuta, espero dena baino errendimendu txikiagoa dute . % 30ek baino gutxiagok batxilergoaren ondorengo ikasketei buruzko orientazio-saioren batean parte hartu omen dute, eta institutuko orientatzaileek, irakasleek edo tutoreek zer ikas dezaketen azaldu omen diete.

Hau da, ikasle ugarik **trinkotasunez aintzat hartzen dute informazio egokia eta zehatza izatea beren irteera akademikoari buruz**, eta egiaztatzen dute informazioa eta orientazioa jasotzeko beharra dutela etengabe. Horrez gain, **profesionalek eta enpresek irteera profesionalei buruzko informazioa zuzenean ematea** balioesten dute, lanpostuak ikusiz edo unibertsitateko eta lanbide heziketako irakasleengandik zuzenean informazioa jasoz. Eta erabakiak hartzeko bi elementu erabaki horren gabezia dela eta, ikasleen ia % 60 **informazioa bere kabuz bilatzen hasten da Interneten**.

8. bloke honetan informazio-iturriek interes profesionaletan duten eraginari buruzko analisi faktorialean, trinkotasun handiagoko sei alderdi ageri dira: **gurasoak**³ , **ekimena/kezka/**

proaktibitatea⁴ , **ikastetxea**⁵ , **lagunak**⁶ , **zuzeneko lekukotzak**⁷ **eta xede-ikastetxeak**⁸ . Bariantzaren (b.a.p.) % 60 baino gehiago izatea azalduko luke.

Hala, lehentasunekotzat joko zen **kalitateko orientazio-zerbitzu kolegiatu eguneratuaren eskaintza bermatzea, bai eta orientazioaren funtzioa**⁹ **hobetzea ere** ikastetxeetan.

Horretarako, **hezikuntza-ereduak** ikastetxeen, tutoreen, irakasleen eta orientatzaileen orientazioari **balioa emateko prozedura** xede horietarako berariazko **Plan Estrategiko** baten bidez antolatu behar da, goi mailako eta Lan-prestakuntzarako eta orientaziorako karrera profesionaleko prestakuntza-ibilbide espezializatuak aintzat hartuz.

Batxilergoko ikasleak, ikastetxeak eta lanean dabiltzn profesionalak edo enpresa harremanetan jartzea lagungarria izan daiteke **zenbait eragileren artean espazioak eta ekimenak sortzeko**.

4 Item hauek osatzen dute: ‘Ni neu arduratzen naiz informazioa bilatzeaz’, ‘Unibertsitateko ate irekien jardunaldietan parte hartu dut’, ‘Interneten bilatzen dut ikas dezakedanari buruzko informazio baliagarria’, ‘Lanbide Heziketako ikastetxeak erabiltzea lagungarria izango litzaidake zer ikasi erabakitzeke’, ‘informazio-hitzaldietara, solasaldietara, mahai-inguruetara... joan nahiko nuke’, ‘Telebistan edo Interneten ikasketei, lanbideei... buruzko dokumentalak ikusi ditut’ eta ‘Batxilergoaren ondorengo ikasketei buruzko orientazio-saioren batean parte hartu dut’.

5 Item hauek osatzen dute: ‘Institutuko orientatzaileak zer ikas dezakedan azaltzen dit’, ‘Institutuko irakasleek zer ikasketa komeni zaizkidan azaltzen didate’, eta ‘Institutuko tutoreek zer ikasketa komeni zaizkidan azaltzen didate’.

6 Item hauek osatzen dute: ‘Nire anai-arrebek zer ikasi aholkatzen didate’, ‘Nire lagunek ikas dezakedanari buruz duten iritziak nigan eragina du’, ‘Zer ikasketa egingo ditudan erabakitzeke, nire lagunek ikasketen inguruan hartuko duten erabakia ere aintzat hartzen dut’, eta ‘Nire lagunek informazioa ematen didate egin ditzakedan ikasketei buruz’.

7 Item hauek osatzen dute: ‘Zuzenean entzun nahiko nuke unibertsitateko irakasleek ikasketen buruz esan dezaketena’, ‘Zuzenean entzun nahiko nuke Lanbide Heziketako ikastetxeetako irakasleek ikasketei buruz esan dezaketena’, ‘Zuzenean entzun nahiko nieke lanean ari diren profesionalei, enpresak bisitatu, lanpostuak ikusi...’ Eta ‘Egin ditzakedan ikasketei buruzko ahalik eta informazio egokiena eta zehatzena izan nahiko nuke’.

8 Item hauek osatzen dute: ‘Lanbide Heziketako ikastetxeak bisitatzeak zer ikasi behar dudan erabakitzen lagunduko lidake’ eta ‘Zuzenean entzun nahiko nuke Lanbide Heziketako irakasleek ikasketei buruz esan dezaketena’.

9 ‘Cuando se valora la forma en que se está llevando a cabo la tutoría, más del 60% de los sujetos de 1º y de 2º piensa que no es atractiva, no trata temas de su interés, no les ayuda a analizar la relación entre sus características y las de las profesiones que les gustan, no aclara sus dudas y no les motiva a buscar información. Si a esto se le añade que para un 50% del alumnado la tutoría no contempla su participación ni tiene en cuenta sus opiniones, podemos concluir que para una mayoría de los sujetos el desarrollo de la misma no está respondiendo a sus expectativas.’ (...) ‘En concreto, para los alumnos la tutoría ha de ser una hora para resolver problemas y dudas vitales, sondear sus carencias de información y analizar la información necesaria para el futuro académico y laboral.’ (...) ‘Además, la idea es que el alumnado no sólo se conforme con los datos presentados en la clase, sino que sea capaz de buscar la información, compartirla con el grupo-clase y debatirla en el espacio de la tutoría para ir clarificando y madurando su proyecto de vida.’ <0>Santana Vega, L. E. y Feliciano García, L.: ‘Dificultades en el proceso de toma de decisiones académico-profesionales: el reto de repensar la orientación en Bachillerato’. <0>

in Revista de Educación 350 (2009).

2 Beste ikerketa batzuetan ohikoa da. Santanak eta García beren “Dificultades en el proceso de toma de decisiones académico-profesionales: el reto de repensar la orientación en Bachillerato” artikuluan (Revista de Educación, 350. Iraila-abendua, 323-350. 2009) hau adierazten dute: ‘el papel de los orientadores y de los profesores tutores en el proceso de toma de decisiones queda reducido a la mínima expresión. Prácticamente no se les cita entre las personas que les ayudan a configurar su opción al final del Bachillerato, circunstancia que revela la poca incidencia de la acción tutorial y orientadora realizada por ambos agentes. Ello pone en solfa el papel de los tutores y orientadores a la hora de apoyar al alumnado en el siempre costoso proceso de toma de decisiones académico-laborales. El alumnado aprecia un evidente divorcio entre lo que se «demanda a» y lo que se «oferta desde» la tutoría. Esta falta de sintonía se ha constatado también en una investigación anterior realizada con alumnos de la etapa de Secundaria Obligatoria (Santana y Feliciano, 2006).’

3 Item hauek osatzen dute: ‘Nire aita aholkuak ematen dizkit irteera profesionalei buruz’, ‘Nire amak aholkuak ematen dizkit irteera profesionalei buruz’, ‘Nire aita zer ikas dezakedan aholkatzen dit’ eta ‘Nire amak zer ikas dezakedan aholkatzen dit’.




Batxilergoko ikasketak egiten ari diren ikasle gutxik erabaki dute Lanbide Heziketako prestakuntza-ziklo bat egiten jarraituko dutela, ikasleen % 8,7k soilik, nahiz eta % 23,4k ez duen erabaki zer prestakuntzarekin jarraituko duen (ia ez dago alderik Batxilergoko 1. eta 2. mailen artean).


Kontuan izan behar da **LHko prestakuntza-zikloen inguruko hautemate txarrik ez dagoela**, nahiz eta gerora ikasketa horiekin lotutako estereotipoetako batzuk errepikatu. Hala, badakite Lanbide Heziketako ikasketen bidez enplegua lortzeko aukera handiagoa dagoela, eta LHko ikasketen baliozkotasuna aitortzen da (% 70ek ados dago edo guztiz ados dago 'Lanbide Heziketaren bidez lortutako prestakuntza praktikoa oso baliagarria da' baieztapenarekin. Puntu gehien jasotakoa da). Dena dela, azkenean, gehiengoan ustez, Unibertsitateak ikasketa '**gustukoagoak**' eskaintzen ditu (aurrekoaren bloke berean % 85ek 'ados' edo 'gutziz ados' daudela adierazi dute). Eta zenbait **zeregin**, hala nola 'konpontzea' eta beti Lanbide Heziketarekin lotu izan ohi diren **irakasgaiak**, besteak beste, Teknologia, Industria Teknologia eta Marrazketa Teknikoa ez datoz bat ikasleen lehentasun okupazionalekin, ez zaizkie erakargarriak iruditzen.

Oraindik **gizonezkoen kutsu nabarmena** du Lanbide Heziketak. Izan ere, ikasketa horien hautua egiten dutenen % 63 gizonezkoak dira eta % 37 emakumezkoak; erdi-mailako eta goi-mailako prestakuntza-zikloetan proportzio hori dago. Kasu honetan, gizonezko guztien % 12,6 da (proportzioa pixka bat handiagoa da ikastetxe pribatuetan) eta emakumezko guztien % 5,4 (proportzioa pixka bat handiagoa da ikastetxe publikoetan).

Amaren/aitaren ikasketa-maila



■ unibertsitateko anai/arreba %
■ LH-ko anai/arreba %



* anai/arreba-kiko ikasleak

% 12,6 da (proportzioa pixka bat handiagoa da ikastetxe pribatuetan) eta emakumezko guztien % 5,4 (proportzioa pixka bat handiagoa da ikastetxe publikoetan).

Egiten ari diren Batxilergo modalitatearen arabera, % 45 'Zientifiko-Teknologiko-Biosanitarioa' modalitatean daude, % 38ko 'Gizarte Zientzietan' eta % 15 'Giza Zientzietan', eta ikasleak modalitateen artean nola banatuta dauden adierazten du horrek.


Kopuru erlatiboetan, Giza Zientzietatik dator ekarpen handiena (ikasleen % 11 dago modalitate horretan), eta txikiena, berriz, 'Zientifiko-Teknologiko-Biosanitarioa' modalitatean (% 7).

Hauk dira Unibertsitatera joan diren ikasleen **ezaugarri bereizgarri** batzuk:


- **Familian anai-arreben aurrekariak¹ dituzte:** LH egiteko erabaki hartu duten (eta anai-arreba nagusiagoak dituzten) ikasleen % 45ek LH egiten ari diren edo egin duten anai-arrebak dituzte (eta % 56 unibertsitate ikasketak egiten ari dira edo egin dituzte). Unibertsitatera joateko erabakia hartu duten eta anai-arreba nagusiagoak dituzten ikasleen artean ehunekoa erdira jaisten da (% 22k LH egiten ari diren anai-arrebak dituzte, eta %78k Unibertsitatean dabilzan anai-arrebak).

Hala ere, Lhrako alborapena, gurasoetako batek hautu hori egin izanagatik, txikiagoa dela dirudi: ikasketa-maila handiena LHkoa duten amen eta aiten, eta LH egitea erabaki duten ikasleen arteko proportzioa ez da askoz ere handiagoa (LH egin duten amen % 27 eta aiten % 39 vs. laginaren gainerakoen % 22 eta % 31).

Amaren/aitaren okupazioa (%)




Batez besteko notak DBHn




¹ Lagin osoan, ikasleen % 30,5k unibertsitatean ikasten ari diren edo ikasi duten anai-arrebak dituzte; eta % 12,1ek, Lanbide Heziketako ikasketak dituenak.

- Ikasketa-maila txikiagoko gurasoak** dituzte: unibertsitateko ikasketak dituzten gurasoen proportzio txikiagoa dute. LH egiteko erabakia hartu duten ikasleen amen % 29 eta aiten % 15 unibertsitateko ikasketak egindakoak dira vs. Laginaren gainerakoaren % 50 eta % 35, hurrenez hurren. Egiaz, LH egitea erabaki duten ikasleen amen % 31k eta aiten % 39k derrigorrezko hezkuntza (OHO eta DBH) soilik dute amaituta, eta laginaren gainerakoan % 17k eta 24k, hurrenez hurren..

LH egiten jarraitzea erabaki duten ikasleak eta industria BEG eskualdeka



Lanbide jarduera erakargarriagoa, sexu eta FP ikasteko erabakiaren arabera



- Beren gurasoen lanbideen ardatzak batez ere industria/eraikuntza dira eta oinarritzko lanbideak dituzte: LH egitea erabaki duten ikasleen gurasoen % 34 industriako eta eraikuntzako langile gaituak dira, makinako langileak edo oinarritzko lanbideak dituzte (laginaren gainerakoaren % 24k). Aitzitik, % 25 zuzendaritzako lanpostuetan dabilta, edo profesional zientifikoak eta teknikoak dira (laginaren gainerakoaren % 35ek).

- Ez daude batezbestekoa **bezain gustura egiten ari diren ikasketekin**, gutxiago baizik (2. blokeko galderak) eta errendimendu akademiko¹ txikiagoa dute: denbora gutxiago eskaintzen diote etxeko lanak egiteari (edo ez dituzte egiten), baina akademietan laguntza jasotzen dutela jakinarazten dute (gainerakoek baino 10 puntu gehiago), eta ikasle errepikatzailen % 20 dira (Lehen Hezkuntzan, DBHn edo Batxilergoan)).
- LHko ikasketei balorazio handiagoa ematen diete.** Hala, baieztapen hauekin adostasun-maila handiagoa adierazi dute ikasleen batez bestekoak baino:
 - Lanbide Heziketan gogoko ditudan ikasketak aurki ditzaket (% 84 ados edo guztiz ados daude vs talde osoaren % 49).
 - Lanbide Heziketak oso berriazko prestakuntza eskaintzen dit (% 67 vs % 49).
 - Nire etxeko ustez, hobe da lanbide heziketa ikastea (% 31 vs. % 10).
 - Lanbide Heziketa baliagarriagoa da gizarterako (% 45 vs. % 21).
 - Lanbide Heziketa zer egin nahi duen argi dakienarentzat da (% 46 vs % 28)
- Aitzitik, ikasleen guztizkoak baino adostasun-maila txikiagoa adierazi dute baieztapen hauekin:
 - Unibertsitateak nire gogoko ikasketak eskaintzen dizkit (% 58 vs. % 85).
 - Nire etxeko ustez, hobe da unibertsitatera joatea (% 34 vs. % 55).
 - Ikastea ona da garapen pertsonalerako (% 60 vs. % 77).
 - Unibertsitateak pentsamendu kritikoa sustatzen du (% 22 vs. % 35)
- Ez dago desberdintasunik faktore aipagarriekin eta lan-munduratzearen zentraltasunarekin lotuta.** Ikasleen talde osoaren garrantzi bera ematen diote 'gustuko dudana ikastea' eta 'ikasi nahi dudana lanbidean ibili ahal izatea' baieztapenei (baina haztapen txikiagoak), bai eta 'soldata ona izatea' eta 'lana aurkitzeko aukera handiagoak izatea' baieztapenei ere (baina azken bi horietan, haztapen handiagoak). Batez besteko puntuazioan 'Lehenbailehen lanpostu bat eskuratzea' eta 'Gogoko dudana kirola edo ariketa fisikoa egitea' baieztapenetan dago alderik handiena (+ 0,8 puntuko aldea LH egitea erabaki duten ikasleen artean).
- LH ikasten jarraitzea erabaki duten gizonezkoentzat **zereginik edo jarduera okupazionalik erakargarriena**, alde handiaz, 'gauzak konpontzea' da (gainerako gizonezkoentzat 'Ikertzea; aztertzea; laborategia; makinaria diseinatzea; zerbitzu mediko-sanitarioak' dira). LH ikasten jarraitzea erabaki duten emakumezkoentzat, berriz, 'nire sormena prak-

tikan jartzea; artelanak edo arte-jarduerak egitea; diseinatzea; dekoratzea eta abar' da jarduerarik erakargarriena (gainerako emakumezkoentzat 'pertsonei zerbitzuak ematea; zainketak, arreta eta gizarte laguntza' da).

- Hauek dira LH egingo duten gizonezkoen **lanbide-familia gogokoan**: (1) Fabrikazio mekanikoa; (2) Arte grafikoak; informatika; irudia eta soinua; eta (3) Elektrizitatea eta elektronika. Eta emakumezkoen lanbide-familia gogoenak, aldiz, (1) Zerbitzu sozio-sanitarioak; soziokulturalak; ostalaritza eta turismoa; irudi pertsonala; (2) Arte grafikoak; informatika; irudia eta soinua; eta (3) Administrazioa eta kudeaketa; merkataritza eta marketina dira.
- Eskualdeen arabera, presentzia erlatibo handiena dute Buruntzaldean, Urola Kostan (% 13tik gorakoa) eta Oarsoaldean (% 10,7); eta txikiena, Debagoienan (% 5,7) eta Donostialdean (% 6,8), **industria gehien duten eskualdeekin loturarik izan gabe**.

Beraz, ondoriozta dezakegu ikasleen ustez lana azkar aurkitzeko hobe dela Lanbide Heziketako prestakuntza-ziklo bat egitea. Hala ere, nolabaiteko dikotomia dago gizarteak eskatzen diena kontuan hartzen dutenekin (esate baterako, komunikabideek, erakundeek, politikariek edo enpresek helarazten dutena); gehiengoaren ustez, Unibertsitateko ikasketekin jarraitzea baita.

Egiaz, % 68,5en ustez, LH bidez lortutako prestakuntza baliagarria da, baina % 62ren aburuz, LHk ez du prestakuntza intelektuala ematen. % 42,2k, berriz, adierazi du LHk oso berriazko prestakuntza ematen du, eta % 47,7ren iritziz, LHren gizarte-aitortza txikia da. Ikasleen gehiengoak funtzio espezifikoak eta instrumentala edo utilitarista esleitzen diote Lanbide Heziketari. Hala ere, LHri buruzko estereotipo hau bizirik dagoela dirudi: LHko ikasketek garapen intelektualeko beharrak ez dituzte asetzen unibertsitateak egiten duen bezala.

Ikasleen % 34k ez daki ea unibertsitateko ikasketen edo Lanbide Heziketako ikasketen bidez lortzen den lehenago enplegua eta ikasleen % 30,5ek ez daki gizarteak zer eskatzen duen eta zer behar duen. Horrek aditzera ematen du zenbateraino beharra dagoen lan-prestakuntza eta -orientazio ekintza eraginkorren bidez esku hartzeko.

Datozen azterlanetarako, komenigarria izango litzateke jakitea ea ikasleek Goi Mailako LHtik Unibertsitatera joateko aukera aztertzen duten; kontuan izanda zalantza handiago dagoela etorkizunean egin beharreko ikasketen inguruan, aztertuko luketen LH bat egiten hastea, tarteko urrats gisa, ondoren Unibertsitateko ikasketak egiteko; ea askorentzat LHk balio 'praktikoagoa' izan dezakeen (eta balio handiagokoa) unibertsitate 'teorikoagoaren' aurrean. Egiaz, AXA Fundazioaren 'Educa20.20: Situación de la educación en España' azterlanaren arabera, LHren irudia hobetzeko, Euskadiko amen eta aiten ustez, lehenik eta behin, gobernuak modu egokian egin beharko luke LHri buruzko publizitatea, bere irudia hobetzeko (% 41); eta bigarren, unibertsitate maila emateko aukera aipatzen dute.

¹ 'El Bachillerato sigue siendo considerado como el billete de entrada a los estudios universitarios. La mayoría de quienes cursan dicho nivel educativo se plantean a su término realizar una carrera, siendo muy reducido el número de alumnos que contemplan otras opciones (Ciclos Formativos de Grado Superior, trabajar), tal y como se ha constatado en investigaciones anteriores (Hernández, 2004; 2006). En estos últimos, se advierte cómo su decisión está asociada a una valoración negativa tanto de su rendimiento académico como de su capacidad para proseguir estudios en la Universidad. Ello pone de manifiesto que la imagen de sí mismo no sólo es relevante en la etapa de Primaria y de La Enseñanza Secundaria Obligatoria, como se ha hecho patente en diferentes estudios (Rodríguez Espinar, 1986; Feliciano, 1990; Oyón y Reyes, 1998; Piñeiro, Valle, González, Rodríguez y Suárez, 1999; Broc, 2000; Moreano, 2005), sino que también es un factor que modula el proceso de toma de decisiones en el Bachillerato'. Santana Vega, L. E. eta Feliciano García, L.: 'Dificultades en el proceso de toma de decisiones académico-profesionales: el reto de repensar la orientación en Bachillerato, in Revista de Educación 350 (2009).




Gizonezkoen eta emakumezkoen artean alde txikiak daude. Planteatutako gai gehienetan antzeko erantzunak ematen dituzte (erantzunak modu brean ordenatzen dira), nahiz eta zenbait gaitan emakumeek enfasi gehiago edo gutxiago jartzen dute gizonezkoen erantzunetan baino (metatzen diren erantzunen pisuagatik edo ehunekoagatik gehiago bereizten dira).

Generoen arteko desberdintasunei dagokienez, gai hauek azpimarra ditzakegu:


- Gizon gehiago daude **'Zientifiko-Teknologiko, Biosanitario' modalitatean eta emakume gehiago 'Gizarte Zientziak' eta 'Giza Zientziak' modalitateetan**. Aldea handiagoa da ikastetxe publikoetan..
- **Teknologia berriekin**, ordenagailuarekin edo smartphoneko aplikazioekin, **harremana izatea erraza izatearen hautematea antzekoa da bi generotan**. Hala ere, ikusten da, oro har, ahalegin handiagoa egitearen nahiz lan akademikoak ahalik eta kalitate handienarekin amaitzearen joera argia dela nesken artean.
- Emakumeek **denbora gehiago eskaintzen diote klasearen ondoren ikasteri edo etxeko lanak egiteari**: neskek egunero denbora gehiagoz ikasten dute mutilek baino (nesken % 22k gutxienez egunean eskolaz aparteko ordu bat eskaintzen dio ikasteari). Eskolaz kanpokoetan, kirola gutxiago egiten dute hizkuntzak, musika/dantza eta abar baino, eta ikasketetan laguntzeko eskoletara ere joaten dira.
- **Gizonezkoek baino batez besteko nota altuagoak dituzte irakasgai guztietan, baina alde txikiena matematiketan dago.**

Batez besteko notak, irakasgaiaren arabera




Irakasgai gustukoena

(erantzunen guztizkoarekiko 'gustukoenaren' %)



Unibertsitatera joatea erabakiko bazenu, egin nahiko zenuke

(erantzunen guztizkoarekiko, 'dezenete gustatuko zitzaizkidan' eta 'asko' erantzunen %)



- **Emakumeak Unibertsitatera joateko erabaki sendoagoa du** (ia ehuneko 14 puntuko aldea dago gizonezkoekiko) eta gutxiagok erabakitzen dute LHra joatea (8 puntuko aldea). **Eta independenteagoak dira erabakia hartzeko garaian¹.**

- **Emakumeak familia-etxetik independizatzeko eta nazioartean ibiltzeko gogo handiagoa du.**

- Aldeak daude **irakasgai gogokoen** arabera (kopuru absolutuetan, denek dute gogokoen 'heziketara fisikoa', baina gizonezkoek gehiago):

- Gizonek erlatiboki nahiago dute informatika (gehiago ikastetxe publikoetan) eta fisika (gehiago ikastetxe pribatuetan).
- Emakumeek erlatiboki nahiago dute biologia, ingelesa, gizarte-zientziak, ekonomia eta filosofia. Ikastetxe pribatuetan emakumeen lehentasun horiek nabarmentzen dira.
- Hala ere, hautemandako erraztasun-zailtasun mailari erreparatuz, neskek adierazten dute matematikaren kasuan erraztasun handiagoa hautematen dutela mutilekin alderatuta, alde esanguratsuaz; eta mutilek, berriz, adierazten dute teknologiaren kasuan zailtasun handiagoa hautematen dutela neskekin alderatuta, alde esanguratsuaz.

- Halaber, **zeregin gogokoenen** arabera, alde txikiak daude, kontuan izanda aukerei eta benetako hautespenari ondoen egokitzen zaizkien gogokoen artean 'ikerketara' dagoe-la, eta 'ekitea' edo 'gizarte-proiektuetan parte hartzea' zereginetikiko lehentasun-maila baxua dela.

- Emakumeek nahiago dute gizonezkoek baino: "Pertsona zerbitzuak ematea", "nire sormena praktikan jartzea" eta "Irakastea, hezteak".
- Eta gizonek nahiago dute "Gauzak konpontzea; fabrikatzea, egitea"

- Hauek dira **gaitasunetan** dauden alderik handienak, beraiek beren burua deskribatzen duten bezala:

- Emakumea hauetan nabarmentzen da: 'Ahalik eta kalitate handieneko lanak egiten saiatzen naiz', 'Ahalik eta gehien saiatzen naiz beti egiten ditudan lanetan', 'Insti-

¹ Emakunderen 'Berdintasunaren balioak duen eragina Euskadiko batxilergoko 2. urteko ikasleek goi-mailako ikasketak hautatzerakoan' (36. txostena; 2016) azterlanean ondorioztatzen dena ez bezala, hau adierazten baitu: 'Edonola ere, eta iritzi hori nola eraiki den ezagutzeko beharrezkoak diren adierazleak eskura ez ditugun arren, ondoriozta daiteke, Euskadiko Batxilergoko 2. urteko mutilen artean behintzat, norberaren iritzien eragina garrantzi handiagoko faktorea dela ikasgelako eta belaunaldi kide dituzten neskekin alderatuta, azken horiek adierazten baitute eragin handiagoa dutela haiengan familiakoen iritziek (8,4), eta parekoen taldearenak (7,0). Itxuraz, belaunaldi honetako mutilek autonomia handiagoren irudia transmititzen dute beren erabakiak kudeatzeko orduan, eta, agian, kasu gutxiago egiten diote beste pertsona batzuen iritzari, belaunaldi bereko kide dituzten nesken kasuan baino.'

tutuan langilea naizela uste dut', 'Behar den denboraz ikasten dut' eta 'Nota onak ateratzen ditut (ia) irakasgai gehienetan'.

- Gizona gehiago nabarmentzen da beste gai batzuetan, hala nola 'Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek ondo moldatzen naiz (Internet, Office...) eta 'Aplika-zio informatikoetara ongi egokitzen naiz' edo 'Ordenagailuarekin ondo lan egiten dut (normalean)' eta 'Erosoago sentitzen naiz taldean lan egitean'.
- Hala, neska eta mutilen artean hautematen diren alde nagusiek aditzera ematen dute **neskek gutxiago lehenesten dituztela (eta gaitasunaren autopertzepzio oke-rragoa dutela) teknologiarekin, informatikarekin eta ingeniartzarekin lotutako irakasgaiak/zereginak** eta beren gaitasunetan **konfiantza txikiagoa dutela** esparru horrekin, eta batez ere ingeniartzarekin lotutako ikasketak egiteko, nahiz eta emaitza hobeak izan espediente akademikoetan. Esanguratsua da matematikako eta kimikako unibertsitateko graduen sexuen arabera banaketa berdintasunezkoa izatea, baina fisi-kan eta ingeniartzetan emakumeen presentzia % 25ekoa izatea

Badirudi horrek erakusten duela neskek STEM irakasgaietarako eta ibilbideetarako ikasketa eta aukera potentziala dutela, baina beren lehenetasunak/autopertzepzioak beste joera bat duela. Agian, oraindik aktibo dauden estereotipo psikosozialek STEM aukerekin bat datozen aukerak hautatzeko asmoa kentzen diete neskei. Horregatik, besteak beste, badirudi beharrezkoa dela **berariazko orientazio-lan bat (generoaren arabera orientazioa) egi-tea, neskek eta mutilek bere burua ulertzeko moduen arteko desberdintasunetan zuzenean eragiteko**.

Emakumeen profil profesional gogokoenaren joera 'arloan sozialera' eta 'pertsonei zerbitzuak ematera' bideratuta dago batez ere. Horrek pentsarazten digu karrera profesional teknikoetara orientatzeko ahaleginak eraginkorrak izateko, **are gehiago nabarmendu behar direla ezaugarri horiek (soziala, pertsonen lotutakoa, lankidetzakoa)**, profil horietan ere badaudelako, nahiz eta segur aski horrenbeste ez azpimarratu.

- Emakumeentzat garrantzitsuagoa da gizonezkoentzat baino (nahiz eta gizonezkoentzat garrantzi handienekoa izan) 'Lan interesgarri bat eta gizartean garrantzitsua izatea', 'Nire lanak nazioartean mugitzeko aukera ematea', 'Komunitatearekin lankidetzan lan egiteko aukera izatea', 'Antolaketa ingurumenaz kezkatzea', 'Gauza berriak ikasteko aukera emango didan lan bat izatea'. Oro har, emakumeak izaera kolaboratiboagoa eta soziala-go du lehiakorra baino².

² Capillak eta Caserok ['Análisis de las diferencias de género en la elección de estudios universitarios'](#) (Estudios de Educación, 2012) lanean hau adierazten dute: 'la elección de los estudios no es neutra, se dan una serie de estereotipos que dirigen a las chicas hacia unos estudios y a los chicos hacia otros (elecciones que se realizan en Bachillerato, como hemos visto reflejado en los datos aquí presentados) y que tienen una influencia determinante en la elección futura de carrera profesional (Aguinaga, 2004). Así, las chicas se dirigen de forma mayoritaria

- Emakumea gizona baino bideratuagoa dago unibertsitateko ikasketetara**, eta hala, 'Unibertsitateak nire gogoko ikasketak eskaintzen dizkit' eta 'Ikastea ona da garapen pertsonalerako' aukerak gehiago haztatzen dira. Eta emakumearentzat are funtsezkoagoa da 'Gogoko dudana ikastea' eta gehiago haztatzen dute 'Gizarteari laguntzea; besteei laguntzea' eta 'Nire familia-etxetik joan eta nire bizitza egitea' aukerek.
- Zenbait azterlanetan, **lehiakortasun handiagoko testuinguruetan emakumeak beste erantzun bat** ematen duela identifikatu da. Hala, 'Competitive pressure widens the gender gap in performance: Evidence from a two-stage competition in mathematics'³ azterlanean adierazten da zenbait faktorek eragina dutela emakumeek lehiatzeko garaian desabantaila izatean, hala nola genero-estereotipoek, zer zeregin motatan lehiatzen duten, beren aurkariak nor diren eta zeregin horretan izandako errendimenduari buruzko informazioak. Halaber, talde bati buruzko estereotipo ezkor bat izate hutsaren ondorioz, talde horretako banakoak aztertuak sentitzen dira eta azterketa horrek presioa eragiten die. Horren ondorioz, okerrago moldatzen dira, estereotipoa berretsiz.

Hala, egileen esanetan, 'estereotipoek eragina dute edozein pertsonaren erabakietan eta errendimenduan. Beraz, garrantzitsua da sozialki eragin hori murriztea. Komenigarria da emakumezkoen eta gizonezkoen zereginen sailkapena baztertzeari, bai eta gizonezkoen kutsua duten diziplinei (esate baterako, zientziak eta ingeniartzak) eta emakumezkoen kutsua duten diziplinei (esaterako, letrak oro har, eta zientzia-karrerak, besteak beste, erizaintza) buruz hitz egitea saihestea ere. Aurrerapauso handiak eman dira alor horretan, baina oraindik egitekoa dago, historikoki gizonezkoen esparruak izan direnetan emakumeen ikusgarritasuna handitzeko. Role model (jarraitu beharreko eredua) delakoaren garrantziari buruzko azterlanak oso kontuan hartzen badira, historian gizonezkoenak izan diren esparruetan lan egin eta nabarmentzen diren emakumei ikusgarritasuna ematea garrantzitsua izango da lotura eta estereotipo horiek aldatzeko.

hacia carreras tipificadas tradicionalmente como femeninas y con menor prestigio social (a través de opciones como el Bachillerato de Humanidades y Ciencias Sociales) y los chicos en mayor medida hacia carreras tipificadas tradicionalmente como masculinas y con más prestigio social (a través de opciones como el Bachillerato de Tecnología) evidenciando la existencia de una segregación horizontal en función del sexo que a medio y a largo plazo también va a suponer diferencias entre ellos y ellas en cuanto a las oportunidades de empleo (Alberdi et al., 2000; Barberá, Candela y Ramos, 2008; Porto, 2009).'

Eta honela jarraitzen dute: 'En esta misma línea Grañeras (2003) repasa una extensa lista de posibilidades y nos recuerda que ni variables de tipo sociológico (como el nivel educativo de padres y madres o la clase social), psicológico, ni de rendimiento explican que chicos y chicas se decidan por estudios diferentes y que es, concretamente, la socialización diferencial la variable que nos ayuda a comprender la elección. Es decir, el proceso socializador que parte de ciertas ideas preconcebidas sobre las características de cada sexo y de unos intereses previos respecto a la importancia que hay que otorgarle a cada uno, así se socializa de una manera determinada (prácticamente opuesta la una a la otra) a varones y mujeres, lo cual implicará una serie de consecuencias que tenderán a confirmar los supuestos previos sobre las características e importancia de cada sexo (Poal, 1993).'

³ Nagore Iriberrí eta Pedro Rey Biel, The Economic Journal (2018). Egingako esperimenteren laburpen bat dago [hemen](#)




Ikastetxe publikoen eta ikastetxe pribatuen/itunpekoen artean izan daitezkeen desberdintasunei dagokienez, **ez dago desadostasun handirik** bi ikastetxe mota horietako ikasleen iritzien, erabakien edo jokabideen artean, generotik, ekonomia-egoeratik edo norberaren trebetasunetik datozenetatik haratago.

Hasteko, adierazi behar da, hasiera batean, **ez direla desberdintasun handiak haute-man bi kolektiboen faktore sozioekonomikoetan:**


- **Ikasketa-mailari eta gurasoen enpleguari** dagokienez, antzeko banaketa dute (zentro publikoetan unibertsitateko ikasketen maila txikiagorantz alborapen arina dago, 6 puntukoa amen kasuan eta 9 puntukoa aiten kasuan, eta beste mailetan alderantzikatu egiten da; lanbide gaituenen proportzioa ere pixka bat baxuagoa da).
- Halaber, **etxeko horniduren antzeko banaketak dituzte** (liburuak, norberaren logela, komunak, autoa, smartphoneak, Internet/wifi konexioa, ordenagailuak...). Desberdintasun handienak maila baxuenetan (ikastetxe publikoetako ikasleen % 15 eta pribatuetakoen % 12) eta maila altuenean (ikastetxe publikoetako ikasleen % 7 eta pribatuetakoen % 13) daude batez ere. Ikasleen % 75ek oso antzeko hornidurak ditu.

Ikastetxe publikoetako ikasle gehiago ari dira egiten **Zientifiko-Teknologiko/Biosanitarioa modalitateko batxilergoa** ikastetxe pribatuetakoak baino (% 58,5 vs % 52,1), eta bi ikastetxetan ikasle gehiagoak ikasten du modalitate hori. Aurkakoa gertatzen da Gizarte Zientzien modalitatearekin (pribatuetako ikasleen % 35,8 vs. publikoetakoen % 26,8).


Ikasleen banaketa, etxearen horniduraren arabera (%)




Amaren enplegua, ikaslearen ikastetxearen arabera




Aitaren enplegua, ikaslearen ikastetxearen arabera



Egindako azterketetan konfiantza



Nota media según sexo y tipo de centro



Ikastetxe publikoetako **batez besteko nota** pribatuetakoa baino pixka bat hobea da, funtsean, gizonezkoek ikastetxe publikoetan nota hobek ateratzen dituztelako pribatuetan baino.

Ohiturekin eta jokabideekin (2. blokea) lotuta, ikastetxe publikoetako eta pribatuetako ikasleek **antzeko denbora eskaintzen diete etxeko lanei eta eskolaz kanpoko jarduerari** (zentzu horretan, aldeak, funtsean, sexuaren arabera izaten dira), eta ikasturteak errepikatzeak antzeko mailak dituzte.

Halaber, **jarduera okupazionalen inguruko antzeko lehentasunak dituzte** (4. blokea), eta hauek nagusitzen dira ordena honetan bi kasuetan: 'Ikertzea; aztertzea; laborategiko lanak; teknologia programatzea', 'Pertsonen zerbitzuak eta gizarte-laguntza ematea' eta 'Beste pertsona batzuei irakastea, hezteak, orientatzea eta prestatzea'. Ikastetxe publikoetan horri gehitu behar zaio 'Nire sormena praktikan jartzea; arte-jarduerak'. Jarduera horiek guztiak dira erakargarrienak, ikasleen gaitasunekin eta benetako aukerekin gehien bat datozenak¹.

Eta gaitasunen blokeari (4. blokea) behatuz, hau da hauteman den desberdintasun handiena: ikastetxe publikoetako ikasleek 'lidergo-gaitasun' txikiagoa dute (ikastetxe pribatuetan 10etik 7 puntu ematen dituzte vs. 6,6 puntu ikastetxe publikoetan) eta 'matematikarako gaitasun' pixka bat txikiagoa (ikastetxe pribatuak lau galdera erlatiboetan 2 hamarren gehiagoko balioa ematen diete publikoek baino): 'Matematikaren nota ona ateratzen dut', 'Matematikako klasean lan egitea erraza egiten zait', 'Matematikako ariketak ulertu ohi ditut' eta 'Matematikako ariketak beharrezkoa denean errepikatzen ditut').


Beste horrenbeste esan daiteke **lan-munduarekin lotutako interes profesionalen** blokean (6. blokea). Bi kasuetan, lehentasuna dute, oso alde txikiarekin, 'Nire gustuko lan bat izatea', 'Segurtasuna eta egonkortasuna enpleguan', 'Lan-giro ona', 'Gauza berriak ikastea' aukera emango didan lan bat izatea' eta 'Soldata'. Alde handienak item hauetan daude: ikastetxe publikoetan pisu handiagoa esleitzen zaio 'Erakundea ingurumenaz kezkatu' baieztapenari (ikastetxe publikoetan 10etik 8,3 puntu ematen dizkiote vs ikastetxe pribatuetan 7,7 puntu) eta neurri txikiagoan 'Enpresa nire etxetik gertu egotea', 'Lan egingo dudana enpresak sormena sustatzea' eta 'Enpresa sektore publikoa izatea' itemek.

Eta antzeko zerbait gertatzen da **etorkizuneko ikasketen hautaketarekin lotutako interes profesionalen** buruzko 7. blokean. Ikastetxe pribatuak nahiz publikoek lehentasuna ematen diete 'Ikasketak nire gustukoak izatea', 'Ikasketak beharrezkoak izatea nire intereskoa den enplegurako', 'Ikasketei esker, enplegua erraz bilatzea' eta 'Nire familiak ikasketak ordaindu ahal izatea' itemei. Alde handiena izan duen itema 'Ikasketak egingo ditudan zentroa prestigiozkoa izatea'. Ikastetxe pribatuak 10etik 5,6 punturekin baloratu dute vs.

ikastetxe publikoek 5,3 punturekin.


Ikastetxe publikoetako eta pribatuetako ikasleen arteko desberdintasun batzuk azpimarratzearen, izatekotan oso handiak ez direnak, adieraz dezakegu ikastetxe publikoetako ikasleek konfiantza txikiagoa dutela etorkizuneko lanari buruz, eta enplegu-bilaketari buruzko hautemate okerragoa dutela oro har (ikastetxe pribatuetako ikasleen % 72k adierazi du 'ikastea lagungarria da lan on bat aurkitzeko' vs. Ikastetxe publikoen % 67k; eta ikastetxe pribatuetako ikasleen % 68k adierazi du "ikastea lagungarria da pertsona gisa errealizatzeko" vs % ikastetxe publikoen % 61ek). Hala, lan-munduratzearrekin lotuta ikasketen garrantziari buruzko 13. blokean ere, **ikastetxe publikoetako ikasleek garrantzi handiagoa ematen diete ikasketei, baldin eta aukera ematen badute 'lana aurkitzeko aukera handiagoak'** (10etik 7,2 puntu ematen dizkiote vs. ikastetxe pribatuetan 6,8 puntu), 'Lanpostu bat lehenbailehen eskuratzeko' eta 'Soldata on bat' izateko.

Lanaren ondoren ikasketak / etxeko lanak dedikatzea




¹ Hautu errearen azken kasu horretan, ikastetxe publikoetan ere ageri da 'Ekitea edo nik neuk nire jarduera edo enpresa sortzea' itema.

Eskolaz kanpoko jarduerari dedikazioa



Ikasketekin jarraitzeko helburua eta erabakia (%)



Etorkizuneko azterketen informazio iturriak (10 puntuko batez besteko puntuazioa)



KASTETXE PUBLIKOEN ETA PRIBATUEN ARTEKO DESBERDINTASUNAK

Ikastetxe publikoetako ikasleek modu biziagoan pentsatzen dute **LH baliagarriagoa dela lana azkarrago bilatzeko** (162. galdera; 6 puntuko aldea dago ikastetxe pribatuekin) Unibertsitatea baino, nahiz eta bi kasuetan interpretatzen duten gizarteak unibertsitateko ikasketekin jarraitzea gehiago eskatzen duela. Aitzitik, ikastetxe pribatuetako ikasleek adostasun handiagoa agertu zuten beste item batzuekin, besteak beste: 'Unibertsitateak pentsamendu kritikoa sustatzen du'. 'Nire etxekoan ustez, hobe da unibertsitatera joatea', 'Ikasle on batek unibertsitatean ikasi beharko luke' eta 'Lanbide Heziketa unibertsitatera sartu ez direnentzat da'.

Eta bi taldeen arteko alde handiena zer ikasketa egin behar diren erabakitzean **informazio-iturriekin eta eragile garrantzitsuekin** lotutako itemean dago. Hauxe hautematen da:

- **Ikastetxe pribatuetako ikasleek orientazio handiagoa jasotzen dute irakasleengandik eta tutoreengandik**, nahiz eta balorazioa erlatiboki baxua izan, eta aitaren (amaren nagusitasunaren azpitik badago ere oraindik) eta anai-arreben esku-hartzea handiagoa da. Aitzitik, ikastetxe publikoetako ikasleek adierazten dute unibertsitateko jardunaldi irekietan parte hartu dutela, ikastetxe pribatuetakoek baino gehiago.
- Badirudi ikastetxe publikoetako ikasleek **independentzia gutxiago dutela etorkizuneko ikasketei buruz erabakitzeke**: ikastetxe pribatuetako ikasleen % 60,5ek adierazi du ez duela 'presiorik' jaso erabaki bat hartzeko, eta zentro publikoetako % 51,9k. Azken horiek gurasoen (batez ere amen) presio handiagoa izan dutela adierazi dute, baina baita irakasleena eta orientatzaileena ere.


Hala ere, ikastetxe publikoetako ikasleek adierazi dute beren etorkizuneko ikasketei buruz '**erabakian pisu**' handiena 'beren irizpideari' jarraitzea izan dela (ikastetxe pribatuetan 10etik 7 puntu eman diote vs. ikastetxe publikoetan 8,1). Eta ikastetxe pribatuetan jasotzen den orientazio handiagoarekin bat, ikasleek balorazio handiagoa eman diote irakasleek, tutoreek eta orientatzaileek emandako informazioak beren erabakian izandako eraginean.

Harrigarria bada ere, ikastetxe parte-hartzaileek egindako Inkestan (II. eranskina) hau jakinarazi dute:

- Jarduera asko antolatzen dituzte ikasleei laguntzeko, eta behar adina baliabide dituzte laguntza hori emateko (% 83),
- Ikastetxeek urtero sistematizatzen dituzte orientazio-jarduerak, batez ere, ikasgelan eta zentroan, eta prestakuntza-ikastetxeetara bisitak ere egiten dituzte. Neurri txikiagoan, enpresetara ere egiten dituzte bisitak edo zuzenean harremanetan jartzen dira lanean dabiltzan profesionalekin edo lanean dabiltzan ikasle-ohiekin.

- ta ikastetxeak **INFORMAZIOA EGOKIA** duela ikasleei etorkizuneko ikasketei buruzko erabakiak hartzeko prozesuan laguntzeko (%89) eta **BESTE EKINTZA BATZUK ANTOLATZEKO** asmoa dutela ikasleei etorkizuneko ikasketei buruzko erabakiak hartzeko prozesuan laguntzeko (% 72).

Zer bideren bidez lortzen da enplegua azkarren eta zer eskatzen du gizarteak






Batxilergoko lehen eta bigarren mailako ikasleei inkesta egiteko fasean lortutako emaitza nagusiak, ikasleekin, orientatzaileekin eta gurasoekin garatutako focus groups delakoak aintzat izanda, hamar puntu hauetan laburbil ditzakegu:

1.

Batxilergoko lehen eta bigarren mailako ikasleek oraindik **zehaztugabetasun-maila** handia dute: % 23k ez du ezer erabaki egin beharreko ikasketei buruz eta % 30,8k ez du gutxieneko notaren berri.

Batxilergoko ikasleen % 83,5en helburua unibertsitateko ikasketak amaitzea den arren, eta gutxiengo batek (% 10) aztertu duen arren prestakuntza-zikloak egitea, oraindik zalantza-maila¹ handia dago egin beharreko ikasketen inguruan: % 68k adierazi dute unibertsitateko ikasketekin jarraitzeko erabakia hartu dutela, eta % 9k ziklo profesionalak egitekoa; baina ikasleen % 34,3k ez dakite enplegua lehenago lortzen den unibertsitateko ikasketen bidez edo lanbide heziketako ikasketen bidez. Horrez gain, ikasleen % 30,5ek ez dakite zer eskatzen duen edo zer behar duen gizarteak.

Dagoeneko erabaki dut batxilergoaren amaieran nire ikasketarekin jarraituko dudala



Lanbide heziketa ez dago gehiengoaren berehalako itxaropenen artean.

Azpimarragarria dira, esaterako, ikasleen % 54k ez dakitela LH baliagarriagoa dela gizartearentzat, ikasleen % 42,7k ez dakitela LH batez ere industriara bideratuta dagoen, % 41,7k ez dakitela LHk garapen pertsonalerako aukera gutxiago eskaintzen dituen unibertsitatea baino (nahiz eta % 44,6ren ustez, LHk garapen pertsonalerako aukera gutxiago eskaini unibertsitateak baino), eta % 54,2k ez dakite unibertsitateak pentsamendu kritikoa sustatzen duen.

Alderdi horiek agerian uzten dute eta planteatzen dute zenbaterainoko **beharra dagoen lan-prestakuntzako eta -orientazioko ekintza eraginkorren bidez esku hartzekoa.**

¹ 'Horregatik, goi-mailako hurrengo prestakuntza-ibilbidearen erabakia hartu behar den momentuan hartuta dago (otsai-la-martxo), eta, eskuarki, oso mugatuta dagoen jakintza-arlo batera orientatzen da. Diferentzien arrazoiak gehiago dira "norberaren zalantzak" edota "gustatuko litzaiekeena zehaztu gabe edukitzea" justu aukeratu behar zuten goi-mailako ibilbideari buruzko galdera egin zieten "unean", eta ez "kanpoko" beste faktore batzuk -lan mundukoak, familiakoak, ...- tartean sartu eta erantzuna aldarazi zutelako.' (...) 'Aukera egiaz mugatzen duen "kanpoko oztopo" bakarra "batez besteko/mugako nota" da, 0,5eko aldearekin, zeina "gustatzen zaidalako/bokazioz" erantzuneko -0,4 diferentziatik kentzen baita. Titulazio bat asko gustatuagatik edo bokazio handia izanagatik, kanpoko ezarpen batzuetara egokitu beharra dago, kasu honetan, neurri administratibo-akademiko batera'. Emakunde (2016).

2.

Interes profesionalekin lotutako motibazio nagusia da **egin beharreko ikasketak ikaslearen gustukoak izatea**. Alderdi hori erabakigarria da erabakiak hartzeko garaian.

Horrez gainera, **ikasketak egin beharko duten lanerako baliagarriak** direla balioesten dute eta lana lortzen lagunduko dietela. Beraz, etorkizunean zer ikasketa egin nahi dituzten erabakitzeko garaian, enpleguaren faktorea ere aintzat hartzen dute, **nahiz eta ez duen berehalako garrantzirik**.

Gehientzat, oraingo, lana ez da gertuko zerbit, baina etorkizunean izan dezaketen lanak ikasleen % 65 kezkatzen ditu, eta antzeko ehuneko bat kezkatzen du ikasketak amaitzean lana izateak. Ehuneko handi batek dioenez, **badakite zer ikasketa bat etorriko liratekeen ondoen beren ezaugarri pertsonalekin**. Ikasleek beren buruari hautemandako ahalmena (gaitasuna+esfortzua) funtsezkoa da aukeraketetan.

Adierazgarria da beren ezaugarri pertsonalekin bat datozen zenbait ikasketa eginez lana lortzeko asmoa dutela, nahiz eta lana berehalakotzat edo gertukotzat ez hartu, eta ikasle bakoitzak lan-errealitatea aztertzeko eta haren inguruko jarrera hartzeko lan aktiboa egin. Beraz, oso kontuan dute lan-errealitatea eta errealitate horrekin bat egiteko elementuak aztertzen ditu, lanpostu baten inguruko alderdirik garrantzitsuenak haztatuz.

Horren ondorioz, erabakiak hartzean lan-munduratzearen faktoreak ere garrantzi handia du, ez soilik nork bere bokazio-beharrak asetzeak. Ikasleen prestakuntza oso bat eskainiko dien **prestakuntza-ibilbide bat** nahi dute, baina etorkizunean zer lan egingo duten argi jakin gabe. Ez dakite zer irteera izango duen ibilbide horrek, nahiz eta ez-jakintasun horrek kezkatzen dituen.

Etorkizunean zer prestakuntza aukera hartuko duten erabakitzeko garaian, ikasleen ikuspuntutik balorazio handiena **bokaziozko lan bat (gustukoa) izatearekin** lotutako lanpostuen alderdiek jaso duten arren, enpleguan segurtasuna eta egonkortasuna izateak eta lan-giroak ere balorazio ona jaso dute, eta garrantziari dagokionez, atzetik dituzte lanean aberastearekin, gizarte- eta ekonomia-ezaugarriekin eta laneko gizarte-estatusarekin lotutako alderdiak.

Hala, erabakia hartzeko garaian ikasketa batzuk edo besteak nagusitzen dira zenbait faktore direla eta. Faktore horien artean elkar gurutzatzen dira **bokazioarekin lotutako** gaiak ('gogoko dudana ikastea' nork bere buruari hautemandako ezaugarriak, oinarritzko trebetasunak eta errendimendua oinarri hartuta' **eta enpleguarekin eta lan-munduratzearrekin lotutakoak** (ikasi nahi duten lanbidea egin eta soldata/lan-baldintza ona izateko zentzu bikoitzean). Egiaz, bloke honetan egindako azterketa faktoriala Karrera profesionalaren, Nork bere burua aberastearen, Mugikortasuna/Bateratzearen eta Gizarte-

erantzukizunaren aldagaien inguruan bilduko litzateke.

3.

Dirudienez, **familiak babesa emateko aukera ekonomikoek** ere baldintzatzen dute egin beharreko ikasketen inguruko motibazioa. Eta horrez gainera, ikasleen erdiak garrantzitsutzat edo guztiz garrantzitsutzat jotzen du **ikasketak esfortzu handia ez izatea**.

Bi alderdi horiek etorkizunean egin beharreko ikasketei buruzko azken erabakia modula dezakete, baina, edonola ere, gehien asetzen dituen ikasketaren aldeko erabakia hartuko dute beti, baldin eta familiak ekonomikoki aurre egin badiezaioke eta egin beharrezko ahalegina egingarritzat jotzen badute.

4.

Ikasleek barneratuta dute errealitatearen ikuspuntu kritikoa nahiz ahaleginaren eta emaitzen garrantzia. Gauzak zalantzan jartzeko eta kritikak egiteko gai jotzen dute beren burua, eta irtenbideak bilatzeko garaian proaktiboak direla uste dute. Ikasketetan ahalegin handia egiten dutela irizten dute eta gauzak ahalik eta kalitate handienaz egiten saiatzen direla. Nork bere buruari buruz duen iritzia konstruktua ondoen azaltzen dute ahalegina, gaitasun teknologikoa eta matematikarako gaitasuna aldagaiek.

Hala ere, beharrezkoa da autopertzepzioaren emaitzak **zehaztea**. Erreparatu dugu, segur aski eta informatutako erantzunei arreta jarritz, **ahalegin handiagoa egingo balute, emaitza hobeak lortuko lituzketela**. Beraz, ahalegin handiagoa egiten bada, oro har, emaitzak hobetzeko, eta batez ere, zenbait irakasgaitan, hala nola matematikan, nork bere buruari buruz duen iritzia hobetzen lagun daiteke.

5.

Kontuan izan behar da belaunaldi horiek **IKTak erabiltzen ohituta daudela**, eta horrek norberaren gaitasunaren pertzepzioa areagotzen du ikaskuntzak eskuratzeko garaian. Ezaugarri horrek, IKTek gizartean duten garapenak eta ezarpen-mailak bultzatuta, belaunaldi horien IKT bidez ikasteko autonomia sendotu dezake, bai eta berdinkideekiko interakzioak ere.

Eta ez ikaskuntzarekin lotuta soilik, baizik eta orientazio akademikoari/profesionalari buruzko informazioa helarazteko kanal gisa ere.

6.

Bokazioaren adierazpen hutsetik errealitatera egokitzeko bide hori egin ahala, Gipuzkoako ikasleen aukerak, batez ere, **jarduera okupazionalen** ingurukoak dira (tartean daude laborategiko lanak; makinaria, ibilgailuak edo teknologia diseinatzea eta fabrikatzea; eta zerbitzu mediku-sanitarioak ematea) eta ondoren, 'pertsonei zerbitzuak, zainketak eta gizarte-babesa ematea' eta 'beste pertsona batzuei irakastea, hezte, orientatzea eta prestatzea'.

Kasu guztietan, printzipioz, prestakuntza-ibilbideak daude unibertsitatean nahiz Lanbide Heziketan. Hala ere, Lanbide Heziketarekin lotu izan ohi diren irakasgaiak (besteak beste, Teknologia, Industria Teknologia eta Marrazketa Teknikoa) ez datoz bat ikasleen lehentasun okupazionalekin, ez zaizkie erakargarriak iruditzen.

Hala, **unibertsitateko ikasketei** dagokienez, berariazko posizionamenduarekin lotuta, ez da harritzekoa lehentasun nagusiak gizarte-zientzien eta zientzia juridikoen, osasunaren zientzien, hezkuntzaren zientzien, eta laugarrenik, ikasketa teknikoan eta zientzien ezagutza-esparruetan izatea. Era berean, ikasleen iritziz, beren gaitasunekin ondoen bat egiten dutenak dira. Hala ere, oro har, irizten da lanik onenak batez ere ikasketa teknikoetan eta zientzietan ematen direla, bai eta osasunaren zientzietan ere. Esparru horiek, ordea, ez dira ikasleen lehentasun nagusiak, eta era berean, ez daude ikaslearen eta ikasketen arteko bateratze horretan kontuan hartzen lehenak.

Eta Lanbide Heziketako ikasketei dagokienez, berariazko posizionamenduarekin lotuta, gairik gogokoena 'Zerbitzu sozio-sanitarioak, ostalaritza, kultura' dira; eta atzetik dute 'Administrazioa, kudeaketa, marketina, kalitatea'; hirugarrenik, 'Arte grafikoak, informatika, irudia eta soinua'; eta laugarrenik, 'Fabrikazio mekanikoa, automatismoak, robotika'. Halaber, ikasleen ustez, beren gaitasunekin ondoen bat etortzen direnak dira. Eta lan on bat zer ikasketen bidez lor daitekeen kontuan hartzean, horiexek azpimarratzen dira (Arte grafikoak, informatika eta irudia izan ezik).

7.

Ikasleen interes profesionaletan eragileen eta informazio-iturrien eragin-faktoreen artean, sei alderdik dute trinkotasun handiena: gurasoek, ekimena/kezka/proaktibitatea, ikastetxea, lagunak, zuzeneko lekukotzak eta xede-ikastetxea.

Ikasleen gehiengo handi batek **trinkotasunez aintzat hartzen dute informazio egokia eta zehatza izatea beren irteera akademikoari buruz**, eta egiaztatzen dute informazioa eta orientazioa jasotzeko beharra dutela etengabe.

Azpimarragarria da egungo zikloa amaitzean zer prestakuntza egingo duten erabakitzeko ia

presiorik ez dutela (emakumeen % 62k eta gizonen % 54k adierazi dute ez dutela presiorik izan erabakia hartzeko) eta era askotako eragileek **eragin txikia** dutela etorkizuneko prestakuntzaren erabakian (lautik batek adierazi du beren irizpidearen arabera jokatu dutela, eta amaren eta aitaren eraginak % 15 ingurukoa da oraindik bakoitzarentzat

Bigarrenik, badirudi ikasketei eta irteera profesionalei buruzko amaren aholkuak duela indar handiena (aitarenarekin alderatuta, pixka bat txikiagoa baita).

Oro har, gurasoen prestakuntza-mailak eragin dezakeen erakarpina txikia da. Eta ikasteko familiaren etxetik urrutira lekualdatu behar izatearekin, lagunuen aukera akademikoarekin, ikasketen iraupen laburrekin edo ikastetxearen edo egin beharreko ikasketen prestigioarekin lotutako alderdiek garrantzi erlatibo oso txikia dute.

Eta ehunekoak txikiak badira ere, badirudi tutoreek eta irakasleek presio handiagoa egiten dutela orientatzaileek baino. Hala, orientatzaileen taldeak espero zitekeena baino errendimendu baxuagoa du, beren zeregina kontuan izanda (ikasleen % 17,4 baino ez du adierazi orientatzaileen eragina). Horren ondorioz, 11 eragin-eragileen rankinean 8. postuan daude.

8.

Egindako analisiak adierazten du **gizarteak prestakuntza-karrera bat edo bestea egitea erabakitzeko garaian eragin nabarmena duela**, familiak (nahiz eta eragina izan), lagunak, irakasleek edo orientatzaileek izan dezaketena baino handiagoa.

Ikasleek **dauden kanaletan ez dauden orientazio akademiko eta profesional mota jakin bat bilatzen dute**, edo egun dutena ez dute egokitzen jotzen.

Ez daude **pozik egun duten informazioarekin**¹, ia denek (% 87) 'ahalik eta informazio egokia eta zehatza izan nahiko bailukete egin dezaketena ikasketei buruz' (ia % 11k

¹ 'Las respuestas del alumnado evidencian una valoración negativa del desarrollo de la tutoría: no ayuda a identificar la relación entre las características personales y las de las profesiones, no aclara dudas sobre el futuro académico y laboral o no trata temas de interés. Este dato muestra claramente la disfuncionalidad entre las demandas del alumnado y la programación elaborada por el Departamento de Orientación para la clase de tutoría. En concreto, para los alumnos la tutoría ha de ser una hora para resolver problemas y dudas vitales, sondear sus carencias de información y analizar la información necesaria para el futuro académico y laboral.

El alumnado requiere una tutoría práctica que atienda a sus necesidades. De hecho, estima que son necesarias para una adecuada toma de decisiones, denunciando el uso indebido de las mismas cuando son utilizadas como clases de recuperación de materias, horas de estudio, etc. En su opinión, la clase de tutoría ha de estar destinada a la atención de los alumnos para que puedan clarificar su proyecto personal de vida y configurar sus opciones académicas y profesionales. Con este fin, no sólo se solicita que la información objeto de análisis en la tutoría provenga de fuentes directas (profesionales) o de las nuevas tecnologías de la información, sino también que se concilie el punto de vista del profesorado y del alumnado en cuanto a los contenidos de la tutoría. De ello se desprende la necesidad de analizar las necesidades del alumnado antes de proceder a programar la acción tutorial, lo que implica generar una cultura de colaboración entre los alumnos y el profesor tutor.' Santana eta García: "Dificultades en el proceso de toma de decisiones académico-profesionales: el reto de repensar la orientación en Bachillerato", in Revista de Educación 350 (2009).

soilik esaten du 'ez duela ez orientaziorik ez informaziorik behar') eta profesionalek eta enpresek irteera profesionali buruzko informazioa zuzenean ematea balioesten dute, lanpostuak ikusiz edo unibertsitateko eta Lanbide Heziketako irakasleengandik informazioa zuzenean jasoz

Eta erabakiak hartzeko bi elementu horien gabezia dela eta, ikasleen ia % 60 **informazioa bere kabuz bilatzen hasten da Interneten**.

Bestalde, **eskainitako informazioa kalitatekoa izatea funtsezkoa da, bai eta informazioa ematen duen eragilearen sinesgarritasuna ere**.

9.
LHko prestakuntza-ziklo batean jarraitu ordez Unibertsitateko ikasketen lehentasuna izatea indar handiagoz babesten duten eragin-elementuen artean daude: etxekoen ustez, hobe da unibertsitatera joatea (% 53,4) itema eta unibertsitatearen gizarte-aitortza altua izatea (% 51,6).

Elementu batek **familia**-ainguratzea du eta besteak, berriz, **soziala**. Hala ere, agian, unibertsitateko ikasketei buruzko gizarte-pentsamendua edo -ordezkaritza elikatzen dute. Eta hori horrela da, % 42,6k unibertsitateko ikasketak teorikoegiak direla pentsatu arren, edo nahiz eta % 59,7ren ustez, ikasle on batek ez duen derrigorrez unibertsitatera joan behar.

Egiaz, % 68,5en ustez, LH bidez lortutako prestakuntza baliagarria da, baina % 62ren aburuz, LHk ez du prestakuntza intelektuala ematen. % 42,2k, berriz, adierazi du LHk oso berariazko prestakuntza ematen duela, eta % 47,7ren iritziz, LHren gizarte-aitortza txikia da.

Ikasleen gehiengoak funtzio espezifikoa eta instrumentala edo utilitarista esleitzen diote Lanbide Heziketari. Hala ere, LHri buruzko estereotipo hau bizirik dagoela dirudi: LHko ikasketek garapen intelektualeko beharrak ez dituzte asetzen unibertsitateak egiten duen bezala.

Ikasleen ustez, lana azkar bilatzeko onena prestakuntza-ziklo bat egitea da (% 46). Hala ere, nolabaiteko dikotomia dago, beren ustez, gizarteak eskatzen diena kontuan hartzen dutenekin (esate baterako, komunikabideek, erakundeek, politikariek edo enpresek helarazten dutena), gehiengoaren ustez, Unibertsitateko ikasketekin jarraitzea baita (%44).

Baliteke, batez ere, familian **amen prestakuntzak eta lanbideak eta unibertsitateko ikasketak egiten dituzten edo egin dituzten anai-arrebak izateak** unibertsitatean ikasteko aukerarentzat erreferentziazko, orientazioko, fokuratzeko eta/edo sendotzeko

funtzioren bat betetzea, edo, behinik behin, unibertsitatean ikastearekin lotutako gizarte-ordezkaritza transmititzeko funtzioa betetzea.

Gai horri dagokionez, kontuan izan behar da, lagina osatzen duten subjektuen adinean, faktore psikosozialek, besteak beste, jarrera-sistemaren garapenak, funtsezko lana betetzen dutela norberaren itxaropenen garapenean eta eragin handia dutela erabakiak hartzeko garaian. Subjektuak gazte-heldu adinean barneratu ahala, beren jarrera-sistema behin betikotzen doa, eta horren ondorioz, kanpoko errealitatearen aurrean hartutako jarrerak gero eta trinkoagoak dira, egokitzapenezko ahaleginaren eta arrakastaren ondorioz, eta kanpoko eraginari gero eta jaramon gutxiago egiten diote.

10.
Bukatzeko, eta laburpen orokor gisa, unibertsitatera joatea erabakiko duten ikasleen ehuneko handia izatea, LH ikastea pentsatu dutenen ehuneko txikia ez bezala, presiorik gabe hartutako erabakien ehuneko handia, orientazio-egituraren eragin txikia, prestakuntza-eta lan-merkatuaren ezaugarriak eta agertzen diren prestakuntzako eta lan-munduratzeko aukerak, eta baita tartean dauden bizitzako eta izaera pertsonaleko beste zenbait elementu ere (familiako etxetik independizatzea, diru-sarreraren beharra...) kontuan izanda, ikusten da egungo gizarte- eta ekonomia-errealitatean **esku hartzea beharrezkoa dela, lan-prestakuntzako eta -orientazioko ekintza eraginkorrak eta etengabeak abian jarritz**, erabakiak hartzen laguntzeko, **gertuko informazio-kanal erakargarrien eta konfiantzazkoen bidez**, garapen pertsonalerako-profesionalerako orientazioa izateko aukera izan dezaten, baina baita lan-munduratzeko eta enplegarritasunerako ere.

ONDORIO NAGUSIAK

GOGOKO DUDANA IKASTEA

- Pozik ikasketekin
- Trebetasun (ahalegina, lanaren kalitatea) eta ikaskuntza teknologikoko gaitasun onak
- Egungo irakasgaien eta irakasgai horiek emateko moduaren (irakaslea) pisua
- Ikasleei matematika gustatzen zaie, baina zailak dira.
- Eskolaz kanpokoak: laguntza-klaseen % 20
- Lankidetzan ibiltzera ohituagoak (taldeko lana), baina ez horren sozialak
- Etorkizuneko lana irudikatzen dute, baina lehentasuna ematen diete irakasgaiei, haietan gozatzen badute eta trebeak badira.

Ezjakintasuna:

- Gaitasun profesionalak
- Beharrezko ahalak
- Irteera profesionalak

Informazioa (% 87k gehiago nahi du):

- Lehenago, jada DBHn
- Etengabea eta sinesgarria, objektiboa
- Sakona eta banakakoa
- Zuzena profesionalengandik
- Ate irekiak eta bisitak (LH, Unibertsitatea, enpresak)
- INTERNET zaintzea, informazio-bide garrantzitsua da
- Orientazio-zerbitzu eskasa

- % 23k EZ du erabaki zer ikasiko duen
- % 68k Unibertsitatea aukeratu du (zer ikasketa egingo dituen jakin gabe)
- Ez da aukeratzen azken unera

Nire interesekoa den enplegua lortzeko beharrezko ikasketak

Unibertsitateak nire gustuko ikasketak eskaintzen ditu

Eta nire gogoko lanak eskuratzeko aukera hobeak (aukera handiagoa, ez 'industrial' soilik)

Eragina (presioa?)

Erabakitzeko independentzia: presiorik ez, eragina bai (aita/ama - familia)

Etxekoen ustez, hobe da Unibertsitatera joatea

Nire ikastetxean Unibertsitatera bideratzen naute

Gizarteak gehiago eskatzen du edo behar du Unibertsitatea

Errendimendua: Nota onak = Unibertsitatea
Nota txarrak = LH

Lan-merkatuaren inguruko pertzepzio okerra
(langabezia-tasa altua, prekarietatea,...)

Independentziarako gogo gutxi
(gurasoen etxeak hornidura ona, familia txikia...). Emakumeak gogo handiagoa du

Garrantzitsua

Urruna

GOGOKO DUDANA LANA

- Egonkorra, segurua
- Lan giro ona
- soldata
- Zabala, ikasteko eta garapen profesionala

LHk eta bere enplegagarritasunak **aitortza** handia dute, baina gizonezkoen aukera izan ohi da.

Generoaren edo Ikastetxearen (publiko-pribatua) arteko desberdintasunik gabe

Ekintzaileari balorazio baxua egiten zaio



Azterlan honetan egindako analisiaren bokazioa da hautemandako errealitatean jarduketak egitea, aurkitu diren zailtasunetako batzuei irtenbidea bilatzeko.

Gure ustez, **Lan Prestakuntzako eta Orientazioko Ekintza Plan batek** jarduketa zehatzak izan behar ditu, eta zenbait arlo aintzat hartu behar ditu. Hauek ere jorratu behar ditu: **hezkuntza-planoa** (nork bere burua 'zertan den ona' jakiteko ekintzak, irakasgai teknikoak ikasteko prozesua...); **politika publikoen esparrua** (emakumeak mundu tekniko-industrialean duen presentziaren berri ematea eta horren inguruko sentsibilizazioa jorratzea, gizarteak ziklo profesionalak vs. unibertsitateko karrerak hautemateko modua aldatzea, "LH marka" ekintzak...); eta **enpresa-planoa** (industria-errealitatea zabaltzea, egiazko informazioa eta aurrez pentsatutako ideiak desagerraraztea, enpresak gazteengana eta ikaste-txeetara gerturatzea...).

Ekintza Plan horrek gogoeta hauek jaso beharko lituzke:

1. Eraitzen eraginkortasuna hobetzeko joka daiteke

Orientazio profesionaleko eta akademikoko politiken esparruan hobetzeko aukera handia dagoela ematen digu aditzera, besteak beste, lan-eskaria eta -eskaintza bat ez etortzeak, zenbait kolektibo profesionalek langabezia-tasa altua izateak eta beste batzuen enpresa-eskariak bete gabe egoteak, zenbait enplegutik gehiegizko gaikuntza izateak eta unibertsitatea utzi eta karreraz aldatzeko tasa altuak.

Azterlan honetan, egiaztatu dugu komunikazio kanal eta material egokiak erabiliz kolektiboan eragina izan daitekeela. Izan ere, **gizarteak eragin nabarmena du prestakuntza-karrerari buruzko erabakietan**, familiak, irakasleak eta orientatzaileak, lagunek... izan dezaketena baino handiagoa, eta horrez gain, eragina duten eragileek darabilten **informazioan defizit nabarmenak daude**.

Ikasketa-lanbide bat aukeratzeko erabakia hartzea, funtsean, gizarte-konstruktua bat da, eta behin eta berriz errepikatzen diren zenbait inertzien oraindik indar handia dute konstruktua horrengan (nota onak ateraz gero, modalitate 'Zientifiko-Teknologikoa, Biosanitarioa' aukeratzeko da eta unibertsitatean jarraitzen dute, eta mutila bada, ingeniari-tza egingo du, eta neska bada, medikuntza edo erizaintza), eta beti ez daude behar den bezala informatuta edo ez datoz bat errealitatearekin.

2. Informazio gehiago eta hobia eskatzen da

Ikasleek argi eta garbi eskatzen dute informazio gehiago eta hobia etorkizunean egin nahiko lituzketen ikasketa motari buruz¹.

Gehienek azken unea erabakitzen dute zer ikasketa mota egingo dituzten batxilergoa amaitzean ('gehiago pentsatuz ikasketak berehala aukeratu behar dituztela, etorkizuneko aukerei buruz baino'), eta ikasleek **zalantza handiak** dituzte, prestakuntza-ziklo batean edo unibertsitatean ikasten jarraitzearen inguruan, bai eta aukeratu beharreko karreraren edo modalitatearen inguruan ere.

Egiaztatu da orientazioa akademikoagoa dela profesionala baino. Zentzu horretan, kome-nigarria litzateke orientazioaren xedea berriz zehaztea, eta **lehentasuna eman beharko litzaioke proiektu profesionalaren aukeraketari, ondoren ibilbide akademikoa zehazteko**. Halaber, berriz hausnartu beharko litzateke orientazio-sistemari buruz, esparru akademikotik kanpoko eragile gehiago tartean sartuz, ikasleei enpresari eta lanari buruzko ikuspuntu bat eskaini ahal izateko.

Ikasleen ustez, ez dute behar adina informazio gara ditzaketen ikasketa motei buruz, ez da-kite zein diren beren gutxieneko notak karrera batean sartzeko, zer enplegu mota lortzeko aukera ematen duen... Horrez gainera, lanari, beharrezko gaitasunei eta beren talentura ondoen egokitzen direnei eta etorkizuneko lan horretarako behar diren ikasketei buruzko informazio falta handia dutela ere adierazten dute. Zentzu horretan, beren profil pertsonale-rako (bokazioa eta zer lortu nahi duten) eta ibilbide akademikorako **informazio banakatur**a eta egokia eman nahi da.

Horregatik, informazio hori Interneten bilatzen dute, irakasleak, orientatzaileak edo gura-soak sartu baino lehen, eta aurkitutako informazio horren bidez, etorkizuneko lanpostuan irudikatzen dute beren burua ("laborategian sartuta orduak emanez", "ordenagailuaren aurrean programatzen", "sormenagatik diseinatzen" eta abar).

Kontua da ea asmatzen duten irudi hori egokia den etorkizunerako erabaki garrantzitsu bat sortzeko eta ea, pertsona bakoitzaren borondate askea errespetatuz, informazioaren kalita-tea hobe daitekeen eta informazio hori errealitatearekin bat etorri.

Eta horrez gain, orientazio akademiko-profesionaleko prozesuak lehenago hasi behar du (DBHn), **etengabea izan behar du eta ikasleen curriculum-ibilbidean barneratuta egon**.

¹ Aukera profesionalak zehazteko laguntza hobearren (irakasleen aholkularitza, orientazio profesionala...) eskaera orokorra da Europako gazteen artean, nahiz eta Espainia nabarmentzen den. Izan ere, ikasleen % 48k oso gustura jasoko lukete laguntza gehiago, eta % 94k, nahiko eta oso gustura jasoko lukete. Europako beste herrialdeetan, % 35k oso gustura jasoko lukete, eta % 88k nahiko eta oso gustura. 2019ko urtarrileko 'Preparing the New Generation for the Future of Work: A survey of European youth, employers and universities', de WISE (World Innovation Summit for Education) inkesta, JobTeaserren lankidet-zarekin.

3. Informazio zuzena eta sinesgarria

Ikasleek zer informazio mota bilatzen duten argi dagoela dirudi: **profesionalek zuzenean emandako informazioa, ikasle ohiekin hizketaldiak, enpresetara bisitak** eta ikaste-txeen (unibertsitateak, LHko ikastetxeak) ate **irekien jardunaldiak**.

Aintzat hartzen da eskainitako informazioaren kalitatea nahiz **informazio hori eskaintzen duen eragilearen sinesgarritasuna** (beren erabakiari etekinik atera ezin dioten iturrietatik datorren informazioa, inor zerbait saltzen ari zaiela sentitu gabe, esate baterako, parekotzat senti ditzaketen egiazko profesionalekin hizketaldiak egitea).

Zentzu horretan, ikasleak izan behar du protagonista eta informazioaren muina, beren ezau-garriei, gaitasunei, talentuari, zaletasunei eta abarri egokitutako informazio pertsonalizatua eskaintzea lortu behar da.

4. Irteera profesional motak eta enplegarritasuna aintzat hartuz

Esanguratsua da eskura daitezkeen **irteera profesional motaren eta irteera horiekin bat datorren lana aurkitzeko aukeren** inguruko kezka. Hau da, eskaintzen den informa-zioak ikasketa potentzialen 'enplegarritasunari' buruzko modulu bat aintzat hartu behar-ko luke.

Aintzat hartzen da ikasketak egingo den lanerako baliagarriak izatea eta enplegua eskurat-zen laguntzea, nahiz eta ez duen berehalako garrantzirik, lana urruneko gauzatat hartzen baitute, besteak beste, lan-merkatuari buruzko pertzepzio subjektibo txarra dutelako, beren ustez, batez ere langabezia-tasa altua eta prekarietatea dela eta (iritzi hori ez dator bat be-ren inguruko pertsonen egoera horiei buruz duten datuekin).

Aukeraketan aintzat hartzen dituzte beste zenbait alderdi, hala nola enpleguan segurtasuna eta egonkortasuna, laneko giroa, lanean nork bere burua aberastea edo soldata¹ nahiz eta gai horien inguruko informazioan gabeziak izan.

¹ Different majors in community college lead to vastly different outcomes in terms of salary. Yet, students know little about these differences, even though much of the information is available on the internet (for example, through a site called Salary Surfer in California). The mere existence of information is not enough to ensure that students know about the labour market outcomes associated with different majors. Current methods of providing information do not necessarily allow students to reliably improve their opportunities in the labour market. Our findings suggest that to improve labour market outcomes, one should consider offering students labour market information at crucial junctures of the major-choosing decision. Furthermore, since course enjoyment and grades are the most important determinants of major choice, it may be ill-advised to focus on informing students about the highest paying majors. Instead, one could offer labour market information about majors that students already like, and where they think they will be getting good grades. Such timely and relevant provision of information has the potential to improve labour market opportunities for community college students.' Rachel Baker, Eric Bettinger, Brian A. Jacob, Ioana Marinescu (2017) '[Major decisions: How labour market opportunities affect students' choice of subjects](#)

5. IKT kanalak erabiltzea informazioa eskuratzeko

Eztaba daezina da belaunaldi horiek **IKTak erabiltzen ohituta daudela**, eta horregatik, etorkizunean egin beharreko ikasketei buruzko informazioa eskuratzeko gehien erabiltzen duten bideetako bat dela: ia ikasleen % 60k bilatzen du bere kabuz orientazio akademiko/profesionalari buruzko informazioa Interneten.

Horregatik, sareak eta sare sozialek kanal garrantzitsuak izan behar dute, ikasleei orientazio akademiko/profesionalari buruzko informazioa helarazteko.

6. Orientazio akademiko/profesionalaren zeregina ikastetxeetan

Ikastetxeetan orientazioaren arloko profesionalek espero dena baino errendimendu baxua goa dute, beren rola kontuan hartzen badugu (11 eragin-eragileen artean 8. daude), tutoreek eta irakasleek betetzen dutena baino askoz ere txikiagoa.

Oso zerbitzu generikoa eskaintzen dela uste dute, unibertsitatean eta adar zientifiko-teknologikora bideratuagoa, eta informazio akademikoa eskaintzen dutela, baina lan-esparruari buruzko informazio gutxi.

Horrez gain, **ikastetxeek eta ikasleek** alderdi horretan garatzen diren jarduera bolumena eta mota **hautemateko moduaren artean dikotonomia argia** dago.

Bestalde, **orientatzailearen beraren irudia oso zehaztugabea** da jatorriz nahiz itxaropenez, ikastetxe bakoitzean rol **desberdinak** ditu (orientazio pertsonala, akademikoa, profesionala, ebaluazio psikopedagogikoa, eskolaratze-irizpenak edo ikasteko zailtasunak dituzten ikasleentzako banakako planak...), **beti ez dago ondo koordinatuta** irakaskuntzako beste profesionalekin (irakasleak, tutoreak...) eta **ez ditu beharrezko informazioa/material didaktikoak**.

Hala, lehentasunekotzat jotzen da **kalitateko orientazio-zerbitzu kolegiatu eguneratuen eskaintza** sistematikoki eta egonkortasunez bermatzea, bai eta **orientazioaren funtzioa hobetzea ere ikastetxeetan**. Orientazio akademiko/profesionala orientazio-sistema profesional/akademiko integral gisa erabili behar da eta curriculum-egituran barneratu. Egitura horretan, bistakoa da orientazio espezifikoen eta irakasgaietan eta jarduera okupazio-naletan espezializatutako orientazioen ibilbideak eta pasaguneak behar direla, genero-ikus-puntua aintzat hartuko dutenak, ezinbestekoa baita egungo estereotipoak saihesteko.

Horretarako, **hezkuntza-ereduak** ikastetxeen, tutoreen, irakasleen eta orientatzaileen orientazioari **balioa emateko prozedura** xede horietarako berariazko **Plan Estrategiko**

baten bidez antolatu behar da, goi mailako eta Lan-prestakuntzarako eta orientaziorako karrera profesionaleko prestakuntza-ibilbide espezializatuak aintzat hartuz.

Hala ere, orientazio-funtzioari balioa ematez gain, **hezkuntza-ingurunean, ekoizpen-ingurunean eta eragileek partekatutako ingurunean ekintza positiboak ere egin behar dira**, garapenari laguntzeko, **etengabeko prestakuntza**-planen bidez ere sendotu behar da, lan-prestakuntza eta -orientazio funtzioa eguneratu eta modernizatu ahal izateko.

Azkenik, kontuan izan behar da **ez dagoela** orain arte esandakoari **egokitutako prestakuntza-eskaintzarik** euskal testuinguruan lan-prestakuntzan eta -orientazioan goi-mailako prestakuntzaren esparruan. Beraz, master mailan prestakuntza-planak diseinatzea eta aplikatzea egokia izango litzateke. Zentzu horretan, zeregin horiek egiten dituen langileentzat prestakuntza-kanalen eskaintza (ikastaroak, masterrak eta abar) eta material pedagogiko egokiak eskura jartzea ondo legoke.

7. Gizarte- eta familia-estereotipoek Lanbide Heziketa kaltetzen dute

Gizarte- eta familia-estereotipoek oraindik Lanbide Heziketa kaltetzen dute. Ez da gehiengoaren berehalako prestakuntza-itxaropenetan ageri, unibertsitateak baino garapen pertsonalerako aukera gutxiago eskaintzen dituela irizten baita.

Ikasleen gehiengoak funtzio espezifikoa eta instrumentala edo utilitarista esleitzen diote Lanbide Heziketari. Hala ere, LHri buruzko estereotipo hau bizirik dagoela dirudi: **LHko ikasketek garapen intelektualeko beharrak ez dituzte asetzen unibertsitateak egiten duen bezala.**

Ikasleen ustez, **lana azkar bilatzeko onena prestakuntza-ziklo bat egitea da** (% 46). Hala ere, nolabaiteko dikotomia dago, beren ustez, gizarteak eskatzen diena kontuan hartzen dutenekin (esate baterako, komunikabideek, erakundeek, politikariek edo enpresek helarazten dutena); gehiengoaren ustez, Unibertsitateko ikasketekin jarraitzea baita (% 44).

Hala, LHko prestakuntza-ziklo batean jarraitu ordez Unibertsitateko ikasketen lehentasuna izatea indar handiagoz babesten duten eragin-elementuen artean daude: etxekoan ustez, hobe da unibertsitatean joatea (% 53,4) itema eta unibertsitatearen gizarte-aitortza altua izatea (% 51,6). Eta hori horrela da, % 42,6k unibertsitateko ikasketak teorikoegiak direla pentsatu arren, edo nahiz eta % 59,7ren ustez, ikasle on batek ez duen derrigorrez unibertsitatean joan behar edo % 68,5ek pentsatu LH bidez lortutako prestakuntza praktikoa baliagarria dela.

Elementu batek **familia**-ainguratzea du eta besteak, berriz, **soziala**. Hala ere, agian, uni-

bertsitateko ikasketei buruzko gizarte-pentsamendua edo -ordezkaritza elikatzen dute.

Baliteke, batez ere, familian amen prestakuntzak eta lanbideak eta unibertsitateko ikasketak egiten dituzten edo egin dituzten anai-arrebak izateak unibertsitatean ikasteko aukerarentzat erreferentziazko, orientazioko, fokuratzeko eta/edo sendotzeko funtzioen bat betetzea, edo, behinik behin, unibertsitatean ikastearekin lotutako gizarte-ordezkaritza transmititzeko funtzioa betetzea.

Oraindik **gizonezkoen kutsu** nabarmena du Lanbide Heziketak. Izan ere, ikasketa horien hautua egiten dutenen % 63 gizonezkoak dira eta % 37 emakumezkoak; erdi-mailako eta goi-mailako prestakuntza-zikloetan proportzio hori dago.

Ikasleen % 34k ez daki ea unibertsitateko ikasketen edo Lanbide Heziketako ikasketen bidez lortzen den lehenago enplegua eta ikasleen % 30,5ek ez daki gizarteak zer eskatzen duen eta zer behar duen. Horrek aditzera ematen du zenbaterainoko beharra dagoen lan-prestakuntza eta –orientazio ekintza eraginkorren bidez esku hartzeko.

Gizarteak LH hautemateko duen modua hobetzeko palanka batzuk izan daitezke hauek:

- Praktikara bideratuagoa dagoela (vs. Unibertsitatea teorikoagoa da) eta lan-errealitateari gehiago atxikitzen zaiola aitortzen zaio. Lan-/soldata-baldintzak alderatzea.
- Garapen pertsonalarekin eta prestigioarekin lotu behar da.
- Nota onekin, eta hurrengo puntuak adierazten duen bezala, unibertsitateko ibilbidearekin lotzea. Unibertsitatea baino ibilbide laburragoa du, baina malguagoa (luzatzeko aukerarekin).
- Informazioa gurasoei ere iritsi behar zaie, batez ere amei. Zentzu horretan eta orientazio akademiko/profesionalaren zentzu orokorrangoan, gurasoen eta ikastetxeen arteko harremana garrantzitsua da informazio bera emateko ikasleei eta ikaslea nahas dezaketen aurkako mezuak ez sortzeko, erabakia hartzen laguntze aldera.
- Ate irekien bisiten/egunen garrantzia. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleen artean LH gehiago ezagutaraztea.
- DBHn zenbait gaitasun/trebetasun garatzearen garrantzia, hala nola **konpontzeko gaitasuna** (gauzak konpontzea; makinak fabrikatzea, egitea, instalatzea; tresnak erabiltzea eta abar), bai eta zenbait irakasgai garatzearen garrantzia ere, besteak beste, **Teknologia** eta/edo **Marrazki Teknikoa**. Azken irakasgai horiek gaizki balioetsiak dira eta ziklo profesionalekin edo lanbide tekniko batzuekin eta STEM arloarekin gehien lotutakoak dira.

Euskadin, prestakuntza-zikloren ikastetxe-sarearen hedadura kontuan izanda, aukera bat litzateke DBHko irakasgai mota horiek ikastetxe horietan egitea, irakasgai horiek emateko ondo prestatuta baitaude (materialak, tresnak, ezagutzak dituzten langileak). Hala, ‘ate irekien egunak’ egiteko baliagarria izan daiteke, ikasleek ikastetxe horietan zer prestakuntza mota ematen den zuzenean ezagutzeko.

8. VisiPrestakuntza-zikloen eta Unibertsitatearen arteko ibilbideak bistaratzea

Batxilergoa ikasten duten gazteen aukera ikerketako jarduera okupazionalekin lotuta dago (tartean daude laborategiko lanak; makinaria, ibilgailuak edo teknologia fabrikatzea; eta zerbitzu mediku-sanitarioak), ‘pertsonei zerbitzuak, zainketak eta gizarte-laguntza ematea’ eta ‘beste pertsona batzuei irakastea, hezte, orientatzea eta prestatzea’.

Edonola ere, prestakuntza-ibilbideak aurki daitezke unibertsitatean nahiz lanbide-heziketan, nahiz eta orain arte Lanbide Heziketarekin lotu izan diren irakasgaiak, hala nola Teknologia, Industria Teknologia eta Marrazketa Teknikoa, gutxiago bat etorri beren zaletasunekin eta erakargarritasun txikiagoa izan.

Horregatik, unibertsitatearen, Lanbide Heziketaren (DUALA eta tradizionala) eta kualifikazio-sistemen arteko zubi-ibilbideei ikusgarritasun handiagoa eman behar zaie.

9. Zientziaren eta teknologiaren zeregina sustatzea

Gipuzkoan Batxilergoa egiten duten ikasleek, batez ere, **batxilergo zientifikoa** aukeratzen dute (% 56,2k; Osasunaren Zientziak ere aintzat hartzen ditu), eta Euskadiko buru da eta 10 puntu gainera dago Espainiako batezbestekotik.

Hasiera batean, **inkesta egindako ikasleek ez dute adierazi matematika gorroto dutenik** (ikasleek hiru gogokoenak baloratzekoan, 2. gogokoena dela adierazi dute. Ulertzen dutenean gustuko omen dute, baina zaila egiten zaie), eta STEM irakasgai batzuk, hala nola Fisika, Kimika eta Informatika, batez besteen gainera daude, zailak iruditzen bazaizkie ere.

Aitzitik, ziklo profesionalekin edo STEM lanbideekin lotura handieneko irakasgaiak, hala nola Teknologia eta Industria Teknologia, azken postuetan daude eta zenbait zereginek/gaitasunek balorazio txarra jasotzen dute (gauzak konpontzea; fabrikatzea, egitea, makinak instalatzea; tresnak erabiltzea eta abar).

Irakasgai zehatzetan egindako lanak garrantzia duenez ondoko erabaki akademikoetan eta profesionaletan, komenigarria da izaera tekniko-zientifikoko irakasgaiak nola ematen eta ikasten diren berriz aztertzea. Zenbait ikaskuntza-metodologia ikasteko modu desberdinetara egokitzea lortuko balitz, irakasgai horiek erakargarriagoak bihur daitezke, eta horrenbestez, esparru tekniko-zientifikoak hautatzeko aukera handiagoak egongo lirateke.

10. STEM arloan emakumeen presentzia sustatzea

STEM ikasketetan (Zientziak, Teknologia, Ingeniaritza eta Matematika) neskak gutxiengoa dira. Batez ere Ingeniaritzaren adarrean daude gutxien; zehazki, Euskadin Ingeniaritzan matrikulatutako neskak % 25 dira (Osasunaren Zientzietan % 76 eta adar guztietan % 53), eta Ingeniaritza informatikoan edo Ingeniaritza mekanikoan, esaterako, emakumeen ehunekoa % 16 ingurukoa da. Hala ere, Matematika edo Kimikako graduetan % 50 dira (Fisikan % 26).

Neska eta mutilen artean hautematen diren alde nagusiek aditzera ematen dute **neskek gutxiago lehenesten dituztela teknologiarekin, informatikarekin eta ingeniaritzarekin lotutako irakasgaiak/zereginak eta** beren gaitasunetan konfiantza txikiagoa dutela esparru horrekin, eta batez ere ingeniaritzarekin lotutako ikasketak egiteko, nahiz eta emaitza hobeak izan espediente akademikoetan.

Nahiz eta karrera mota horiek enplegarritasun handia eta lan-baldintza onak izan, neskak ez dute haiekiko interesik, besteak beste, **ez dituztelako oso baliagarriak ikusten gizarterako**. Askotan, ikasketa mota horien orientazio teorikoagoak eta ez horren praktikoak, bizitza errealetik eta gizarte-inpaktutik urrunduak emakumeak uxatzen ditu. Irakasgaia errealitatearekin lotuagoak dauden arazoak konpontzera bideratuko balitz, ikasketa horiek erakargarriagoak izango lirateke emakumeentzat.

Emakumeen profil profesional gogokoenaren joera 'arlo sozialera' eta 'pertsonei zerbitzuak ematera' bideratuta dago batez ere, eta emakumeak lehiakortasun handiko testuinguruetan beste modu batera erantzuten du. Horrek pentsarazten digu karrera profesional teknikoetara orientatzeko ahaleginak eraginkorrak izateko, **are gehiago nabarmendu behar direla ezaugarri horiek (soziala, pertsonekin lotutakoa, lankidetzakoa)**, profil horietan ere badaudelako, nahiz eta segur aski horrenbeste ez azpimarratu. Hala, tradizioan gizon kutsua izan duten esparruetan lan egiten duten eta nabarmentzen diren emakumeek ikusgarritasuna eskaintzea garrantzitsua da lotura eta estereotipo horiek aldatzeko.

11 eta 12 urte ingururekin hasten dira erabaki akademikoak hartzen, eta adin horretara arte, neskak mutilen interes bera dute matematikaren eta teknologiaren inguruan. Hala ere, 15 urterekin, neskak gai horien inguruko interesa galtzen hasten dira familia-itxaropenen, estereotipoen, irakasleen paternalismoaren eta inguruko eraginen nahasketa bat dela eta.

Emakumezkoek STEM arloan bokazioa izatea sustatzeko ekimen batzuk izan daitezke, besteak beste, **ikasketa horien irakaskuntzan emakume gehiago izatea** (erreferente heldu inspiragarriak); **mentorizazioa**, etorkizunean atxikipenak lortzeko tresna eraginkorretako bat baita; bai eta **emakumezko ikertzaile eta zientzialari onen** ikusgarritasuna areagotzeko ekintzak egitea ere.

11. Generar espacios e iniciativas de colaboración entre diversos agentes

Batxilergoko ikasleak, ikastetxeak eta lanean dabiltzan profesionalak edo enpresa harremanetan jartzea lagungarria izan daiteke **zenbait eragileren artean espazioak eta ekimenak sortzeko**.

Egin daitezkeen orientazio-ekintzek ezinbesteko prestakuntza- eta enplegu-aukerak eskaini behar dizkiete gazteei. Abiapuntutzat izan behar dituzte, alde batetik, informazio-oinarri sendoak izatea (fidagarriak), eta bestetik, prestakuntza-, erakunde- eta enpresa-eragileei (sinesgarriak) ezagutzak trukatzeko (zuzenean) esparru komunetan elkar ezagutzeko aukera eskaintzea.

Askotariko eragileen artean lankidetzaz-espazio eta -ekimen irekiak sortzeko, orientazio-ekintzek zeharka eragingo dute eta ikasleentzat lortu nahi den garapen-funtzioa beteko du.

Lehen aipatu den bezala, lehenengo funtsezko lankidetzetako bat da gurasoen eta ikastetxeen artekoa, informazio bera eman diezaieten ikasleei eta ikaslea nahas dezaketen aurkako mezuak ez sortzeko, erabakia hartzen lagundu ordez.

Eta zalantzarik gabe, beste lankidetzaz interesgarri bat da ekoizpen-egituraren eta ikastetxeen artekoa, ingurunean dauden beharrak eta eskatzen diren gaitasunak zein diren jakiteko, bai eta ikasleek gertuko esperientzia profesional errealisten berri izateko aukera izan dezaten ere, beren ereduak sortze aldera.

Esate baterako, esperientzia pilotuak edo ekintza-prototipoak diseina daitezke, ikasle bakoitzaren ikastetxeek, unibertsitateek, Lanbide Heziketako ikastetxeek, enpresa-elkarteek eta sindikatuak, Lanbide, eskualdeko garapen-agentziek (horiek Berritzeguneekin¹ koordina daitezke, elkarrekin eta koordinatuta erantzunak emateko) parte hartzeko. Hala, ekintza horien bidez, ekintzak, ibilbideak, bisitak, solasaldiak, erakundeen informazio-kanpaina klasikoak, informazio-kanpainak sare sozialetan, foroak eta abar antolatuko lirateke, bai eta dokumentazioa eta ikus-entzunezko euskarriak editatu eta sortu ere.

¹ Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe guztietako, sare publikoko nahiz pribatuko, berrikuntzan eta prestakuntzan laguntzeko zerbitzuak dira Berritzeguneak (40/2009 Dekretua, otsailaren 17koa, Berritzeguneen egitura, antolaketa eta funtzionamendua arautzekoa).

Orientazio profesionala Europan

	1. Berariazko legedia	2. OPren figura	3. Irakaslea, OP gisa	4. Agentzia publikoak	5. Derrigorrezko irakasgaia	6. Enpresa eta eskola elkartzea	7. OP Lanbide Heziketan
Austria	X	X		X	X	X	X
Suedia		X		X			
Danimarka		X	X	X			
Finlandia			X				X
Alemania	X			X	X		X
Frantzia	X	X	X	X	X	X	
Italia	X		X			X	X
Erresuma Batua	X	X		X		X	X
Espainia			X				X

- Orientazio profesionalaren sistemaren ezaugarri bereizgarriak:
- 1. Orientazio profesionaleko sistema arautu bat dago. Indarreko legediak ezartzen du nola antolatu behar den ikasleen orientazio profesionala eta akademikoa.
 - 2. Orientatzaile profesionalaren figura dago. Tutorea edo irakasleak ez diren beste pertsona bat dago, ikaslea informatzeko eta profesionalki bideratzeko funtzioa betetzeko beharrezko prestakuntza espezifikoarekin.
 - 3. Irakasleak edo tutoreak betetzen du orientazio profesionalaren zeregina. Irakasleek edo tutoreek bideratzen dituzte ikasleak beren prestakuntza-aukeren inguruan.
 - 4. Administrazio publikoak orientazio profesionaleko agentziak ditu. Agentzia publikoak dira eta orientazio profesionala betetzen dute, eskoletan nahiz zuzenean ikasleekin. Alemanian, esate baterako, enplegu-agentziek betetzen dute funtzio hori.
 - 5. Hezkuntza-ibilbideak orientazio profesionalari buruzko irakasgai bat du. Ikasturte batzuetan, berariazko irakasgai bat jartzen da, ikasleak akademikoki eta profesionalki bideratzeko misioa duena. Ikasleek derrigorrez egin behar dute irakasgai hori.
 - 6. Lankidetza estua dago eskolaren eta enpresaren artean orientazio profesionalaren zeregina betetzeko. Ikastetxeek orientazio profesionaleko jarduerak egiten dituzte. Enpresen edo profesionalen esku egoten dira, eta hauek izan daitezke, besteak beste, bisitak enpresetara, eta hitzaldiak enpresaburuekin edo profesionalekin.
 - 7. Lanbide Heziketan orientazio profesionala. Lanbide Heziketako ikasturteetan irakasgai bat edo tailer bat dago, ikaslea bere lan-etorkizunaren inguruan bideratzea helburu duena. Eskuarki derrigorrezkoa da.

Iturria: ‘Orientación profesional y formación dual: Hacia un modelo integrado para el empleo juvenil’. Prestakuntza Dualerako Bankia Fundazioa eta Instituto de Empresa Familiar.



Eskerrak eman nahi dizkiogu Gipuzkoako Foru Aldundiko Kudeaketa Estrategikoko Zuzendaritza Nagusiari, Etorkizuna Eraikiz – GipuzkoaLab programaren 2018ko deialdiko diru-laguntza emateagatik. Horri esker, EHUK, leTeamek eta Adegik osatutako talde gogotsu honek proiektu hau abiatu du.

Halaber, gure esker ona adierazi nahi diegu gure inkestan parte hartu duten 36 ikastetxeri eta ikastetxe horietako ikasleei, eta parte hartu ez arren, parte hartzeko prestutasun osoa adierazi zutenei ere bai.

Halaber, eskerrik asko focus groups delakoetan parte hartu duten guztiei, beren denbora eskaintzeagatik, batez ere ikastetxe hauetako orientatzaileei eta Batxilergoko 1. mailan seme-alabak dituzten gurasoei eta ikasleei:

BHI Goierri	Oteiza Lizeo Politeknikoa	Oiartzo Ikastola	Erain LBHIP
Ugle Eskola	Xabier Zubiri Manteo BHI	Elgoibar BHI	Tolosaldea Lanbide Heziketa

Inkestan parte hartu duten ikastetxeak

Zb.	IKASTETXEA	UDALERRIA	MODALITATEA
1	ALMEN IKASTOLA LBHIP	ESKORIATZA	PRIBATUA/ITUNPEKOA
2	ANTIGUA-LUBERRI BHI	DONOSTIA	HEZKUNTZA SAILA
3	ARRASATE BHI	ARRASATE	HEZKUNTZA SAILA
4	AZKOITIA BHI	AZKOITIA	HEZKUNTZA SAILA
5	AZPEITIKO IKASTOLA-IKASBERRI KOOP. HLBHIP	AZPEITIA	PRIBATUA/ITUNPEKOA
6	BEASAIN BHI	BEASAIN	HEZKUNTZA SAILA
7	DEUTSCHE SCHULE SAN ALBERTO MAGNO HLBHIP	DONOSTIA	PRIBATUA/ITUNPEKOA
8	ELGOIBAR BHI	ELGOIBAR	HEZKUNTZA SAILA
9	ELKAR HEZI HLBHIP	OÑATI	PRIBATUA/ITUNPEKOA
10	ERAIN LBHIP	IRUN	PRIBATUA/ITUNPEKOA
11	ESKIBEL HLBHIP	DONOSTIA	PRIBATUA/ITUNPEKOA
12	GAZTELUPE-ARIMAZUBI IKASTOLA HLBHIP	ARRASATE	PRIBATUA/ITUNPEKOA
13	HAZTEGI IKASTOLA HLBHIP	LEGAZPI	PRIBATUA/ITUNPEKOA
14	HERNANI BHI	HERNANI	HEZKUNTZA SAILA
15	HERRIKIDE ESKOLAPIOAK BHIP	TOLOSA	PRIBATUA/ITUNPEKOA
16	IPINTZA BHI	BERGARA	HEZKUNTZA SAILA
17	IRAURGI HLBHIP	AZPEITIA	PRIBATUA/ITUNPEKOA
18	IRUNGO LA SALLE HLBHIP	IRUN	PRIBATUA/ITUNPEKOA
19	LA ASUNCIÓN HLBHIP	DONOSTIA	PRIBATUA/ITUNPEKOA
20	LA SALLE BERROZPE IKASTETXEA HLBHIP	ANDOAIN	PRIBATUA/ITUNPEKOA
21	LIZARDI BHI	ZARAUTZ	HEZKUNTZA SAILA
22	MANUEL DE LARRAMENDI HLBHIP	DONOSTIA	PRIBATUA/ITUNPEKOA
23	NAZARET BATXILERGOA BHIP	DONOSTIA	PRIBATUA/ITUNPEKOA
24	NTRA. SRA. DE AZITAIN BHIP	EIBAR	PRIBATUA/ITUNPEKOA
25	OIANGUREN BHI	ORDIZIA	HEZKUNTZA SAILA
26	Oiartzo Batxilergo ikastola BHIP	ERRETERIA	PRIBATUA/ITUNPEKOA
27	R.M. ZUAZOLA-LARRAÑA BHI	OÑATI	HEZKUNTZA SAILA
28	SAN BENITO IKASTOLA HLBHIP	LAZKAO	PRIBATUA/ITUNPEKOA
29	STA. MARÍA DE LA PROVIDENCIA HLBHIP	EIBAR	PRIBATUA/ITUNPEKOA
30	STO. TOMÁS LIZEOA HLBHIP	DONOSTIA	PRIBATUA/ITUNPEKOA
31	UROLA IKASTOLA BHI	AZPEITIA	HEZKUNTZA SAILA
32	URRETXU-ZUMARRAGA IKASTOLA HLBHIP	URRETXU	PRIBATUA/ITUNPEKOA
33	USABALGO LASKORAIN IKASTOLA HLBHIP	TOLOSA	PRIBATUA/ITUNPEKOA
34	ZUMAIENA HLBHIP	ZUMAIA	PRIBATUA/ITUNPEKOA
35	Aita Larramendi Ikastola	ANDOAIN	PRIBATUA/ITUNPEKOA
36	SAN IGNACIO DE LOYOLA IKASTETXEA	DONOSTIA	PRIBATUA/ITUNPEKOA



- ADEGI (2018a). Necesidades de Empleo y Perfiles Profesionales de Gipuzkoa 2018.
<https://www.adegi.es/adegi/informe-necesidades-empleo-perfiles-profesionales-2018-201804/>
- ADEGI (2018b). Evolución empleo en Gipuzkoa primer semestre de 2018.
<https://www.adegi.es/download.php?arc=85y78rvgf8/Estudios/Observatorio%20de%20Empleo/13-Evoluci%C3%B3n%20empleo%20en%20Gipuzkoa%20primer%20semestre%20de%202018.pdf>
- ADEGI (2019). COYUNTURA ECONÓMICA DE GIPUZKOA-Mayo 2019: Persiste el crecimiento y se crea empleo a pesar del aumento de la incertidumbre. Recuperado de
<defile:///C:/Users/Usuario/Downloads/CoyunturaEconomicaGipuzkoa-Mayo2019.pdf>
- Álvarez, P., Ocampo, C. I. y Sarmiento, J. A. (2018). Valoración de la orientación profesional en la enseñanza secundaria postobligatoria. Revista de Investigación Educativa, 36(1), 75-93.
- Blanco, A. (2009): «El modelo cognitivo social del desarrollo de la carrera», Revista de Educación, 350: 423-443.

- Bisquerra, R. (2010). Orígenes y desarrollo de la orientación. En M. Bisquerra, J. M. Méndez, y R. Bisquerra (Eds.), Modelos de orientación e intervención psicopedagógica (pp. 23-38). Barcelona, España: Wolters Kluwer.
- Cepero, A. B. (2009). Las preferencias profesionales y vocacionales del alumnado de secundaria y formación profesional específica (Tesis doctoral). Universidad de Granada, Granada.
- CAPILLA, G. Y CASERO, A. "Análisis de las diferencias de género en la elección de estudios universitarios". Estudios de Educación, 2012, volumen 22, págs.115-132.
- Carbonero, M.; Merino, E. (2004): Relaciones entre autoeficacia vocacional y madurez vocacional. Psicothema. 16 (22): 229-2234
- CORTES, A. y CONCHADO, A. "Los contextos parentales y académicos y los valores laborales en la toma de decisiones en Bachillerato". Estudios sobre Educación, vol. 22, 2012, págs. 93-114.
- Cortés, A., Berbegal, A., Bueno, C., Arraiz, A. y Sabirón, F. (2010). Análisis de la selección para la continuidad de los estudios de los alumnos de Bachillerato de Aragón y del tránsito a la Universidad: incidencia en el proceso de orientación académica-profesional-personal. Universidad de Zaragoza, Consejo Social.
- Chacón, M y Moso, M. (2018). Los jóvenes ante la elección formativa y vocacional en España. EKONOMIAZ, Revista vasca de Economía, 93(01), 204-225.
- Elosua, P. (2007a). Nerabeen Lanbide-Lehentasunak. Tantanak(36), 45-56.
- Elosua, P. (2007b). Assessing vocational interests in the basque country using paired comparison design. Journal of Vocational Behavior 71(1), 135-145.
- Emakunde (2016) 'La incidencia del valor de la igualdad en la elección de estudios de grado superior por alumnado de 2º de Bachillerato en Euskadi'. Informe nº 36
- ESADE (2017). Estado del mercado laboral en España. Informe, InfoJobs - ESADE. Ramón Llull University.
- ESADE (2018). Estado del mercado laboral en España. Informe, InfoJobs - ESADE. Ramón Llull University.
- EUSKO JAURLARITZA (2016). ESTRATEGIA VASCA DE EMPLEO 2020. Recuperado de http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eve2020/es_def/adjuntos/EVE2020.pdf
- EUSKO JAURLARITZA (2018). Ikasgunea [Conjunto de datos]. Recuperado 16 abril, 2019, de <https://ikasgunea.euskadi.eus/es/buscador-de-centros>
- EVERIS (2012). Factores influyentes en la elección de estudios científicos, tecnológicos y matemáticos. Visión de los estudiantes de 3º y 4º de ESO y Bachillerato.
http://s3-eu-west-1.amazonaws.com/e17r5k-datap1/everis_documents_downloads/CTM_Resumen+ejecutivo.pdf
- Fuentes, M.C., García, J.F., Gracia, E. y Lila M. (2011). Autoconcepto y ajuste psicosocial en la adolescencia. Psicothema . Vol. 23, nº 1, pp. 7-12
- Fundación MAPFRE, Atresmedia y IESE Business School. (2018). Reflexiones sobre la Formación Profesional de Grado Medio y Superior en España. Recuperado de https://www.fundacionmapfre.org/fundacion/es_es/images/informe-completo-descubre-fp_tcm1069-450248.pdf
- Gil, J.M. (1997). Una aproximación a la historia del asesoramiento vocacional. Revista Galego-Portuguesa de Psicoloxia e Educación, 1 (1), 47-61
- Ginzberg, E., Ginsburg, S. W., Axelrad, S., y Herma, J. L. (1951). Occupational choice. New York, NY: Columbia University Press.
- Grañeras, M. y Parras, A. (Coords.). (2009). Orientación educativa: fundamentos teóricos, modelos institucionales y nuevas perspectivas. Madrid: Centro de Investigación y Documentación Educativa (CIDE). Secretaría General Técnica. Ministerio de Educación.
- Holland, J. L. (1997). Making vocational choices: A theory of vocational personalities and work environments (3rd ed.). Englewood Cliffs, NJ: Prentice Hall.
- Holland, J. L. (1973). Making vocational choices: A theory of careers. Englewood Cliffs, NJ: Prentice Hall.
- Kaiser, H.F. (1958). The varimax criterion for analytic rotation in factor analysis. Psychometric, 23, 187-200
- Krumboltz, J. D., Mitchell, A. M., y Jones, G. B. (1976). A social learning theory of career selection. The

Counseling Psychologist, 6(1), 71–81.

LABORAL KUTXA. (2015). Perspectivas sectoriales del empleo en la economía vasca. Recuperado de <https://corporativa.laboralkutxa.com/src/uploads/2016/02/PERSPECTIVAS-SECTORIALES-DEL-EMPLEO-EN-LA-ECONOMIA-VASCA-.pdf>

Lacave, C., Molina, A.I., Fernandez, M., y Redondo, M.A. (2015). Análisis de la fiabilidad y validez de un cuestionario docente. A: JENUI 2015. "Actas de las XXI Jornadas de la Enseñanza Universitaria de la Informática". Universitat Oberta La Salle ed. Andorra la Vella: Universitat Oberta La Salle, p. 136-143.

LANBIDE. (2018). Balance mercado laboral (Cuarto Trimestre 2018). Recuperado de http://www.lanbide.euskadi.eus/contenidos/estadistica/balance_mercado_laboral_2015/opendata/Balance%20Trimestral_IV_2018_vf.pdf

LANBIDE. (2019). Informe mensual de paro del año 2019 (Desempleo registrado en abril de 2019). Recuperado de http://www.lanbide.euskadi.eus/y94-estadist/es/contenidos/estadistica/informe_paro_2019/es_def/adjuntos/04-Abril/Informe_Paro.pdf

Lent, R.W.; Brown, S.D.; Hacket, G. (1994): «Toward a unifying social cognitive theory of career and academic interest, choice and performance», *Journal of Vocational Behavior*, 45 (1): 79-122.

Lent, R.W.; Brown, S.D.; Hacket, G. (2000): «Contextual support and barriers to career choice: a social cognitive analysis», *Journal of Vocational Behavior*, 47 (1): 36-49.

López, M. (2004). La toma de decisiones en los sistemas de autoayuda y asesoramiento vocacional (SAV-R y SAVI-2000): propuesta y validación de un modelo de decisión vocacional (Tesis Doctoral). Universidad Complutense de Madrid, Madrid.

López, M. (2003). El asesoramiento vocacional en la práctica psicopedagógica. En F. Rivas (Ed.), *Asesoramiento Vocacional: Teoría, práctica e instrumentación* (pp. 437–463). Barcelona, España: Ariel Psicología.

López, N., y Sola, T. (2003). Orientación escolar y tutoría para las diferentes etapas de la educación. Granada, España: Grupo Editorial Universitario.

Marsh, H.W.(1989) Age and sex effectis in multiple dimensions of self-concept: Preadolescence to Early Adulthood. *Journal of Educational Psychology*, 81,417-430.

Marsh, H.W. eta Byrne, B.M. (1993) Do we see ourselves as others infer: A comparison of self-other agreement on multiple dimensions of self-concept from two continents. *Australian Journal of Psychology*, 45, 49-58.

Marsh, H.W., Byrne, B.M. eta Shavelson, R.J. (1988) A multifaceted academic self-concept: Its hierarchical structure and its relation to academic achievement. *Journal of Educational Psychology*, 80,366-380.

Martín, T. (2006): Orientación Profesional. Rosario: Editorial Luventicus.

Martínez Clares, P., y Martínez Juárez, M. (2011). La orientación en el siglo XXI. *Revista electrónica Interuniversitaria de formación del profesorado*, 36(14-1), 253-265.

Masjuan, J. M. (2005). Progresos en los aprendizajes, características de los estudios y motivaciones de los estudiantes. *Papers: revista de sociología*, (76), 97-133.

Monzón, J. (2008). Los centros de apoyo a la formación e innovación del Sistema Educativo en la Comunidad Autónoma Vasca (Berritzegune). Análisis de los puestos de trabajo desde el punto de vista de sus profesionales (Tesis Doctoral). UPV/EHU, Donostia.

Muñoz-Carril, P. C., y González-Sanmamed, M. (2014). Utilización de las TIC en orientación educativa: Un análisis de las plataformas web en los departamentos de orientación de secundaria. *Revista Complutense de Educación*, 26(2), 447.

Núñez, J.; Rubio, M. (2005): El aprendizaje escolar examinado desde la perspectiva del modelo 3p de J. Biggs. *Psicothema*. 17 (1): 20-30.

OCDE. (2017). Panorama de la educación 2017 (INDICADORES DE LA OCDE). Recuperado de <http://www.fundacionsantillana.com/PDFs/PANORAMA%20EDUCACION%202017.pdf>

OCDE (2012). Resultados de PISA 2012 en Foco. Recuperado de https://www.oecd.org/pisa/keyfindings/PISA2012_Overview_ESP-FINAL.pdf

Oliva, C. R., y Coronado, M. D. V. M. (2015). La utilización de las TIC en la orientación educativa: un estudio

exploratorio sobre la situación actual de uso y formación entre los profesionales de la orientación. *REOP-Revista Española de Orientación y Psicopedagogía*, 26(3), 78-95.

Orcasitas, J. R. (2003). 20 años de integración escolar en el País Vasco: Haciendo historia..., construyendo un sistema educativo de calidad para todos. En A. Iztueta (Presidencia), *la respuesta a las necesidades educativas especiales en una escuela vasca inclusiva*. Ponencia presentada en el congreso Guztiontzako eskola, Donostia.

Palomo, M. M., Méndez Garrido, J. M., y Bisquerra, R. (2010). Principios, objetivos y funciones de la orientación. En R. Bisquerra (Ed.), *Modelos de orientación e intervención psicopedagógica* (pp. 23–39). Barcelona, España: Wolters Kluwer.

Parsons, F. (1909). *Choosing a vocation*. Boston, MA: Houghton, Mifflin and Company

Proctor, W. M; Benefield, W, y Wren, C.G. (1931) *Workbook in Vocations*. Boston, MA: Houghton, Mifflin and Company

Rivas, F (1988). *Psicología Vocacional. Enfoques del asesoramiento*. Madrid: Morata

Rivas, F (2003). *Asesoramiento vocacional. Teoría, práctica e instrumentación*. Barcelona; Ariel.

Rivas, F. (2002). *Psicología Vocacional (1909-2000): Apuntes para un balance prospectivo del asesoramiento vocacional en España*. *Revista Historia de la Psicología*, 2(3), 37-83.

Rivas, F. (2007): «¿Conducta y asesoramiento vocacional en el mundo de hoy?», *Revista Electrónica de Investigación Socioeducativa*, 11(5): 5-14.

Rogers, C. R. (1942) *Counselling and Psychotherapy*. Boston,MA: Houghton, Mifflin and Company.

Santana, L. et al. "Toma de decisiones y género en el Bachillerato". *Revista de Educación*,359. Septiembre-diciembre, págs. 357-387. 2012.

Shavelson, R.J., Hubner, J.J. eta Stanton.G.C.(1976) Self-concept:validation of construct interpretations. *Review of Educational Research*, 46, 407-442.

Stevens, R. (1996) *Understanding the self*. London:Sage

Sustaeta, P. N., y Julve, I. S. (2014). Las motivaciones de la elección de carrera por los estudiantes universitarios. *Revista de Sociología de la Educación-RASE*, 7(1), 61-81.

Vázquez, Á., Manassero, M. A., y Taberner, J. (2013). Factores que influyen sobre la elección de estudios superiores deficiencias y tecnología. *Comunicación*, Simposio llevado a cabo en el IX Congreso Internacional sobre Investigación en Didáctica de las Ciencias, Girona



I. ERANSKINA: INKESTA BATXILERGOKO IKASLEEI

1. LAGINA

2017-18 ikasturtean, Gipuzkoako Lurralde Historikoan guztira 10.492 ikasle zeuden matrikulatuta Batxilergoan ematen duten 71 ikastetxetan (EUSTATen behin betiko datuen arabera). Eguneko Batxilergoan ikasten dutenen artean, 5.162 (% 49,2) ikasle Batxilergoko 1. maila egiten ari dira; eta 5.027 (% 47,9), Batxilergoko 2. maila. Eta horietatik, % 50,1ek (5.258) Batxilergoan ikastetxe pribatuetan egiten dute, eta % 49,9k (5.234) ikastetxe publikoetan. Bestalde, hizkuntza-ereduaren arabera, ikasleen % 75,2k (7.889 ikasle) Batxilergoan D ereduaren egiten dute; % 20,3k (2.132) A ereduaren; eta % 4,5ek (471), B ereduaren.

Gipuzkoako ikasleen Batxilergoko modalitatearen arabera banaketari erreparatzen badiogu, ikusten da ikasleen % 55,8k (5.864 ikasle) Batxilergo Zientifikoa egiten duela; % 33,8k (3.544) Gizarte Zientzien Batxilergoan; % 7,2k (751), Giza Zientzien Batxilergoan; eta % 3,2k (333), Arte Batxilergoan. Batxilergo Zientifikoa egitea aukeratzen dutenen % 53,3k (2.252) ikastetxe pribatuetan egiten dituzte ikasketak; eta Gizarte Zientzien Batxilergoan egitea aukeratzen dutenen % 52,8k (1.872) ere ikastetxe pribatuetan egiten dituzte. Hala ere, Giza Zientzien Batxilergoan egitea aukeratzen dutenen % 70,3k (528) ikastetxe publikoetan egiten ditu ikasketak, Arte Batxilergoan egitea aukeratzen dutenen % 88,3k (294) bezala.

Batxilergoan guztira 5.654 (% 53,9) emakume gazte daude matrikulatuta. 2.804 emakume gazte Batxilergo Zientifikoa egiten ari dira (modalitate hori aukeratzen dutenen % 47,8); beste 2.122 emakume Gizarte

Zientzien Batxilergoan dabilta (ikasketak horiek egiten ari direnen % 59,9); 502 emakume, Giza Zientzien Batxilergoan (ikasketak horiek egiten ari direnen % 66,8); eta 226 emakume, Arte Batxilergoan (ikasketak horiek egiten ari direnen % 67,9).

Gipuzkoako Batxilergoko matrikulazioaren datuak

Hizkuntza-eredua	IKASTETXE PUBLIKOAK				IKASTETXE PRIBATUAK				GUZTIRA			
	A	B	D	Guztira	A	B	D	Guztira	A	B	D	Guztira
Eguneko Batxilergoan	599	71	4.261	4.931	1.230	400	3.628	5.258	1.829	471	7.889	10.189
Gaueko Batxilergoan	140	-	-	140	-	-	-	-	140	-	-	140
Urruneko Batxilergoan	163	-	-	163	-	-	-	-	163	-	-	163
GUZTIRA Batxilergoan	902	71	4.261	5.234	1.230	400	3.628	5.258	2.132	471	7.889	10.492
ARTEA	87	4	203	294	0	0	39	39	87	4	242	333
GIZA ZIENTZIAK	187	13	328	528	46	22	155	223	233	35	483	751
GIZARTE ZIENTZIAK	296	20	1.356	1.672	526	164	1.182	1.872	822	184	2.538	3.544
ZIENTZIA	332	34	2.374	2.740	658	214	2.252	3.124	990	248	4.626	5.864

Iturria: EUSTAT. Gipuzkoako Batxilergoko ikasleen matrikulazioa 2017-18 ikasturtean

Gipuzkoako Batxilergoko zenbat ikasle erantzun dioten inkestari

Hizkuntza-eredua	IKASTETXE PUBLIKOAK			IKASTETXE PRIBATUAK			GUZTIRA		
	Gizona	Emakumea	Guztira	Gizona	Emakumea	Guztira	Gizona	Emakumea	Guztira
ARTEA	3	10	13	4	1	5	7	11	18
GIZA ZIENTZIAK	20	32	52	54	81	135	74	113	187
GIZARTE ZIENTZIAK	36	83	119	158	259	417	194	342	536
ZIENTZIA	119	139	258	288	314	602	407	453	860
GUZTIRA Batxilergoan	178	264	442	504	655	1.159	682	919	1.601

Laginketa-teknika

Ikastetxeek nahiz ikasleek inkestan borondatez parte hartu behar izatea muga bat izan da, eta laginaren estatistika-ordezkaritza baldintzatu du. Beraz, nahi izan zuten ikastetxeek hartu zuten parte, ausazko izendapenik egin behar gabe. Bestalde, erabilgarri izan ditugun matrikulazio-datu berrienak 2017-18 ikasturtekoak izan dira, eta 2019ko martxoan argitaratu ziren. Datuak 2018ko abenduan eta 2019ko urtarrilean bildu zirenez, ezin izan da laginketa 2018-19 ikasturteko egiazko matrikulazio-datuekin egokitu. 2018-19 ikasturteko behin betiko matrikulazio datuak 2020ko martxoan argitaratuko dira.

Edonola ere, alborapen-eragina ahal zen neurrian neutralizatzeko, ausazko laginketara hurbilketa bat egin da. Horretarako, 1. eta 2. mailako ikasleak orekatu dira, eta geruzak (ikus 7. puntua, Emaizak) eskualdeka (11), ikastetxeka (publiko-privatua), hizkuntza-ereduka (A eta D), ikasturteka (Batxilergoko 1. eta 2. maila) eta ikasgelaka mugatu dira.

10.492 ikasleko unibertsoari buruzko lagina zehazteko, 71 zentroren $N = 371$ kalkulatu da, % 95eko konfiantza-tartearekin, % 50eko heterogeneotasunarekin eta % 5eko errore-marjinarekin ($pq = 0,50$). Gure kasuan, guztira 1.641 galdetegi aplikatu dira 36 zentrotan. Horren ondorioz, eta hipotesirik kontrakoena kontuan izanda, aplikatutako laginaren marjina-errorea % 2,2koa da ($pq = 0,50$). Lortutako 1.641 galdetegi % 50,7 (832) Batxilergoko 1. mailakoak dira eta % 49,3 (809) Batxilergoko 2. mailakoak, % 27,7 (455) ikastetxe publikoetatik datoz eta % 72,3 (1.186) ikastetxe pribatuetatik.

2. TRESNA

Lortutako datuen analisi kuantitatiboaren prozedura eskala multzo bat diseinatu eta aplikatu ondoren egin da. Eskala multzo hori espresuki sortu zen, Gipuzkoan Batxilergoa egiten ari diren gazteen ikasketak aukatatzeko erabakian zer faktorek duten eragina identifikatzeko.

Oro har berria denez eta lehen aldiz aplikatu denez, egindako azterketak miaketa-izaera du. Azterlana amaitzen denetik aurrera, metodologikoki beste helburu batzuekin jokatu ahal izango da, berresteko eta aurreikusteko xedeetarako, antzeko testuinguruetako beste lagin batzuetan aplikatzeko.

Aplikazio-irizpideak

Izengabeko galdetegi bat diseinatu da grapatutako paperez egindako koaderno euskarrian, 18 orrikoa euskaraz eta 18 orrikoa gaztelaniaz, autotxostenaren modalitatean. 167 item edo adierazle izan ditu, 14 blokeko edo eskalako multzo batean, ikasle bakoitzaren erreferentziazko ikastetxeko ikasgelan betetzeko. Egoera bakoitzean, proiektuko kide den langileek eman dituzte galdetegiak. Ikerketa-taldeak langile horiek xede horietarako prestatu ditu, aplikazio-egoera guztietan erantzun homogeneousak eman ahal izateko. Talde/ikasgela naturalean aplikatu dira dagokion tutorearen aurrean. Galdetegia betetzeko, hasiera batean, 20 eta 30 minutu arteko denbora-tartea kalkulatu zen, baina ikasgela bakoitzean 60 minutuko denbora-tartea programatu zen, edozein motatako arazoren bat edo gorabeheraren izango balitz, inkesta igarotzen irakaslearen programazioari eragin gabe bideratu ahal izateko moduan.

Informazioa biltzeko prozesuak ez zekarrenez berekin izaera pertsonaleko identifikazio-datuak jasotzea, EHUKo Etika Batzordearen gomendioei kasu eginez, ikasgela/talde bakoitzeko tutorearen baimen-agiri bakarra jaso zen, aurrez hitzartutako irakasle-egutegian galdetegia pasatzeko.

Galdetegiaren egitura

Lehen orrialdean, azala jarri zen izenburuarekin eta EHUren logotipoarekin (beste logotiporik ez jartzea erabaki zen, azterlanaren izaerari eta helburuei buruzko nahasketarik ez izateko).

Bigarren orrialdean, galdetegia betetzeko jarraibideak eta konfidentziasunari eta anonimotasunari buruzko informazioa.

Eta hurrengo orrialdeetan, galdeketa-blokeak sartu ziren, hauen arabera:

1. BLOKEA. DATU SOZIODEMOGRAFIKOAK. 10 galdera, besteak beste, datu hauek biltzeko: inkesta zer datatan bete den, generoa, batxilergoko zer maila egiten ari den, galdetegia betetzen duenaren jaioterria (amarena eta aitarena ere bai) eta bizitokia..

2. BLOKEA. IKASKETA-OHITURAK ETA ORIENTAZIO OROKORRAK. Guztira 9 itemek informazioa jasotzen dute, besteak beste, egindako ikasketekin duten asebetetze-mailari, egindako prestakuntza oinarri hartuta bakoitzak duen enplegu-proiektuari, etxean ikastera eskainitako denbora-tarteari, eskolaz kanpoko jarduerari, noiz arte ikasteko duten itxaropenari, aurrez lotutako kalifikazioei eta lehenetsitako irakasgaii buruz.

3. BLOKEA. DATU SOZIOEKONOMIKOAK. Guztira 10 itemen bidez, informazio erlatiboa jasotzen da gurasoen prestakuntza eta lanbideari, etxean dauden liburu kopuruari, norberak etxean bere espazioa izateko aukerari, etxeko lanak egin ohi dituzten lekuari, etxean erabil ditzaketen baliabide teknologikoei (Internet, wifi, ordenagailua eta abar)... buruz.

4. BLOKEA. ZER ZEREGINEK EDO JARDUERA OKUPAZIONALEK DUTEN LEHENTASUNA. Hiru eskala jasotzen

ditu, guztira 11 galderarekin. Hauek identifikatzeko balio dute: (1) jarduera okupazional erakargarrienak; (2) jarduera okupazionalaren eta aukera edo gaitasun pertsonalen arteko egokitzapen-maila; (3) jarduera okupazional zehatz baten hautaketa edo aukera erreala. Hiru blokeetako bakoitzean, ikasle bakoitzak 11 jardueratatik lehentasunezko hiru aukeratu behar ditu, garrantzi-ordenaren arabera hierarkikoki baloratu-ta. Bloke hori diseinatzeko, RIASEC eredu erabili da erreferentzia gisa.

5. BLOKEA. NORK BERE BURUARI BURUZKO IRITZIA. Gertaldi-maiztasunaren arabera graduatutako erantzuneko Likert erako 22 itemek osatzen dute bloke hau. Shavelsonen ereduari jarraiki, galdetegia osatzen duten aldagaiak kalkulatzeko galdetegia erantzuten duten pertsonak, beren ustez, zenbateko trebetasuna duten zenbait alderditan, hala nola matematikan, teknologian, ahalegin-errendimenduan, proaktibitatean eta gizarte-gaitasunetan.

Interesak, motibazioak, jarrerak eta bokazioa aztertzeko, guztira 6 eskala berezitu aplikatu dira. Eskala horien helburua da irudi global bat eskaintzea, ikasketei nahiz lan-lehentasunei erreferentzia eginez. Hauekin lotuta IKASLE BAKOITZAK ZER INTERES, LEHENTASUN ETA JARRERA dituen ebaluatu da: lanpostuaren ezaugarriak (6. BLOKEA), ikasketak egiteko motibazioaren osagaiak (7. BLOKEA), egin beharreko ikasketei buruzko informazio-iturriak (8. BLOKEA), bokaziozko aukerei buruzko jarrera (bokaziozko nortasuna -9. BLOKEA-) eta LHko eta unibertsitateko iritzi orokorra (12. BLOKEA).

6. BLOKEA. INTERES PROFESIONALAK. LANPOSTUEN EZAUGARRIAK. 25 itemen bidez, ikasle bakoitzak lanpostuen zenbait kontu sozioekonomikori zer garrantzi ematen dion ebaluatzen da, hala nola karrera edo proiektu profesionala, soldata, enpresaren prestigioa, ordutegi-malgutasuna, lanaren gizarte-prestigioa, mugikortasuna, enpresaren konpromisoa ingurumenarekin, enpleguan egonkortasuna, ekiteko aukera eta enpresa sektore publikokoa edo pribatukoa izatea. Halaber, laneko giroari, gustuko lana izateari, ikasteko aukerei, sormenaren sustapenari, lanpostuan askotariko zereginak egiteari eta nagusien aitortzari buruzko kontu psikosozialak ere aintzat hartu dira.

7. BLOKEA. INTERES PROFESIONALAK. IKASKETAK EGITEKO MOTIBAZIOA. 13 itemen bidez, ikasle bakoitzak ikasketak egiteko motibazioaren osagaia azaltzen duten alderdiei zenbaterainoko garrantzia ematen dien ebaluatzen da. Alderdi horietako batzuk dira, besteak beste, aukera ditzakeen ikasketetan egin beharreko ahalegina eta iraupena, ikasketen eta ikastetxeen prestigioa, ikasketa horiekin lotutako diru-sarreraren inguruko itxaropena, ikasketak gustukoak izatea, familiarentzat ikasketek zer kostu ekonomiko izango duten, ikasketak egingo dituzten ikastetxearen gertutasuna, lagunek ikasketa berak egitea, mugikortasuna eta ikasketak bat etortzea aitak edo amak egindako ikasketekin.

8. BLOKEA. INTERES PROFESIONALAK. INFORMAZIO-ITURRIAK. Guztira 23 itemen bidez, ikasle bakoitzak batxilergoa amaitzean egin ditzakeen ikasketei buruzko informazio-iturriak nola aintzat hartzen dituen ebaluatzen da. Informazioa bilatzean autonomia eta ekimena izateari, gurasoen ikasketei eta irteera profesionali buruzko aholkularitzari, ikastetxeko irakasleen eta orientatzaileen zereginari, ate irekietako jardunaldiaren parte hartzeari (hitzaldiak, etab.), prestakuntza-ikastetxeetarako bisitei, lagunaren iritziei, profesionalen lekukotzari eta orientazio-ekintzetara bertaratzeari buruzko galderak egiten dira.

9. BLOKEA. INTERES PROFESIONALAK. BOKAZIOZKO NORTASUNA. 15 item erabiltzen dira, ikasle bakoitzak lanarekin lotuta bokaziozko aukerei dagokienez zer jarrera duen balioesteko. Ikasle bakoitzak alderdi hauekiko zer jarrera duen galdetzen da: zer ikasketa egitea pentsatzen duen eta zer lan nahi duen erabaki duen, nahi den lana lortu behar izateko urratsak zein diren ba ote dakien eta lan hori zenbateraino ezagutzen duen (beharrezko gaitasunak), ba al dakien zer lan eta ikasketa egokitzen diren ondoen bere ezaugarri pertsonaletara edo ikasketak amaitzean lan-munduratzeko zenbateraino kezkatzen duen.

10. BLOKEA. UNIBERTSITATEKO IKASKETEI BURUZKO IRITZIA. Azken erabakia gorabehera, unibertsitatera joateko kasu hipotetikoan, ikasle bakoitzari hauen inguruan zer berariazko jarrera duten galdetzen zaie: (1) zer ikasi nahiko luketen, (2) zer egokitzen den ondoen beren gaitasunekin eta aukerekin eta (3) zer lagunduko liokeen lan on bat lortzen. 6 ezagutza-esparrutan egiten da hautaketa: Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak, Zientziak eta Ikasketa Teknikoak, Osasunaren Zientziak, Ingurumenari buruzko Ikasketak (nekezarritza eta arrantza barne), Hezkuntzaren Zientziak eta Artea-Giza Zientziak.

11. BLOKEA. LANBIDE HEZIKETARI BURUZKO IRITZIA. 10. blokean bezala, azken erabakia gorabehera, Lanbide Heziketa egiteko kasu hipotetikoan, ikasle bakoitzari hauen inguruan zer berariazko jarrera duten galdetzen zaie: (1) zer ikasi nahiko luketen, (2) zer egokitzen den ondoen beren gaitasunekin eta aukerekin eta (3) zer lagunduko liokeen lan on bat lortzen. Kasu honetan, hautaketa 8 familia profesionaletan egiten da, hainbat adibidez lagunduta: (1) Fabrikazio mekanikoa, Metal eraikuntza, Mekatronika, Automatismoak, Robotika, Zenbakizko kontrola; (2) Elektrizitatea eta elektronika; (3) Eraikuntza, Obra zibila eta eraikuntza, Instalazioa eta mantentzea, Energia eta ura; (4) Elikagaien industria, Kimika, Erauzketaren industriak; (5) Administrazioa eta kudeaketa; Merkataritza eta marketina, Kalitatea eta berrikuntza; (6) Zerbitzu sozio-sanitarioak, Gizarte- eta kultur zerbitzuak, Ostalaritza eta turismoa, Irudi pertsonala, Komunitateari zerbitzuak, Jarduera fisikoak eta kirolak; (7) Arte grafikoak, Informatika, Artisautza, Irudia eta soinua, Beira eta zeramika; eta (8) Nekazaritza eta abeltzaintza; Itsasoa eta arrantza, Zurgintza, altzarigintza eta kortxoak.

12. BLOKEA. INTERES PROFESIONALAK. LANBIDE HEZIKETAKO ETA UNIBERTSITATEKO IKASKETEI BURUZKO IRITZIA. 20 itemen bidez, ikasle bakoitzak unibertsitateko eta Lanbide Heziketako ikasketei buruz zer jarrera orokor duen balioesten da. Bi aukeretan (Unibertsitatea eta LH) beren gustuko ikasketarik dagoen galdetzen zaie, bi aukeren prestigioari, gizarte-aitorpenari eta estatusari buruz, bi aukeren orientazio praktikoteko-rikoari buruz (teknikoa, intelektuala eta pentsamendu kritikoa aintzat hartuz), familiaren iritziari buruz, estereotipo sozio-teknikoei buruz (adibidez, LH bideratuago dago industriara), bi kasuen zailtasun-mailari buruz edo bakoitzak zenbaterainoko ekarpena egin diezaiokeen garapen pertsonalari.

13. BLOKEA. ENPLEGUAREN ZENTRALITASUNA ETA GARRANTZIA Graduatutako erantzuneko 11 itemen bidez, ikasle bakoitzak prestakuntza-aukerak burutzeko garaian enpleguak zenbaterainoko zentraltasuna eta garrantzia duen kalkulatzeko da. 11 itemak bakoitzari esleitzen dioten garrantzi-graduaren arabera ordenatzeko eskatzen zaio ikasle bakoitzari. Itemek hauek aipatzen dituzte: ikasle bakoitzak gogoko duena ikasi ahal izatea, ahalik eta denbora gehienaz ikasten aritzea, nahi duen lanbidea izateko aukera izatea, lan-merkatura azkar sartzea, enplegu bat eskuratzeko aukera gehiago izatea, soldata ona izatea, familia-etxetik independizatzeko, gizarteari ekarpena egitea, aisialdia, kirola egitea eta gizartearen aitorpena. Bloke hori bi galderen bidez osatzen da: bata, zuzenean aztertzen du ikasle bakoitzaren ustez zer bideren bidez lortzen den azkarren enplegua (unibertsitatea edo LH); besteak, ikasle bakoitzari gizarteak gehien eskatzen duen edo gehien behar duen horren inguruan zer iritzi duen galdetzen dio (unibertsitatea edo LH).

14. BLOKEA. ERABAKIA HARTZEA. Azken multzo honetan, 4 itemen bidez Batxilergoa amaitzean jarraitu beharreko ikasketei buruz erabakia hartzeko prozesuaren egoerari buruzko informazioa jasotzen da. Inkesta betetzean zer erabaki hartzen duten kontuan galdetzen zaie, ba al dakiten zer gutxieneko nota behar duten nahi dutena ikasteko. Halaber, aztertzen da zer ikasketa egin erabakitzekeko presiorik duten edo ez eta erabakian zer eragilek eragiten duten gehien aztertzen da.

3. FIDAGARRITASUNA ETA BALIOZKOTASUNA

Aurkeztutako emaitzen interpretazioa, batez ere, deskribatzailea da. Zenbait formaturen eta erantzun multzoren bidez, biztanleria zehatz bati buruzko informazioa (kasu honetan iritziak) biltzen da, eta planteatutako item edo gai bakoitzaren emaitza deskribatzaileak aurkezten. 1. (datu sozio-demografikoak), 2. (ikasketa ohiturak eta orientazio orokorrak) eta 3. (datu sozioekonomikoak) blokeen kasua da hori, besteak beste.

4. (zer zereginetik edo jarduera okupazionalak duten lehentasuna) eta 11. (Lanbide Heziketari buruzko iritzia) blokeetan erantzun graduatua subjektuaren errealitatearekin ondoen bat etortzen diren itemak hautatuz eta besteak baztertuz lortzen da. Horren ondorioz, inkesta-formatuan emaitzak interpretatzeko moduaren antzeko interpretazioa egiten da bloke horietan ere. Beraz, galdetzen zaizkien gaiei buruzko datu deskribatzaileak jasotzen dira biztanleriarengandik.

14. blokearen kasuan (erabakiak hartzea) antzeko zerbaite gertatuko litzateke. Zenbait item konbinazio ematen da. Alde batetik, kasu batean erantzun-aukera politomikoa dago (164. itema) eta bestean dikotomikoa (165); beste kasu batean aukera anitzeko erantzuna eskaintzen da (166. itema); eta azkenik, beste kasu batean (167. itema), erantzuna graduatua da, subjektuaren errealitatearekin ondoen bat datozen itemak hautatu behar dira eta besteak, baztertu. Hala, 14. blokean, orain arte iruzkindutakoetan bezala, biztanleriaren datu deskribatzaileak lortzen dira.

Beraz, 1., 2., 3., 4., 10., 11. eta 14. blokeen kasuan, eskala bakoitzeko itemei dagozkien datu deskribatzaileak aurkezten dira.

Hala ere, 5. (nork bere buruari buruzko iritzia), 6. (interes profesionalak; lanpostuen ezaugarriak), 7. (interes profesionalak; ikasketak egiteko motibazioa), 8. (interes profesionalak; informazio-iturriak), 9. (interes profesionalak; bokaziozko nortasuna) eta 12. (interes profesionalak; Lanbide Heziketako eta Unibertsitateko ikasketei buruzko iritzia) blokeak sortzeko, aurreikusi da eskala bakoitzean zenbait alderdi psikosozial sartuta egon daitezkeela. Horregatik, egokia izan da bakoitzaren azterketa psikometrikoko bat egitea fidagarritasun- eta baliozkotasun-proben bidez.

Likert erako eskala erabili da bloke horietan, eta item bakoitzak bost erantzun-aukera izan ditu. Aukera horiek planteatutako gaien garrantzi-maila, maiztasuna edo adostasun-maila jasotzen dute, kasuan kasu. Horrez gainera, bloke horiei dagozkien eskalak espresuki proiektu honetarako sortu dira, bai bibliografia berraztertzeagatik, bai zeuden eskalak egokitzeagatik, bai proiektuaren helburuei egokitutako eskalak sortzeko beharagatik. Beraz, 5., 6., 7., 9. eta 12. blokeetako eskaletan edo galdetegiaren proba psikometrikoko aplikatu dira, beren fidagarritasuna (barne-trinkotasuna) eta baliozkotasuna (barnekoa) aztertzeko. Horretarako, eskalak osorik erantzun diren kasuak soilik erabili dira, eta analisi mota bakoitzerako osorik bete gabekoak baztertu.

Tresna gaztelaniaz eta euskaraz eskaini denez (% 70,1ek galdetegia euskaraz bete zuen; eta % 29,9k, gaztelaniaz), tresna desberdintzat jo dira. Beraz, beharrezkoa izan da bi hizkuntzetako bakoitzerako fidagarritasun- eta baliozkotasun-proba berezituak egitea.

Tresnaren bidez lortutako datuei zer **fidagarritasun** ematen zaien aztertzen da, lortutako neurrien barne-trinkotasuna eta zehaztasuna kalkulatzeko, bai eta zenbaterainoko **barne-baliozkotasuna** ematen zaien (hau da, tresnak neurtu nahi duena neurtzen dela) ere. Halaber, **miaketarako azterketa faktorialaren**¹ (tauletan MAF) ereduari dagozkion emaitzak ere aurkezten dira. Proiektuan fase hori ere bete da.

¹ Aldagai kopuru handi samarraren barne-egitura aurkitzea helburu duen teknika. Horretarako, beraien arteko konbinazio linealen bidez laburtzen ditu, behatu gabeko eta faktore izeneko aldagai kopuru txikiago bat adierazteko. Faktoreen kargak faktoreek aldagaiekin zer lotura duten irudipena egiteko erabiltzen dira.

Fidagarritasuna aztertzeko, barne-trinkotasuna aztertu da. Horretarako, elementuen arteko korrelazioa lortzen da, itemek (Likert erako eskalak) konstruktua bera neurtzen dutela onartuz elkarri oso lotuta egonda, Cronbachen alfa² (α) koefizienteen bidez (Lacave et al, 2015). Taula honetan ikus daitekeen bezala, kasu guztietan, aztertutako eskala batean izan ezik (12. blokea), Cronbachen alda 0,70en gainetik dago (denak 0,70 / 0,89 tartean), fidagarritasun-indize guztiak onargarritzat/ontzat joz. Literaturan aholkatzen den bezala, aurkeztutako Cronbachen alfa koefizienteak koefiziente horri balioa kentzen dioten item horiek kentzearen emaitza dira.

Barne-baliozkotasunaren azterketari dagokionez, miaketarako azterketa faktoriala aplikatzen da. Osagai nagusien estrakzio-metodoa erabili da. Estrakzio-metodo horrek onartzen du hautemandako bariantzaren % 100 azal daitekeela, eta horrenbestez, hasierako komunalitate guztiak unitatearen (erreferentzia gisa, hain justu, puntuazio tipikoetan azaldutako aldagai baten bariantza da) berdinak direla. Miaketarako azterketa faktoriala aplikatzeko, KMO lagin-egokitzapeneko batezbestekoei dagokienez (0,7tik gorako batezbestekoekin bete da irizpide hori), aplikazio-baldintzak betetzen dira, eta Bartletten esferikotasun-proba ere ondo atera zen. Halaber, item multzoaren normaltasun- eta linealtasun-baldintzak betetzen dira. Azkenik, adierazi behar da Varima errotaio-metodoa (Kaiser, 1958) erabili dela, errotaio ortogonalak inplikatzeko duena, emaitzazko alderdien interpretazioa hobetze aldera. Hori guztia itemak aurreikusitako alderdietan multzokatzen diren eta alderdi horiek eskala honetako item guztiek emandako emaitzak azaltzen dituzten egiaztatze egin da.

Bi probetako balioek berretsi zuten azterketa faktoriala egokia zela. Estrakzioa egitean, faktore kopuru finko batentzat aplikatu ordez, 1 baino auto-balio handiagoko guztientzat aplikatu zen, eta hala, faktore bakoitzerako bariantza azalduaren portzentajea (b.a.p.) lortzen da.

Azpimarratu behar da egiten duguna bezalako azterketa faktorialaren bidezko fidagarritasun- eta baliozkotasun-emaitzak baliagarriak direla, beste lagin batekin eta beste une batean, tresna berresteko azterketa faktorial bat egiteko, eta horren ondorioz, tresna hobetzeko.

Fidagarritasunaren (Cronbach) eta baliozkotasunaren (bariantza azaldua) estatistika-datuak

Blokea	EDUKIA	HIZKUNTZA	N	n	FIDAGARRITASUNA		BALIOZKOTASUNA	
					α CRONBACH		Alderdia	Bariantza azaldua
5	Nork bere buruari buruzko iritzia Proaktibitatea Gaitasunak	Euskera	1.119	22	18	0,788	5	67,70%
		Gaztelania	474	22	18	0,845	5	71,44%
6	Interes profesio- nalak, lanpostua- ren ezaugarriak	Euskera	1.073	25	24	0,829	6	51,80%
		Gaztelania	450	25	25	0,850	7	58,32%
7	Interes profesio- nalak, ikasketak egiteko motiba- zioa	Euskera	1.122	13	9	0,774	3	63,63%
		Gaztelania	479	13	10	0,744	3	58,85%
8	Interes profesio- nalak, informa- zio-iturriak	Euskera	996	23	21	0,771	6	59,50%
		Gaztelania	451	23	21	0,796	6	61,83%
9	Interes profesio- nalak, bokaziozko nortasuna	Euskera	1.116	15	10	0,888	2	62,20%
		Gaztelania	473	15	10	0,891	1	51,54%
12	Interes profesio- nalak, ikasketei buruzko iritzia	Euskera	1.082	20	11	0,733	3	49,58%
		Gaztelania	455	20	20	0,258	---	-----

Blokeen, edukien eta eskalen estatistika-datuak

Blokea	Edukia	Hizkuntza	N	Itemak	Batezbestekoa Eskala	Batezbestekoa itema	Eskala
5	Nork bere buruari buruzko iritzia, <u>Proaktibitatea</u> , Gaitasunak	Euskara	1.119	18	63,54	3,53	1 – 5
		Gaztelania	474	19	70,20	3,69	1 – 5
6	Interes profesionalak, lanpostuaren ezaugarriak	Euskara	1.073	24	88,35	3,68	1 – 5
		Gaztelania	450	25	92,36	3,69	1 – 5
7	Interes profesionalak, ikasketak egiteko motibazioa	Euskara	1.122	9	23,10	2,56	1 – 5
		Gaztelania	479	10	26,72	2,67	1 – 5
8	Interes profesionalak, informazio-iturriak	Euskara	996	22	64,17	2,91	1 – 5
		Gaztelania	451	21	62,89	2,99	1 – 5
9	Interes profesionalak, bokaziozko nortasuna	Euskara	1.116	10	35,03	3,50	1 – 5
		Gaztelania	473	10	36,83	3,68	1 – 5
12	Interes profesionalak, ikasketei buruzko iritzia	Euskara	1.082	11	30,71	2,79	1 – 5
		Gaztelania	455	20	65,66	3,28	1 – 5

2 Eskala osatzen duten aldagaien (edo itemen) arteko korrelazioen batezbesteko haztatu bat da, eta bi modu baliokidetan kalkula daiteke: bariantzak oinarri hartuta (Cronbachen alfa) edo itemen korrelazioak oinarri hartuta (Conbachen Alpha estandarizatu).

Orain, 5. (nork bere buruari buruzko iritzia), 6. (interes profesionalak; lanpostuen ezaugarriak), 7. (interes profesionalak; ikasketak egiteko motibazioa), 8. (interes profesionalak; informazio-iturriak), 9. (interes profesionalak; bokaziozko nortasuna) eta 12. (interes profesionalak; Lanbide Heziketako eta Unibertsitateko ikasketei buruzko iritzia) blokeen fidagarritasunari eta baliozkotasunari buruzko emaitzak aurkeztuko ditugu.

Edonola ere, hizkuntza-bertsio bakoitzean fidagarritasuna eta baliozkotasuna aztertzeko erabili diren baleko galdetegi kopuruaren (hau da, osorik betetakoak) berri ematen du N-ek. Adibidez, 5. blokean, galdetegia euskaraz erantzun zutenen % 97 da N= 1.150. Izan ere, azterketa egiteko % 3 (35 kasu) baztertu egin zen, aztertu beharreko aldagaiak ez zeudelako osorik beteta.

5. BLOKEA. NORK BERE BURUARI BURUZKO IRITZIA. Fidagarritasunaren eta baliozkotasunaren azterketa..

MAF - Miaketarako azterketa faktoriala

	N (euskara) = 1.115 (% 97)		N (gaztelania) = 474 (% 96,5)	
	Hasierakoa	MAF	Hasierakoa	MAF
Item kopurua	22	18	22	18
α (<i>crombach</i>)	0.795	0.788	0.823	0.845
Bariantza azalduaren portzentajea (<i>b.a.p.</i>)	% 66,7	% 67,73	-	% 71,4

Miaketarako emaitza (MAF) hartuz, eskala bere itemekin dimentsioen arabera konfiguratzeko izango litzateke hurrengoa (aldagaien izena behin-behinekoa da, miaketarako azterketaren emaitza baitira):

Euskara taldea			Gaztelania taldea		
Dimentsioa	Itemak (18)	<i>b.a.p.</i>	Dimentsioa	Itemak (18)	<i>b.a.p.</i>
1. Gaitasun teknologikoa	33, 40, 41, 42	% 23,7	1. Ahalegina	32, 34, 35, 38, 50, 51,	% 28,9
2. Ahalegina	32, 38, 34, 50, 51	% 17,4	2. Gaitasun teknologikoa	33, 40, 41, 42	% 16,5
3. Matematikarako gaitasuna	31, 36, 38, 39	% 11,7	3. Matematikarako gaitasuna	31, 35, 36, 37, 39,	% 10,8
4. Proaktibitatea	46, 47, 48, 49,	% 8,9	4. Proaktibitatea	47, 48, 49,	% 9,3
5. Gaitasun soziala	43, 44, 48	% 6,1	5. Gaitasun soziala	37, 35, 43	% 6

Gaztelaniazko bertsioan, 35. eta 37. itemek (azpimarratutako itemek aldagai batean baino gehiagoan dute pisua; irizpide orokor gisa, printzipioz, joera pisu handiena duten aldagaien mantentzea izan da) hiru aldagaitan egokitze aukera ematen dute (ahalegina, matematikarako gaitasuna eta gaitasun soziala). Antzeko zerbait gertatzen da 38. eta 48. itemetan euskarazko bertsioan.

Bi bertsiotan, ahalegina, gaitasun teknologikoa eta matematikarako gaitasuna aldagaiak dira trinkoenak eta, eta zenbat itemez osatuta dauden (gutxienez 4) kontuan hartuta, hasiera batean, nork bere buruari buruzko iritzia konstruktua ondoen azalduko lukete. Hipotesi hori aintzat izanda, beste lagin batean lanean jarrai daiteke, tresnaren azterketa faktorialaren berrezpen-fase batean. Beharrezkoa izango litzateke dagokion kontrastea egitea literatura zientifikoarekin.

6. BLOKEA. INTERES PROFESIONALAK. LANPOSTUEN EZAUGARRIAK. Fidagarritasunaren eta baliozkotasunaren azterketa.

MAF - Miaketarako azterketa faktoriala

	N (euskara) = 1.069 (% 93)		N (gaztelania) = 450 (% 91,6)	
	Hasierakoa	MAF	Hasierakoa	MAF
Item kopurua	25	24	25	25
α (<i>crombach</i>)	0.828	0.829	0.854	0.854
Bariantza azalduaren portzentajea (<i>b.a.p.</i>)	-	51,8%	-	58,3%

Miaketarako emaitza (MAF) hartuz, eskala bere itemekin dimentsioen arabera konfiguratzeko izango litzateke hurrengoa (aldagaien izena behin-behinekoa da, miaketarako azterketaren emaitza baitira):

Euskara taldea			Gaztelania taldea		
Dimentsioa	Itemak (24)	<i>b.a.p.</i>	Dimentsioa	Itemak (25)	<i>b.a.p.</i>
1. Nork bere burua aberastea	63, 66, 72, 73, 74, 75	% 20,7	1. Karrera profesionala	53, 54, 55, 56, 57, 58, 69, 72, 76	% 23,8
2. Karrera profesionala	53, 54, 55, 57, 58, 72, 76	% 10, 1	2. Nork bere burua aberastea	53, 62, 63, 66, 71, 72, 75, 76	% 20,7
3. Mugikortasuna / Bateratzea	58, 65, 67, 68, 69, 70, 76, 77	% 6,8	3. Gizarte-erantzukizuna	59, 63, 73, 74, 75	% 7.1
4. Zehaztu gabea	61, 64, 66, 68, 69	% 5,4	4. Mugikortasuna / Bateratzea I	58, 65, 67, 69, 77	% 5,5
5. Zehaztu gabea	58, 59, 60, 70	% 4,6	5. Mugikortasuna / Bateratzea II	64, 68, 70	% 5,1
6. Zehaztu gabea	61, 71, 77	% 4,2	6. Gizarte-estatusa	58, 59, 60, 70	% 4,5
			7. Zehaztu gabea	53, 55, 61	% 4,1

Irizpide orokor gisa, dimentsio batean baino gehiagoan pisua duten azpimarratutako itemak pisu handiena duten horretan mantentzen dira. Euskarazko bertsioan, itemen pisua orekatu ondoren, trinkotasun handiagoko hiru dimentsio agertuko lirateke (19 itemeko eskala bat gera daiteke), eta dimentsio horiek lanpostuen ezaugarriekin lotutako interes profesionalak azal ditzakete: nork bere burua aberastea, karrera profesionala eta mugikortasuna-bateratzea. Gaztelaniazko bertsioan, euskarazko bertsioko hiru dimentsioei eutsiko litzaieke, itemetan aldaketak eginez (eskala guztira 17 itemekin gera daiteke), eta azaleratzen ari diren beste bi gehituko litzaizkieke: mugikortasuna-bateratzea (I eta II) eta gizarte-estatusa. 5. blokean bezala, hipotesi hori aintzat hartuta, beste lagin batean lanean jarrai daiteke, tresnaren azterketa faktorialaren berrespen-fase batean. Horretarako, beharrezkoa izango da dagokion kontrastea egitea literatura zientifikoan.

7. BLOKEA. INTERES PROFESIONALAK. IKASKETAK EGITEKO MOTIBAZIOA. Fidagarritasunaren eta baliozkotasunaren azterketa.

MAF - Miaketarako azterketa faktoriala

	N (euskara) = 1.115 (% 97)		N (gaztelania) = 474 (% 96,5)	
	Hasierakoa	MAF	Hasierakoa	MAF
Item kopurua	13	9	13	10
α (<i>crombach</i>)	0.707	0.774	0.708	0.744
Bariantza azalduaren portzentajea (<i>b.a.p.</i>)	-	% 63,6	-	% 58,9



Miaketarako emaitza (MAF) hartuz, eskala bere itemekin dimentsioen arabera konfiguratzea izango litzateke hurrengoa (aldagaien izena behin-behinekoa da, miaketarako azterketaren emaitza baitira):

Euskara taldea			Gaztelania taldea		
Dimentsioa	Itemak (9)	b.a.p.	Dimentsioa	Itemak (10)	b.a.p.
1. Prestigioa / estatusa	81, 82, 83, 86	% 36,1	1. Prestigioa / estatusa	81, 82, 83, 86	% 31,2
2. Eraginkortasuna / ahalegina	78, 81, 86, 88, 89, 90	% 16	2. Eraginkortasuna / ahalegina	78, 88, 89, 90	% 16,9
3. Kidetasuna	84, 86, 89	% 12	3. Prestigioa / estatusa (II) / kidetasuna	82, 83, 84, 85, 89	% 10,8

Euskarazko bertsioan, itemen pisua orekatu ondoren, trinkotasun handiagoko hiru dimentsio agertuko lirateke (eskala 9 itemekoa izango litzateke), eta dimentsio horiek interes profesionalak azal ditzakete ikasketak egiteko motibazioarekin lotuta: prestigioa / estatusa, eraginkortasuna / ahalegina eta kidetasuna. Gaztelaniazko bertsioan, euskarazko bertsioa hiru dimentsioei eutsiko litzaieke, itemetan aldaketak eginez (eskala guztira 10 itemekin gera daiteke). Aurreko kasuetan bezala, hipotesi hori aintzat hartuta, beste lagin batean lanean jarrai daiteke, tresnaren azterketa faktorialaren berrespen-fase batean. Horretarako, beharrezkoa izango da dagokion kontrastea egitea literatura zientifikoan.

8. BLOKEA. INTERES PROFESIONALAK. INFORMAZIO ITURRIAK . Fidagarritasunaren eta baliozkotasunaren azterketa.

MAF - Miaketarako azterketa faktoriala

	N (euskara) = 985 (% 85,7)		N (gaztelania) = 474 (% 96,5)	
	Hasierakoa	MAF	Hasierakoa	MAF
Item kopurua	23	21	23	21
α (crombach)	0.770	0.771	0.781	0.796
Bariantza azalduaren portzentajea (b.a.p.)	-	% 59,5	-	% 61,8

Miaketarako emaitza (MAF) hartuz, eskala bere itemekin dimentsioen arabera konfiguratzea izango litzateke hurrengoa (aldagaien izena behin-behinekoa da, miaketarako azterketaren emaitza baitira):

Euskara taldea			Gaztelania taldea		
Dimentsioa	Itemak (21)	b.a.p.	Dimentsioa	Itemak (21)	b.a.p.
1. Gurasoak	92, 93, 94, 95	% 18,5	1. Zuzeneko lekukotzak	99, 103, 104, 105, 106, 108	% 20,1
2. Ekimena, kezka, proaktibitatea	91, 98, 99, 108, 112, 113	% 12,1	2. Gurasoak	92, 93, 94, 95	% 12,9
3. Ikastetxea	97, 102, 111	% 9,9	3. Ikastetxea	97, 99, 102, 111, 113	% 10,3
4. Lagunak	96, 101, 109, 110, 112	% 7,2	4. Lagunak	101, 109, 110	% 7
5. Zuzeneko lekukotzak	103, 104, 105, 108	% 6,9	5. Ekimena, kezka, proaktibitatea	91, 99, 100, 112	% 6,3
6. Xede-ikastetxeak	100, 104	4,9	6. Xede-ikastetxeak	98, 100, 104, 113	5,3

Euskarazko bertsioan, itemen pisua orekatu ondoren, trinkotasun handiagoko sei dimentsio agertuko lirateke (21 itemeko eskala bat gera daiteke), eta dimentsio horiek iturrien eraginarekin lotutako interes profesionalak azal ditzakete: gurasoak, ekimena/kezka/proaktibitatea, ikastetxeak, lagunak, zuzeneko lekukotzak eta xede-ikastetxeak. Gaztelaniazko bertsioan, euskarazko bertsioa sei dimentsio berei eutsiko litzaieke, antzeko egiturarekin eta itemetan aldaketak eginez (eskala guztira 21 itemekin gera daiteke). Aurreko kasuetan bezala, hipotesi hori aintzat hartuta, beste lagin batean lanean jarrai daiteke, tresnaren azterketa faktorialaren berrespen-fase batean. Horretarako, beharrezkoa izango da dagokion kontrastea egitea literatura zientifikoan.

9. BLOKEA. INTERES PROFESIONALAK. BOKAZIOZKO NORTASUNA. Fidagarritasunaren eta baliozkotasunaren azterketa..

MAF - Miaketarako azterketa faktoriala

	N (euskara) = 1.105 (% 96,1)		N (gaztelania) = 467 (% 94,7)	
	Hasierakoa	MAF	Hasierakoa	MAF
Item kopurua	15	10	15	10
α (crombach)	0.807	0.888	0.787	0.891
Bariantza azalduaren portzentajea (b.a.p.)	-	62,2%	-	51,5%

Euskara taldea			Gaztelania taldea		
Dimentsioa	Itemak (10)	b.a.p.	Dimentsioa	Itemak (10)	b.a.p.
1. Prestakuntza-aukeraren argitasuna	114, 115, 116, 118, 119, 120, 122, 123	% 52,2	1. Prestakuntza-aukeraren argitasuna	114, 115, 116, 117, 118, 119, 120, 121, 122, 123	% 56,5
2. Ikasketak-lana bat etortzea	119, 123, 124	% 10,1			

Euskarazko bertsioan, itemen pisua orekatu ondoren, bi dimentsio agertuko lirateke eta horietako batak trinkotasun handiagoa izango luke (10 itemeko eskala bat gera daiteke). Dimentsio horiek prestakuntza-aukeraren argitasunarekin (bokaziozko nortasuna) lotutako interes profesionalak azal ditzakete: ikasketa-aukeraren argitasuna eta ikasketak-lana bat etortzea. Gaztelaniazko bertsioan, eskalak dimentsio bakarrekoa izaten jarraituko luke prestakuntza-aukeraren argitasuna dimentsioa ardatz hartuta (eskalak guztira 9 item izan ditzake). Aurreko kasuetan bezala, hipotesi hori aintzat hartuta, beste lagin batean lanean jarrai daiteke, tresnaren azterketa faktorialaren berrespen-fase batean. Horretarako, beharrezkoa izango da dagokion kontrastea egitea literatura zientifikoan.

12. BLOKEA. INTERES PROFESIONALAK. LANBIDE HEZIKETAKO ETA UNIBERTSITATEKO IKASKETEI BURUZKO IRITZIA. Fidagarritasunaren eta baliozkotasunaren azterketa.

MAF - Miaketarako azterketa faktoriala

	N (euskara) = 1.057 (% 91,9)		N (gaztelania) = 455 (% 92,7)	
	Hasierakoa	MAF	Hasierakoa	MAF
Item kopurua	20	11	20	-
α (crombach)	0.650	0.733	0.258	-
Bariantza azalduaren portzentajea (b.a.p.)	-	49,6%	-	-

Euskara taldea		
Dimentsioa	Itemak (11)	b.a.p.
1. LHri buruzko gizarte-estereotipoa (I)	133, 137, 139, 145, 146, 150	28,8%
2. LHri buruzko gizarte-estereotipoa (II)	133, 134, 138, 139, 144, 150	11,7%
3. Zehaztu gabea	147, 149	9,2%

Euskarazko bertsioan, itemen pisua orekatu ondoren, hiru dimentsio agertuko lirateke eta horietako batek trinkotasun handiagoa izango luke (egiaz, bakar batera laburtu daiteke, eta 11 itemeko eskala izan). Di-mentsio horrek LHko eta unibertsitateko ikasketei buruzko iritzia azalduko luke, estereotipoak oinarri har-
tuta: prestakuntza-aukeraren argitasuna eta ikasketak-lana bat etortzea. Gaztelaniazko bertsioan, ordea, fidagarritasun-indizea baxua denez, ezin da miaketa faktorialarekin jarraitu. Horren ondorioz, 12. blokea (gutxienez gaztelaniazko bertsioan) maila faktorialeko miaketa-prozesutik at geratuko litzateke. Beraz, da-
gokion eskala berriz diseinatu beharko litzateke. Emaidza horrek azalpen hauek izan ditzake: (1) 12. blokea galdetegiaren amaieran dago eta (2) nahiko luzea da (20 item). Horregatik, nekearen eragina agertzen da. Horrez gainera, 10. eta 11. blokeetan (hain justu bi aurrekoetan) bereizita galdetzen zaie LHri eta unibertsit-
ateari buruzko iritzia graduatutako erantzuneko eskaletan, eta erredundantzia eta errepikapena hauteman dezakete.

Lehen esan dugun bezala, hipotesi hori aintzat hartuta, beste lagin batean lanean jarrai daiteke, tresnaren azterketa faktorialaren berrespen-fase batean. Horretarako, beharrezkoa izango da dagokion kontrastea egitea literatura zientifikoan.

II. ERANSKINA: IKASTETXEEI EGINDAKO INKESTA

Atal honetan, modu sintetikoan aurkezten ditugu galdetegiak aplikatu dituzten ikastetxeetako ezaugarri nagusiak. Horretarako, ikastetxeei galdetegi zehatz bat bidali zitzaien batxilergoko ikasleek emandako informazioa osatzeko.

Hauek dira ikastetxe parte-hartzaileei egindako inkestaren ezaugarri nagusiak:

Ikastetxe parte-hartzaileei egindako inkestaren ezaugarriak

Galdetegia pasatu zaien ikastetxe kopurua:	36
Galdetegia bete duten ikastetxe kopurua:	20
Ikastetxeen antzinatasuna :	5 ikastetxe < 50 urte 7 ikastetxe > 50 urte 8k ez dute erantzun
Ikastetxearen modalitatea :	Publikoak: 6 Pribatuak: 14
Hizkuntza-eredua :	A: 1 B: 1 D: 16 B eta D: 1 A, B eta D: 1
Batxilergoko 1. mailan dauden ikasleak :	Ikasleak (neskak): 19 / Errepikatzaileak: 7 Ikasleak (mutilak): 18 / Errepikatzaileak: 8
Batxilergoko 2. mailan dauden ikasleak :	Ikasleak (neskak): 19 / Errepikatzaileak: 8 Ikasleak (mutilak): 18 / Errepikatzaileak: 9
Batxilergoko irakasleak :	Irakasleak (neskak): 19 Irakasleak (mutilak): 18
Ikastetxeak eskainitako batxilergoko modalitateak : 1.Zientifiko-Teknologikoa, <u>Biosanitarioa</u> 2.Gizarte Zientziak 3.Giza Zientziak-Letrak 4.Artistikoa	14 ikastetxetan 1, 2 eta 3 eskaintzen dute. 1 ikastetxetan 1, 2 eta 4 eskaintzen dute. 3 ikastetxetan 1 eta 2 eskaintzen dute. 2 ikastetxetan 1, 2, 3 eta 4 eskaintzen dute.
Ikastetxeak hezkuntza-eskaintza hau du: 1. Haur Hezkuntza 2. Lehen Hezkuntza 3. DBH 4. Batxilergoa 5. Erdi Mailako LH ¹ 6. Goi Mailako LH ² 7. Besteak (eskolaurrea, Lanbide Hastapena) ³	7 ikastetxetan 3 eta 4 eskaintzen dute. 10 ikastetxetan 1, 2, 3 eta 4 eskaintzen dute. 1 ikastetxetan 2, 3 eta 4 eskaintzen dute. 1 ikastetxetan 4, 5 eta 6 eskaintzen dute. 3 ikastetxetan 7 eskaintzen dute. Ikastetxe batek ez du erantzun

(1) Erizain Laguntzailea
(2) Administrazioa eta Finantzak; Marketina eta Publizitatea; Gizarteratzea
(3) Eskolaurrea; 2 urtekoen gela; Eskolaurrea 0-2 urte

Irakasleen kontratu motak

	KOP.	%
EGONKORRA	16	35,6
BITARTEKOA	11	24,4
ORDEZKAPENA	8	17,8
ALDI BATEKOA	10	22,2
GUZTIRA	45	100,0

Irakasleen eguneratzea eta etengabeko prestakuntza arlo hauetan: Hizkuntzak, Teknologia, Hobekuntza Didaktikoa, Elkarbizitza/Berdintasuna/Integrazioa

	Ikastetxeak	%
TEKNOLOGIA	1	5
TEKNOLOGIA ETA HOBEKUNTZA DIDAKTIKOA	1	5
HOBEKUNTZA DIDAKTIKOA eta ELKARBIZITZA/BERDINTASUNA/INTEGRAZIOA	1	5
TEKNOLOGIA eta ELKARBIZITZA/BERDINTASUNA/INTEGRAZIOA	1	5
ARLO GUZTIAK	16	80
Guztira	20	100

Irakasleak eguneratzera eta etengabeko prestakuntzara bideratzea(*)

	KOP.	%
BAXUA	1	5
ERTAINA	4	20
ALTUA	9	45
OSO ALTUA	6	30
Guztira	20	100

(*) Ikastetxeko arduradunak erantzun du, ikastetxea orotara hartuta erantzunez

Ikastetxeek dituzten baliabideak

	Galdutakoak			
	KOP.	%	KOP.	%
ORDENAGAILU ARETOAK	19	95	1	5
POSTA ELEKTRONIKOA – IKASLEAK	19	95	1	5
ZIENTZIA LABORATEGIA	18	90	2	10
LIBURUTEGIA / MEDIATEKA	17	85	3	15
ARETO NAGUSIA	17	85	3	15
JANGELA/AUTOZERBITZUA	17	85	3	15
ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK ¹	17	85	3	15
KIROL KANTXAK	16	80	4	20
TEKNOLOGIEN LABORATEGIA	16	80	4	20
GIMNASIOA	13	65	7	35
MULTIMEDIA ARETOAK	12	60	8	40
GARRAIOA	12	60	8	40
PLATAFORMA/GELA BIRTUALA	9	45	11	55
BARRERA ARKITEKTONIKOEN KUDEAKETA	6	30	14	70
MUGIKORTASUN IRAUNKORREKO POLITIKAK	6	30	14	70
BARATZEA	5	25	15	75
BESTE BATZUK ²	3	15	17	85

(1) Trukaketak, udalekuak, antzerkia, abesbatzak, ikasturte amaierako bidaiak, egonaldiak eta hizkuntza-ikastaroak atzerrian, elkarbizitza-programak, irteera kulturalak, ikaskuntzarako laguntza, atzerriko ikasleentzako programa zehatzak.

(2) Irrati bidezko Igorpena, ikasle bakoitzarentzako banakako ordenagailuak, aisialdiko begiraleen ikastetxea, Oxford Ikastetxe Aztertzailea, Sendotze Saiok, Ikasle ohiek Orientazio Saiotan parte hartzea, Ingeleseko Akademia, Antzerki Tailerra eta Bertso Eskola.

Ikastetxeetako berrikuntza bereizgarrienak

1 ikastetxea	Irakurketa Plana, <u>Chromebook</u> , PBL-ABP (Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza), STEAM proiektua, <u>Erasmus</u> , Hizkuntza Proiektua.
2 ikastetxea	Konfiantzaren Pedagogiara begirako Eraldaketa Pedagogiko eta Metodologikoko proiektua.
3 ikastetxea	TBL (<u>Thinking-Based Learning</u>) eta ETHATI
4 ikastetxea	IKT maila aurreratua, Hizkuntza anitzeko Proiektua, Irakasleen Metodologia Berriak, zergen gaineko GFaren unitate didaktikoan parte hartzea, Hizkuntza Proiektua.
5 ikastetxea	Konfiantzaren Pedagogiara begirako Eraldaketa Pedagogiko eta Metodologikoko proiektua.
6 ikastetxea	HAUSPOA proiektua
7 ikastetxea	BIZI proiektua, Lankidetzan oinarritutako Ikaskuntza, Diziplina arteko proiektua ikasturte guztietan, Estimulazio goiztiarra, Hizkuntza anitzeko Proiektua, Tutoretza Adimen Emozionalean, Ikaskuntzari laguntza.
8 ikastetxea	Proiektuen bidezko ikaskuntza
9 ikastetxea	Diziplina arteko proiektua
10 ikastetxea	Eredu pedagogiko berria lehen hezkuntza, Proiektu teknologikoa, <u>Proiektukako lan-metodoa</u> .
11 ikastetxea	HAUSPOA proiektua, STEAM proiektua, <u>Flipped Classroom</u> , <u>Ikiki</u> proiektua, Hizkuntza anitzeko proiektua
12 ikastetxea	Batxilergo Duala (AEB), pertsona bat kontratatzea Bizikidetzat programan bitartekaritza-lanak egiteko, euskara-ingelesa planifikatzea EGA/FIRST/PET lortzeko
13 ikastetxea	TBL Zentroa, Lankidetzan oinarritutako Ikaskuntza, <u>IPad-a tresna gisa erabiltzea</u> , buruko ohituretan eta pentsamendu-ohituretan entrenatzea, graduondokoa <u>ekintzailetzan</u> .
14 ikastetxea	<u>Proiektukako</u> ikaskuntza
15 ikastetxea	Ikasleari zuzendutako metodoa, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntza ikaskuntza-prozesuaren baitan. Lehen Hezkuntzako 5. Mailatik DBHko 4. Mailara arte EKI metodologia ezartzea, <u>Proiektukako</u> Ikaskuntza, KIVA proiektua, Digitalizazioa arlo desberdinetan, <u>Moodle</u> plataforma
16 ikastetxea	Digitalizazioa.

Ikastetxeen % 75en ustez, **JARDUERA** asko antolatzen dituzte ikasleei etorkizuneko ikasketen gainean erabakiak hartzeko prozesuan laguntzeko eta ikastetxeak **NAHIKOA BALIABIDE** dituzte ikasleei etorkizuneko ikasketen gaineko erabakiak hartzeko prozesuan laguntzeko.

Ikasleei laguntzeko jarduerak antolatzen ditu			Ikasleei babesa emateko behar diren baliabideak ditu		
	Ikastetxeak	%		Ikastetxeak	%
GUTXI	0	0,0	BAI	15	83,3
NAHIKOA	0	0,0	EZ	2	11,1
BEHAR DIRENAK	3	16,7	EZ DAKI	1	5,6
ASKO	15	83,3	Guztira	18	100,0
GEHIEGI	0	0,0			
Guztira	18	100,0			

Hurrengo taulan ikusten da ikastetxeek urtero sistematizatzen dituztela orientazio-jarduerak, batez ere ikasgelan eta ikastetxean, eta bisitaldiak egiten dituzte prestakuntza-zentroetara. Neurri txikiagoan, enpre-setara, edo zuzenean jartzen dira harremanetan aktibo dauden adituekin edo aktibo dauden ikasle ohiekin.

Ikastetxeak antolatzen duen orientazioari laguntzeko jarduerak

	Inoiz ez	Batzuetan	Urtero	Guztira eta %
ORIENTAZIOA IKASGELAN	0	1	18	19 - 95
IKASTURTEAREN ARABERAKO ORIENTAZIOA	0	1	18	19 - 95
ORIENTAZIO INDIBIDUALIZATUA	0	3	16	19 - 95
FAMILIEI – IKASLEEI ZUZENDUTAKO JARDUNALDIAK	1	6	10	17 - 85
ENPRESEI / ERAKUNDEEI ZUZENDUTAKO JARDUNALDIAK	6	4	7	17 - 85
UNIBERTSITATEKO IKASTETXEETARA EGINDAKO BISITALDIAK	1	3	15	19 - 95
LANBIDE PRESTAKUNTZAKO IKASTETXEETARA EGINDAKO BISITALDIAK	3	2	12	17 - 85
ORIENTAZIO ZENTROETARA EGINDAKO BISITALDIAK (LANBIDE...)	6	5	4	15 - 75
ENPRESETARA, LANEKO ZENTROETARA, ENPRESEN ASOZIAZIOETARA EGINDAKO BISITALDIAK	2	6	8	16 - 80
HIZKETALDIAK AKTIBO DAUDEN ADITUEKIN	3	5	7	15 - 75
HIZKETALDIAK AKTIBO DAUDEN IKASLE OHIEKIN	3	4	9	16 - 80
HIZKETALDIAK UNIBERTSITATEKO IKASLEEKIN	3	6	8	17 - 85
HIZKETALDIAK LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEEKIN	4	5	8	17 - 85
INFORMAZIOKO ETA ORIENTAZIOKO JARDUERA BIRTUALAK	4	2	7	13 - 65
EGITEN DITUZTEN EDO EGIN DITUZTEN BESTE JARDUERA BATZUK	0	0	1	1 - 5

Ikastetxeak ikasleei etorkizuneko ikasketen gainean erabakiak hartzeko prozesuan laguntzeko **INFORMAZIO EGOKIA** du eta ikastetxea ikasleei etorkizuneko ikasketen gainean erabakiak hartzeko prozesuan laguntzeko **EKINTZA BERRIAK ANTOLATZEN** pentsatzen ari da.

	Informazio egokia du		Ekintza berriak antolatzea pentsatu du	
	Ikastetxeak	%	Ikastetxeak	%
BAI	16	88,9	13	72,2
EZ	0	0,0	3	16,7
EZ DAKI	2	11,1	1	5,6
Guztira	18	100,0	18	100,0

III. ERANSKINA: BATXILERGOKO IKASLEEN MATRIKULAZIO DATUAK GIPUZKOAN

Iturria: EUSTAT. Batxilergoko 1. mailako ikasleen matrikulazioa Gipuzkoan 2017-18 ikasturtean

Gipuzkoa. 1. batxilergoko matrikula

Hizkuntza-ereduak	IKASTETXE PUBLIKOAK				IKASTETXE PRIBATUAK				GUZTIRA			
	A	B	D	Guztira	A	B	D	Guztira	A	B	D	Guztira
Artea	56	0	116	172	0	0	18	18	56	0	134	190
Giza Zientziak	60	4	151	215	24	9	82	115	84	13	233	330
Gizarte Zientziak	85	15	666	766	248	92	632	972	333	107	1.298	1.738
Zientziak	107	17	1.227	1.351	326	105	1.122	1.553	433	122	2.349	2.904
GUZTIRA	308	36	2.160	2.504	598	206	1.854	2.658	906	242	4.014	5.162

Gipuzkoa. 2. batxilergoko matrikula

Hizkuntza-ereduak	IKASTETXE PUBLIKOAK				IKASTETXE PRIBATUAK				GUZTIRA			
	A	B	D	Guztira	A	B	D	Guztira	A	B	D	Guztira
Artea	25	4	87	116	0	0	21	21	25	4	108	137
Giza Zientziak	60	9	177	246	22	13	73	108	82	22	250	354
Gizarte Zientziak	91	5	690	786	278	72	550	900	369	77	1.240	1.686
Zientziak	115	17	1.147	1.279	332	109	1.130	1.571	447	126	2.277	2.850
GUZTIRA	291	35	2.101	2.427	632	194	1.774	2.600	923	229	3.875	5.027

Gipuzkoa. 1. eta 2. batxilergoko matrikula. Emakumeak

Hizkuntza-ereduak	IKASTETXE PUBLIKOAK				IKASTETXE PRIBATUAK				GUZTIRA			
	A	B	D	Guztira	A	B	D	Guztira	A	B	D	Guztira
Artea	64	4	139	207	0	0	19	19	64	4	158	226
Giza Zientziak	132	10	223	365	32	11	94	137	164	21	317	502
Gizarte Zientziak	157	15	859	1.031	301	78	712	1.091	458	93	1.571	2.122
Zientziak	155	23	1.199	1.377	318	90	1.019	1.427	473	113	2.218	2.804
GUZTIRA	508	52	2.420	2.980	651	179	1.844	2.674	1.159	231	4.264	5.654

IV. ERANSKINA: FAMILIEN EKARPEN EKONOMIKOAK, INKESTAREN ARABERA

Ikasleen artean gerta daitekeen banaketa ezagutzeko, inkestan galdetutako familiako baliabideen adierazleak aztertu ditugu. Galderek honako datu hauek lortzeko aukera ematen dute:

- Etxean dagoen liburu kopurua
- Norbere logela izateko disponibilitatea
- Etxean dauden baliabideak
- Honako hauek badauden:
 - Internet
 - Wifi
 - Entziklopediak
 - Kontsulta-liburuak eta hiztegiak
 - Literatura klasikoko liburuak
 - Egunkaria egunero (paperean edo internet bidez)
 - Aldizkari espezializatuak edo teknikoak
 - Aurrekoetatik batere ez
- Hauen kopurua:
 - Ordenagailuak
 - Autoak
 - Bainugelak
 - Logelak
 - E-bookak
 - Tabletak
 - Smartphoneak
 - Smartwatchak
 - Jarduera-pultserak

Erraz eraikitako indize batean tarte ugari ezarri ditugu, eta horiei puntuak eman (adierazle sintetikoa lortzeko beste modu batzuekin proba egin dugu eta emaitzak berberak dira). Tarte horiek lagina muturreko bi deziletan zatitzen dute, eta laginaren % 80 bereiztea zaila den bitarteko egoeretan dago. Azkenik, bitarteko talde hori lau taldetan banatu dugu indizearen arabera. Hala ere, onartu behar dugu aldeak nahiko artifizialak direla.

Hauek dira ezarritako sei taldeen arteko alde nagusiak:

Talde sozio-ekonomikoa	Indizea	Etxean dagoen liburu kopurua	Ordenagailu kopurua	Auto kopurua	Bainugela kopurua	Smartphone kopurua
1	8	100 edo gutxiago	1 ordenagailu	1 auto	1 bainugela	1 <u>smartphone</u>
2	11	300 baino gutxiago	2 ordenagailu		1 eta 2 auto	1+2 bainugela
3	13		2 eta 3 ordenagailu	3 eta 4 <u>smartphone</u>		
4	15					3, 4 eta 5 <u>smartphone</u>
5	18	500 baino gutxiago	2,3 edo 4 ordenagailu	2+3+4 bainugela	4 eta 5 <u>smartphone</u>	
6	26	500 baino gehiago	3, 4 edo 5 ordenagailu			2, 3 edo 4 auto

Jarraian, aldagai bakoitzerako eta talde sozio-ekonomiko bakoitzerako lortzen den banaketa eskaintzen dugu:

Etxean dagoen liburu kopurua (talde bakoitzaren %)

Taldea	100 edo gutxiago	100 eta 300 artean	300 eta 500 artean	500 baino gehiago	GUZTIRA
1	94	6	0	0	100
2	26	47	17	11	100
3	62	33	5	1	100
4	55	36	7	2	100
5	30	42	17	10	100
6	14	35	26	24	100

Norbere logela izateko disponibilitatea (talde bakoitzaren %)

Taldea	EZ	BAI	GUZTIRA
1	12	88	100
2	12	88	100
3	10	90	100
4	9	91	100
5	8	92	100
6	12	88	100

Etxean dagoen ordenagailu kopurua (talde bakoitzaren %)

TALDEA	0	1	2	3	4	5 edo gehiago	GUZTIRA
1	3	97	0	0	0	0	100
2	0	84	13	3	0	0	100
3	0	27	52	20	1	1	100
4	0	8	38	40	11	3	100
5	0	3	18	38	30	11	100
6	0	1	6	17	35	41	100

Etxean dagoen auto kopurua (talde bakoitzaren %)

Taldea	0	1	2	3	4	5 edo gehiago	GUZTIRA
1	8	92	0	0	0	0	100
2	3	93	3	0	0	0	100
3	3	61	34	2	0	0	100
4	0	38	55	6	1	0	100
5	0	19	68	10	2	0	100
6	0	5	52	28	13	2	100

Etxean dagoen bainugela kopurua (talde bakoitzaren %)

Taldea	0	1	2	3	4	5 edo gehiago	GUZTIRA
1	2	98	0	0	0	0	100
2	0	86	13	1	0	0	100
3	0	50	49	1	0	0	100
4	0	29	67	4	0	0	100
5	0	9	70	15	5	1	100
6	0	4	44	27	15	10	100

Etxean dagoen smartphone kopurua (talde bakoitzaren %)

Taldea	0	1	2	3	4	5 edo gehiago	GUZTIRA
1	10	89	0	0	0	0	100
2	7	64	11	12	6	0	100
3	1	0	5	46	44	4	100
4	1	1	0	20	61	18	100
5	0	0	1	7	58	34	100
6	0	0	1	2	27	70	100

V. ERANSKINA: FOCUS GROUPS

esta eta lortutako informazio kuantitatiboaren aurretiazko azterketa egin ostean, 10 focus group egin dira eta honela banatzen dira:

- Zazpi focus groups Batxilergoko ikastetxeetan
 - Goierri BHI
 - Ugle Eskola
 - Oteiza Lizeo Politeknikoa
 - Xabier Zubiri Manteo BHI
 - Oiartzo Ikastola
 - Elgoibar BHI
- Focus group LHko zentro batean: Tolosaldea Lanbide Heziketa
- Focus Group orientatzaileekin
- Seme-alabak 1. edo 2. Batxilergoan dituzten ama/aitei egindako elkarriketak

FOCUS GROUPS-EN ONDORIOAK IKASLEEKIN

1. Unibertsitatean ikasketak jarraitzeko aukeraren gainean

zergatik BAI?

- Erantzukizun handiko postuetara iristeko aukera gehiago
- Denbora gehiago dute zertan lan egin nahi duten erabakitzeko.
- Nota onak Unibertsitatea.
- Interesgarriak iruditzen zaizkien lanetarako sarbidea.
- Batxilergoa ikasi ostean, pauso naturala da.

zergatik EZ?

- Lanpostua ez dago bermatuta
- Ikasketen iraupena oso luzea da.
- Gutxieneko nota.
- Denbora eta ikasketa gehiago eskatzen dizu.
- Karrera ikastea oso teorikoa eta errutinazkoa da.

2. Ikasketak Prestakuntza Zikloetan jarraitzeko aukerari buruz

zergatik BAI?

- Lana lortzeko aukera gehiago dago.
- Praktikara bideratuago dauden ikasketak dira.

Zergatik EZ?

- Ez dituzte ezagutzen beren interesekin erlazionatutako LHko ikasketak - Gizarte Zientziak eta letrak.
- Eraitza onak baldin badituzu, ez zaituzte animatzen bide horretatik joateko.
- Uste dute topa ditzakezun enpleguek soldata eta erantzukizun txikiagoak dituztela.
- Industria arloan, LHk balioa du, letren edo Gizarte Zientzien arloan, karrerarekin enplegua lortzeko probabilitate handiagoak dituzu.
- Ez dute LH aukeratzen, uste baitute batxilergoa baino lehen aukeratuko zuketela. Uste dute batxilergoa unibertsitatearen aurreko pausoa dela.

3. Zer mezu iristen zaizkie?

- Etxean eta ikastetxean unibertsitatera joateko bultzatzen die, adierazten diete LH nota txarrak dituzte-nentzako dela.
 - Mutilak/neskak- Gizarteak bi sexuak ikasketa mota desberdinetara bideratzen ditu.
 - Mutilak- Industriarekin lotutako ikasketak.
 - Neskak- Gizarte Zientziak edo letrak.
- Batxilergoari eta unibertsitateari buruzko informazio asko iristen zaie, baina uste dute LHko ikasketei buruzko informazioa falta zaiela.

4. Ikasketak aukeratzeko garaian hautatutako aukerarik garrantzitsuena “Ikasketak nire gustukoak izatea” da. Zer da ikasketetatik baloratzen duzuen?

Zer da ikasketetatik baloratzen dutena? Nola aukeratzen dute?

- Ikasketak beren gustuen arabera aukeratzen dituzte, eta ondoren, aukera gutxien eskaintzen dizkieteenak kentzen dituzte
- (Zerbait asko gustatzen bazaie, baina lan-irteera txarrak baldin baditu, beren aisialdirako uzten dute):
- Aukeratutakoa beren gustukoa den jakiteko, aukeratutako ikasketekin zerikusia duen zerbaitetan lanean ikusten dute beren burua.
- Ikasketak errazak eta erosoak izatea baloratzen dute.
- Egoki moldatzen diren arloak gustatzen zaizkie eta haiekin gozatzen dute.
- Pertsonalki hazten laguntzen dieten ikasketak, nahiz eta gero horrekin lotutako enplegurik ez lortu.
- Beren intereseko zerbait ikasi duten beren inguruko pertsonen esperientziak dituzte kontuan (lagunak, familia eta abar).
- Adierazi dute gauza praktikoak gehiago gustatzen zaizkiela (esate baterako, lantxoak egitea)
- Gizarte aldatzeko eta besteei laguntzeko gai izango diren enplegurako sarbidera ahalbidetzen dieten ikasketak.

Zein dira beren gustukoak EZ diren ikasketak? Zergatik?

- Gustuko ez dutena edo gaizki moldatzen direna albo batera uzten dute (esate baterako: letrak oro har, biologia “marraztearekin zerikusia duen oro”, gauza teorikoak). Adibidez:
 - Matematika gustuko ez duten edo gaizki moldatzen diren ikasleek Gizarte Zientziak aukeratu ohi dituzte
 - Gizarte Zientziekin eta letrekin zerikusia duten ikasketak albo batera uzten dituzten ikasleak dira informazioa buruz ikastea ez zaiela gustatzen diotenak. Nahiago dituzte ikasitakoa ulertzen eta aplikatzen den jarduerak.
 - Gaizki moldatzen diren ikasgaiekin zerikusia duten ikasketak albo batera uzten dituzte (marrazketa, matematika, biologia eta abar).
- Ikasgaia eskaintzeko moduarengatik (esate baterako: letrak=buruz ikastea) eta ikasgai hori eskaintzen duen irakasle motarengatik uzten dute albo batera.
- LH aukeratzen dutenek denbora asko eta dedikazio handia eskatzen duten ikasketak albo batera uzten dituzte. Nahiago dituzte praktikoagoak diren ikasketak eta ondoren lanean hastea.

Ikasitako ikasgaiek zerikusia al dute aukeraketa horretan? Nola eskaintzen diren?

- Irakasleak oso garrantzitsuak dira, erabakitzekeo garaian asko eragiten dute (ikasgaiek baino gehiago eragiten dute).
- Nahiago dute azterketan eta problemen ebazpenean oinarritutako metodologia.
- Modu praktikoan ikastea gustatzen zaie.
- Matematika: Zailenetakotzat dute, eta ez da gehien gustatzen zaiena (hala ere, teoria asko duten beste ikasgaiak baino nahiago dute). Ulertzen dutenean atsegin duten ikasgaia da.

5. Ibilbide profesionala aukeratzeko garaian garrantzitsuenetakotzat jotako aukera “Nire gustuko lana izatea” da. Zer da nire gustuko lana izatea??

Zer da nire gustuko lana izatea?

- Enpleguak ikasketekin eta interesekin lotuta egotea asko baloratzen dute (teknologia, kirola, osasuna, ekonomia, enpresa eta abar). Adibideak:
 - “Hizkuntzak gustatzen zaizkit. Ondorioz, kanpoko jendearekin komunikatzea”.
 - “Kirolarekin zerikusia duen zerbait”
- Monotoniatik at dagoen zerbait, eta etengabe erronkak izatea.
- Lanak munduaren gaineko eragina izatea eta gizarte aldatzen laguntzea ahalbidetu diezaiela.
- Lanak unibertsitatean ikasten duzun lekuan, eta ondoren, ostera ere ikasi beharrik ez izatea.
- Garatu beharreko jarduera dinamikoa eta taldean egitekoa izatea.
- Lanpostua ondo ordainduta egotea eta lan-baldintza egokiak izatea (ordutegia, oporraldiak eta abar)
- Egonkortasuna, etorkizuneko segurtasuna bilatzen dute.
- Baldintzak malgutzeko prest daude (ordutegia, kanpora joatea, dirua) gustuko dutena egiteagatik -oreka.
- Lanbide heziketakoek pentsamendu praktikoagoa dute: lan egin behar da; gustukoa izatea gehigarri bat da.

Nola jakingo dute ez zaiela gustatzen?

- Gaizki moldatu diren edo gustatu ez zaizkien ikasgaietatik abiatuta.
- Lanean proiektatuz (“laborategian orduak emanez”, “ordenagailuaren aurrean programatuz” “diseinua sormenaren arabera, ekoizpena berritu gabe eta abar).
- Ez zaie gustatzen lana aurkitu ostean trebatzen jarraitzea eta ikasten jarraitu behar izatea (gutxiengoari iruditzen zaio hori erakargarria).
- Badakite zer ez zaien gustatzen, ez direlako ondo moldatzen.
- Ez zaizkie lan monotonoak gustatzen, egunero zerbait berria egin nahi dute.
- Ez zaizkie gustatzen besteekin kontakturik gabeko lanak.
- Ez zaizkie gustatzen lan indibidualistak, nahiago dute taldean lan egitea eta jendearekin harremana izatea.
- Deskonektatu ezin duten enpleguak.
- Autonomiarik gabeko gorengoen kontrol handiko enplegua.

6. Ez duzue kanpo presiorik jaso zer ikasi erabakitzekeo. Erabakia autonomiaz hartu al da?

- Adierazi dute erabakia autonomiaz eta askatasunez hartu dutela, baina era berean, adierazi dute mezuak iristen zaizkiela alde guztietatik.
- Gehienetan, gurasoek beren iritzia ematen dute, baina argi baldin badute ez zaiela gustatzen, nahi dutena egiten dute.
- Presioa baino gehiago, animoak jasotzen dituzte leku batera edo bestera zuzentzeko, eta seme-alabek kasu egiteko edo ez egiteko aukera dute.

7. Gurasoek, lagunek, zer esaten diete? Eragiten al diete?

- Gurasoek erabaki honetan eragin dute:
 - Askatasuna dute, honako hau a mezua: “nahi duzuna ikasi”.
 - Gurasoek aholkatu ohi dutena honakoa izan ohi da: unibertsitatera joan ez arren, selektibitatea egitea.
 - Gomendioak; irteeretan arreta jartzea, gustatuko zaizkiela uste duten ikasketak gomendatzea eta abar.
- Lagunek ez dute eragiten

- Irakasleek ere eragiten dute:
- Ikasle onak unibertsitatera joatera bultzatzen dituzte eta txarragoak direnak, LHra.
- Oro har, unibertsitateari buruzko informazio gehiago ematen dute LHri buruzkoa baino.
- Ikasleek diote ikastetxean presio gehiago dutela etxean baino.

8. Zertan oinarritzen dira erabaki hori hartzeko?

- Familiartekoen aholkuetan oinarritzen dira (batez ere, gurasoak).
- Irakasleen aholkuetan eta iritzietan.
- Batez ere, beren zaletasunetan eta errendimendu akademikoan oinarritzen dira (nota onak = unibertsitatea).
- Batzuek diote erabakia deskarte bidez hartu dutela, interes pertsonalak eta ikasketek eskain diezazkiekeen lan-irteera posibleak kontuan hartuta.
- Lehenik eta behin, arreta jartzen dute ikasketak beren gustukoak diren ala ez, eta ondoren, lan-aukera gehiegi ez duten horiek alboratzen dituzte.

9. Noiz hartu zuten erabakia?

- Batxilergoan hasten dira aukeratzen, Zientziak, Gizarte Zientziak edo letrak aukeratzen dituztenean.
- Batxilergoa aukeratzeko erabakian, nota onak ateratzen dituzten ikasleak batxilergo zientifikora bideratu ohi dituzte.
- Gehienek ikasketak batxilergoko azken urtean erabaki ditu (aukeraketa oso zehatzetan gertatzen dira salbuespenak).

10. Lan-mundura begira, aukeratutako ikasketek eskain diezaieketenaren inguruko kezka dute. Zein iturritatik iristen zaizkizue lan-munduratzeko aukerak?

Lan-munduratzeko kezkatzen al ditu?

- Lan-munduratzeko kezka baldin badute, ikasketak aukeratzeko garaian kontuan izaten dute.
- Uste dute egoera sozio-ekonomikoa ez dela ona.
- Uste dute sektore industrialak dela lan-aukera gehien eskaintzen dituen sektorea.

Zein iturritatik iristen zaizkie lan-munduratzeko aukerak?

- Ingurune zuzenetik (lagunak, anai-arrebak, beren intereseko ikasketekin zerikusia duten zerbaitetan lan egiten duten ezagunak, interesatzen zaizkien ikasketak ikasten ari diren lagunak eta abar) + internet-etik.
- Ikastetxeetatik horri buruzko informazioa jasotzen duzu, baina ez gertuko ingurunetik bezainbeste.
- Ikastetxeetan egindako jarduerak:
 - Ate irekiak.
 - Irteerak enpresetara.
 - Hizketaldiak ikasle ohien ikastetxeetan
 - Test desberdinak
- Diotenez, orain lan-irteera berberak daude LHtik eta unibertsitatetik

11. Zer iturri dira sinesgarrienak haientzat?

- Gehienek uste dute langileek laneko aukeren gainean emandakoa dela informaziorik sinesgarriena.
- Interesatzen zaizkien prestakuntzak ikasten ari diren ikasleen informazioa.

12. Informazio hori nola iristea gustatuko litzaieke?

- Probatu egin nahiko lukete, interesa izango luketen horretan tartetxo batez lan egin.
- Informazioa eta orientazioa DBHtik hasi nahiko lukete jasotzen (batxilergotik jasotzen hastea berandu iruditzen zaie).
- Ikasketa posibleen gaineko eta ikasketa horien bidez lor daitezkeen enplegu posibleen gaineko informazio zabalagoa, sakonagoa eta indibidualizatuagoa eskaintzea gustatuko litzaieke.
- Oso positiboki baloratzen dituzte jarduera hauek: ikasle ohien hizketaldiak, enpresetara egindako irteerak eta adituek emandako hizketaldiak.
- Informazio objektiboa jaso nahi dute, inor ezer saltzen ari zaiela sentitu gabe. Informazioa beren erabakiarekin onura atera ezin duten iturrietatik etortzea gustatuko litzaieke (langile soilak eta ikasleak).

13. Ikastetxeko orientatzaileak balorazio txarra jaso du zer ikasi erabakitzeko laguntzaile gisa.

Zergatik?

- Focuseko parte-hartzaile gehienek ustez, orientazio-zerbitzu eskasa jaso dute:
 - Uste dute orientatzaileak ez zeudela behar bezala prestatuta/informatuta.
 - Zerbitzua oso orokorra da eta unibertsitatera askoz ere bideratuago dago.
- Batzuek diote batxilergoko orientatzailearen laguntza jaso dutela (2 ikastetxe), baina DBHn esperientzia oso negatiboa izan da.
- Orientaziorako dedikazio eskusiborik ez duten irakasleak izan ohi dira eta uste dute horrek eragin dezakeela.

Zer zeregin dute egun?

- Unibertsitatera eta adar zientifiko-teknologikoko ikasleengana zuzenduago dago.
- Informazio akademikoa eskaintzen dute, baina lan arloari buruzko oso informazio gutxi eskaintzen dute.
- Ikastetxe batzuetan, ez dakite orientatzailea existitzen denik ere. Uste dute orientatzaile-lana garrantzitsua izan daitekeela.
- Egundak, oro har honako hau egiten dute: Banakako bilerak ikasleekin (oso gutxi), hizketaldiak eta enpresetara irteerak antolatu, eta galdetegiren bat edo beste eskaini (uste dute ez dela nahikoa).

14. Zer botatzen duzue faltan?

- Ahalik eta informazio objektiboena, horren atzeran interes partikularrik egon gabe.
- Informazioa izatea gustatuko litzaieke.
- Ikasle bakoitzarentzako informazio pertsonalizatuagoa.
- Orientazio-zerbitzua batxilergoa baino lehen hastea.
- Arlo profesionalaren gaineko informazio gehiago:
- Lanbide-heziketarekin zerikusia duen informazio gehiago.
- Informazioa modu desberdinetan iristea gustatuko litzaieke:

- Adituen hizketaldiak.
- Ikasle ohien hizketaldiak.
- Enpresetara egindako bisitaldiak.
- Ate irekiak.
- Banakako bilerak orientatzailearekin.
- Orientatzailearekin denbora gehiago izatea konfiantzazko lotura garatzeko eta gehiago ezagutzeko.
- Ikasketetako ikasgaiei buruzko informazio zehatzagoa izatea.
- Interesa dutenek ikasketetako eskola errealetan parte hartzea.
- Etorkizuneko enpleguekin zerikusia duten jarduera desberdinak egin ahal izatea.

FOCUS GROUPEN ONDORIOAK ORIENTATZAILEEKIN

ORIENTATZAILE KOPURUA: 9

DATA:2019/05/21

1. Inkesta egindakoen % 69,7k erabakita dute unibertsitatera joatea eta % 23,4k EZ du oraindik erabaki. Zer iritzi dute?

- Ados daude emaitzekin, LHK B plana edo azken aukera izaten jarraitzen du. Edonola ere, uste dute joera aldatzen ari dela.
- Uste dute DBHko 4. mailan notek zerikusia dutela batxilergoa edo Erdi Mailako LH aukeratzeko garaian.
- Uste dute LH goraiatzeko kanpaina sendoak daudela.
- Uste dute LHko ikasketek ez dutela enplegarritasun handiagoa. Uste dute “prezio berberarengatik enpresek ingeniaria aukeratzeko dutela”.
- Aitortzen dute beraientzat, orientatzaileentzat, LH ezezagunagoa dela. Unibertsitateak enplegu-azokak eskaintzen ditu campus bakoitzean. LHK ez du ikasleek aukera guztiak ezagut ditzaten aukerarik eskaintzen.
- Uste dute LHK porrot-kutsua duela eta zaila dela hori aldatzea.
- Erdi Mailako LHren eskaintza murrizta da. Erdi mailako graduarekin ez gelditzeko aholkatzen die, goi mailakoa egiteko.
- Faltan botatzen dituzte eremuko enpresek ikastetxera bisitak egitea, DBHko 1. mailatik.
- LHko informazioa eta aukerak unibertsitatekoak baino geroago iristen dira.

2. Ikasketak aukeratzeko garaian hautatutako aukerarik garrantzitsuena “Ikasketak nire gustukoak izatea” da. Zer da ikasketetatik baloratzen dutena?

- Orientatzaileek uste dute ikasleek ez dakitela definitzen zer gustatzen zaien. Uste dute ez direla duela urte batzuk ziren bezain helduak; izan ere, esaten diete probatuko dutela ziklo edo gradu jakin bat gustatzen zaien ala ez, eta bestela, utzi egingo dutela.

3. Badirudi ikasketak hauen arabera aukeratzeko dituztela: lana gustatuko zaien ala ez, zuzeneko ingurunea (mugatzalea izan daiteke) eta ikasgaietan duten esperientzia (letrak/zientziak)

- Ez dute uste erabakia hartzeko prozesua hain arrazionala denik.
- DBHko 3. mailatik bideak aukeratu behar dituzte. Haiek animatzen dituzte ate gutxien ixten dizkieten bideak aukeratzera. 4. mailan, Batxilergo joan ahal izatea ahalbidetzen dien ikasgaiak egitera animatzen dituzte, nahiz eta LH egitea erabaki duten, urte horretan iritzia aldatzen baldin badute ere.

4. Badirudi gustuko dutena ondo moldatzen diren horretan oinarrituta aukeratzeko dutela, eta hori, era berean, ikasteko moduaren arabera (praktika vs buruz ikastea). Irakaslearen nolabaiteko eragina islatzen da.

- Orientatzaileak ados daude: asko eragiten dute irakasleek erabakiak hartzeko prozesuan.
- Marrazketa Teknikoaren moduko ikasgaietan, irakaslearen rola, eskola emateko modua eta ondo moldatzen diren edo ez faktore erabakigarriak izan daitezke bide hori jarraitzen anima daitezke.
- Proiektutako lan-metodologia unibertsitatean eta ikastetxean ari dira ezartzen, batxilergoko bigarren mailan izan ezik. Urte horretan selektibitatea prestatzea nagusitzen da.
- Ahaleginaren kulturak asko egin du behera, berehalakotasuna bilatzen dute, nahi dutena momentuan bertan lortu nahi dute.
- Aipatu digute sendotzeko akademia asko dagoela, uste dute akademietan eskolan baino arreta gehiago jartzen dutela.

5. Ibilbide profesionala aukeratzeko garaian garrantzitsuenetakotzat jotako aukera “Nire gustuko lana izatea” da. Zer uste duzue dela nire gustuko lana izatea?

- Adierazi dute batxilergoko lehenengo mailako ikasleek bigarren maila eta ikasketan aukeraketa oso urrunekotzat hartzen dutela. Beraz, ez dute pentsatzeko denborarik hartzen. Bigarren mailan daude-nean, selektibitatea prestatzen, ez dute enpresetara bisitaldia egiteko denborarik izaten, nota ona ateratzen jartzen baitute arreta.
- Lan-merkatua oso urrun eta enplegu-aukera gutxiarekin ikusten dute.
- Ez dago independentzia-desiorik.
- LH aukeratzeko dutenek ikastetxea etxetik gertu egotea lehenesten dute. Beste probintzia batean baldin badago, aukera hori baztertzen dute.
- Oso bokaziozkoak diren zenbait ikasketa: medikuntza, irakasle-ikasketak, erizaintza, arkitektura eta abar. Bestalde, beste batzuek ikasketa orokorrak aukeratzeko dituzte: EAZ esaterako, denetik egitea ahalbidetzen die.
- Orientatzaileek aipatu dute ikasleen % 30ek bokazioa dutela, beste % 30ek badakitela zer ez duten nahi eta bideratu egiten direla, eta gainerako % 30a aukeraketan oso galduta dagoela.

6. Ikastetxeko orientatzailearen figura ez da besteena bezain garrantzitsua. Orientatzaile-figurari ez al zaio behar bezalako garrantzirik ematen? Nola egingo zenukete? Prestakuntza, informazio gehiago, beste baliabide batzuk? Nola baloratzen duzue kanpo orientatzailearen figura? Garapen-agentzietan agian? Nola “egingo luke bat” ikastetxeko orientatzailearekin?

- Orientatzaileek diote ikasleek nahi dutela zer ikasi esatea, ez dute erabakia hartu nahi.
- Ikastetxe batzuetan, tutoreak berak dira orientatzaileak eta konfiantza-lotura hori sortzen dute.
- Gainerako ikastetxeetan, orientatzaileei irakasleen bidez iristen zaie ikasleei buruzko informazioa.
- Itunpeko ikastetxe gutxi dute orientatzailea lanaldi osoz ikasleentzako eskuragarri. Batzuetan, batxilergoko koordinatzaileak dinamizatzen ditu jarduera horiek.
- Argitara atera da ikasleko dedikazioa mugatua dela, ikastetxearen tamaina eta baliabide-gabezia dela eta. Irakasleak edo orientatzaileak ikasleekin, erabaki dutenarekin ados ez daudenean, gurasoekin biltzen dira hitz egiteko.
- Adierazi dute orientatzaile-rolaren aurreikuspenak desberdinak direla talde bakoitzarentzat (ADEGI, gurasoak, irakasleak, ikasleak...)
- Nabarmetzen dute orientatzaile HEZITZAILEAK direla, ez profesionalak. Adar horretatik kanpo beste orientazio-zeregin batzuk dituzte (esate baterako, arazo pertsonalak eta familiarakoak dituzten ikasleak).
- Beren burua okerrago ikusten dute DBHko 4. mailako neska-mutilak enpresaren gainean orientatzeko eta enpresak gazteengana gerturatzeko garaian. Eskaintza akademikoari buruzko informazio gehiago dute.
- LHko azoka antolatzea proposatzen dute Gipuzkoako ikastetxeekin; izan ere, unibertsitateek hala egiten dute, baina LHko ikastetxeek ez.

7. Ikasleek esan dute ez dutela kanpo-presiorik jaso zer ikasi erabakitzeko. Badirudi erabakia autonomiaz hartzen dutela. Gurasoek aholkatu egiten dute, baina aukeratzeko askatasuna dutela dirudi. Azterketak adierazten du gehienek batxilergoko azken urtean erabakitzen dutela. Horrela al da?

- Uste dute DBHko 4. mailan lagunek eragiten dutela, baina batxilergoan ez.
- Uste dute erabakia DBHko 3. mailan hartzen dutela, 4. Mailako ikasgaiak aukeratu behar dituztenean, eta Erdi Mailako Lanbide Heziketa edo Batxilergoa egin behar duten aukeratu behar dute Goi Mailako Lanbide Heziketara edo unibertsitatera joateko.

8. Aukeratutako ikasketek eskain dezaketen lan-munduratzeak kezka sortzen du. Zer iruditzen zaie? Zer iritzi dute iturrien gainean?

- Orientatzaileek kezka erakusten dute ikasleek erabiltzen dituzten informazio-bilaketako iturrien gainean. Zehazki, Internetek kezkatzen ditu, gustuko duten tresna baita, berehala bilatzeko aukera ematen baitie. Horrela, ez dute ikertzen eta azaleko informazioarekin geratzen dira.

GURASOEKIN EGINDAKO GROUPS ELKARRIZKETEN ONDORIOAK

GURASO KOPURUA: 6
DATA:2019/05/21

1. Inkesta egindakoen % 69,7k erabakita dute unibertsitatera joatea eta % 23,4k EZ du oraindik erabaki. Zer iritzi dute?

- Ados daude seme-alabak unibertsitatera joatea animatzen dituztela; izan ere, uste dute irteera profesional handiagoak dituztela eta postu hobeak lortzen dituztela.
- Ez dute uste LH aukera txarra denik; izan ere, badakite Gipuzkoan prestakuntza mota hori duten profesional asko behar direla, bina semeak/alabak nota onak ateratzen baditu, unibertsitatera joatea animatzen dute.
- Oro har, “gustuko dutena” egitera animatzen dituzte.

2. 2. Ikasketak aukeratzeko garaian hautatutako aukerarik garrantzitsuena. “Ikasketak nire gustukoak izatea” da

Zer da ikasketetatik baloratzen dutena?

- Aipatzen dute baloratzen dutela ikasketen edukia gustatzea, baina kontuan izan ohi dituztela irteera profesionalak, enplegarritasuna...

Badirudi ikasketak hauen arabera aukeratzeko garaian hautatutako aukerarik garrantzitsuena. “Ikasketak nire gustukoak izatea” da

- Uste dute ikastetxeko ikasgaiak eragina dutela; izan ere, ikasgaiaren batean ez baldin badituzte nota onak ateratzen, ez dute beren burua irudikatzen ikasketak adar horretarantz zuzentzen.
- Adierazi dute beren zuzeneko inguruak informazio erreala eskaintzen diela, adibide zehatzekin, baina eragin horrek ez die baldintzatzen.

Badirudi gustuko dutena emaitza onak ateratzen dituzten ikasgai horietan oinarrituta aukeratzeko garaian, eta hori, era berean, ikasteko moduaren arabera (praktika vs buruz ikastea). Irakaslearen nolabaiteko eragina islatzen da.

- Uste dute irakasleak oso garrantzitsuak direla eta eragin egiten dietela.
- Irakasle txarrak ikasgaiari mania hartzea eragiten du.
- Anai-arrebek edo nagusiagoak diren lehengusuek edo antzekoek eragiten diete zer ikasi erabakitzeko garaian.

3. Ibilbide profesionala aukeratzeko garaian garrantzitsuenetakotzat jotako aukera “Nire gustuko lana izatea” da. Zer uste duzue dela nire gustuko lana izatea?

- Gurasoek enpresa-errealitatetik, lan-merkatutik eta eskatzen denetik oso urrun ikusten dituzte seme-alabak.
- Gurasoek uste dute lan-aukerak eskasak direla.
- Sentitzen dute seme-alabek honako hauek dituzten lana bilatzen dutela: gustuko duten edukia izatea, ordutegi ona eta ondo bizi ahal izatea.
- Adierazi dute ekarpena egingo dien eta aberasgarria izango den lana bilatzen dutela.
- “Bokaziozko amets” asko izan ohi dituzte, batzuetan oso errealistak ez direnak.

4. Ikastetxeko orientatzailearen figura ez da besteena bezain garrantzitsua. Orientatzaile-figurari ez al zaio behar bezalako garrantzirik ematen? Nola egingo zenukete? Prestakuntza, informazio gehiago, beste baliabide batzuk? Nola baloratzen duzue kanpo orientatzailearen figura? Garapen-agentzietan agian? Nola “egingo luke bat” ikastetxeko orientatzailearekin?

- Gurasoek orientatzaileak honela ikusten dituzte: ikastetxe desberdinetan matrikulak egin ahal izateko dokumentazioa ematen dieten pertsonak.
- Ez dute uste ikasleentzako irtenbide indibidualizatuak eskaintzen dizkietenik.
- Adierazi dute orientatzaileek beren seme-alabei emandako informazioa guztiz akademikoa dela eta ez dutela lan-merkatuaz hitz egiten.

5. Ikasleek esan dute ez dutela kanpo-presiorik jaso zer ikasi erabakitzeko. Badirudi erabakia autonomiaz hartzen dutela. Gurasoek aholkatu egiten dute, baina aukeratzeko askatasuna dutela dirudi. Azterketak adierazten du gehienek batxilergoko azken urtean erabakitzen dutela. Horrela al da?

- Gurasoek ez dute nahi seme-alaben partez erabakitzerik. Gurasoek aholkuak ematen dizkiete, baina erabakia seme-alabek hartzea nahi dute.
- Uste dute ez dutela egin dezaketenari buruzko informazio asko bilatzen, eta hala egiten badute, ez dakite nora jo esku-eskutik informazioa lortzeko, eta Internetera jotzen dute. Adierazi dute aurrez aurreko informazioa lortzeko (bai familiako aditu baten eskutik, bai erakunderen baten eskutik), lagundu egin behar zaiela.
- Kexa egiten dute Internet ez delako iturri fidagarria.
- Gustatzen zaiena egitea nahi dute, baina era berean, egonkortasunarengatik eta etorkizuneko lan-irteerengatik kezkatzen dira.

6. Aukeratutako ikasketek eskain dezaketen lan-munduratzeak kezka sortzen du. Zer iruditzen zaie? Zer iritzi dute iturrien gainean?

- Gurasoek ez dute uste seme-alabak lan-munduratzeagatik gehiegi kezkatzen direnik. Lehenesten dute ikasten dutena beren gustukoa izan dadila, eta ondoren, aurkituko dute lana. Ados daude arrazoiaketa horrekin, baina merkatuko errealitatea gerturatzea gustatuko litzaieke ezagutzen ez dituzten aukeren berri izateko.

Ikastetxeak - Galdetegia

INTERESES, IKASKETA AUKERA ETA AUKERA PROFESIONALEI BURUZKO GALDETEGIA

Gipuzkoako batxilergo ikasleak. 2018-19

Ikastetxearen IZENA: _____

HERRIA: _____ Zentroaren ANTZINATASUNA (urteetan) : _____

1. Ikastetxearen MODALITATEA:

- ☐ Publikoa
- ☐ Pribatua
- ☐ Kontzertatua

2. HIZKUNTZA eredu:

- ☐ A ☐ B ☐ C* ☐ D

C* - Eskola ingelesa, alemana, eta abar.

3. SEXUA/ Batxilergo ikasleak:

	1go	Er/1go	2.	Er/2.
Neskak				
Mutilak				

Er/1º, Er/2º: Errepikatzaileak 1goan eta 2.ean

4. SEXUA/ Irakasleak:

Emakumeak	
Gizonak	

5. EUSKADITIK KANPO JAIOTAKO ikasleak:

Neskak	
Mutilak	

6. Batxilergo GELA KOPURUA :

1go batxiler	
2. batxiler	

7. Batxilergo ESKAINZA motak:

- ☐ Zientifiko teknologikoa, osasun zientziak
- ☐ Gizarte zientziak
- ☐ Humanitateak, Letrak ...
- ☐ Artistikoa
- ☐ Besteak

8. Ikastetxearen ESKAINZA:

- ☐ Haur Hezkuntza
- ☐ Lehen Hezkuntza
- ☐ D.B.H.
- ☐ Batxilergoa
- ☐ Erdi - Mailako Lanbide Heziketa - Zikloak¹
- ☐ Goi - Mailako Lanbide Heziketa - Zikloak²
- ☐ Besteak ³ (eskolaurre, lanbide-hastapen ...)

¹ Eskaintza idatzi: _____

² Eskaintza idatzi: _____

³ Eskaintza idatzi: _____

9. Irakasle kopurua / ADINA:

30 urte azpitik	
30 eta 40 urte artean	
40 eta 50 urte artean	
50 eta 55 urte artean	
55 urte baino gehiago	

12. Ikastetxearen BALIABIDEAK:

- Liburutegia / □ Mediateka
- Kiroldegia
- Kirol kantxak
- Ordenagailu gelak
- Zientzia laborategiak
- Teknologia laborategiak
- Multimedia gelak (zinema, bideokonf., ...)
- Ekitaldi Aretoa
- Baratzak
- Oztopo arkitektonikoen kudeaketa
- Plataforma edota gela birtualak
- Ikasleentzako helbide elektronikoa
- Jangela edota mikrouhin labea ...
- Garraioa (autobusa)
- Mugikortasun jasangarri politikak
- Eskolaz kanpoko ekintzak¹ (ikasle trukaketa programak, atzerrian hizkuntzak ikasteko programak, kurtso amaierako bidaia ...)
- Besteak²

¹ Esan zeintzuk: _____

² Esan zeintzuk:

15. Irakasleen ETENGABEKO PRESTAKUNTZAREKIKO duten joera edo orientazioa da:

- ☐
- Oso baxua
- ☐
- Baxua
- ☐
- Ertaina
- ☐
- Altua
- ☐
- Oso altua

16. Irakasleen ETENGABEKO PRESTAKUNTZA honako gaitan izaten da:

- ☐ Hizkuntzak ☐ Teknologiak ☐ Hobekuntza Didaktikoa ☐ Elkar bizitza/Berdintasuna/Integrazioa

Besterik (adierazi):

10. AZKEN URTEAN kontrataturiko irakasle

berriak:

11. ABSENTISMO (%-koa): _____

13. Ikastetxeko HEZKUNTZA BERRIKUNTZARIK
adierazgarrienak adierazi:

14. KONTRATU MOTAK / irakasleak:

Iraunkorra	
Bitartekoa (interinoa)	
Ordezkapenezkoak	
Aldi baterako	

17. Batxilergoa ikasten ari diren ikasleei bideratuta, IKASTETXEAK ONDORENGO EKINTZAK EGITEN EDO ANTOLATZEN DITU, (adieraz ezazu "X" bidez egiten direnak):

	Inoiz ez	Batzuetan	Urtero
Orientazio saioak gela bakoitzean			
Orientazio saioak kurtso bakoitzean			
Orientazio saio pertsonalizatuak			
Familiei eta ikasleei elkarrekin zuzenduriko ekintzak			
Enpresei eta erakundeei zuzenduriko ekintzak			
Unibertsitatera bisitak			
Lanbide Heziketa zentroetara bisitak			
Kanpoko orientazio zerbitzuetara bisitak (Lanbide, sindikatuak, ...)			
Enpresetara, lan zentroetara edota enpresa-elkarteetara bisitak			
Lanean ari diren profesionalekin hitzaldiak/topaketak			
Lanean ari diren ikasle ohiekin hitzaldiak/topaketak			
Unibertsitateko ikasleekin hitzaldiak/topaketak			
Lanbide Heziketako ikasleekin hitzaldiak/topaketak			
Informazioa eta orientazio ekintza birtualak			
Egin diren edo egiten diren beste ekintzak ¹			

¹ Adierazi:

18. Batxilergoko ikasleen etorkizuneko ikasketak aukeratzen laguntzeko IKASTETXEA
AURRERA ERAMATEN DITUEN EKINTZAK dira:

- ☐ Gutxiegi ☐ Nahikoa ☐ Normala ☐ Asko ☐ Gehiegizkoak

19. Ikastetxeak NAHIKOA BALIABIDE DITU batxilergoko ikasleei etorkizuneko ikasketen aukeraketan laguntzeko:

- ☐ Bai ☐ Ez ☐ Ez dakit

20. Ikastetxeak INFORMAZIO EGOKIA DU batxilergoko ikasleei etorkizuneko ikasketen aukeraketan laguntzeko:

- ☐
- Bai
- ☐
- Ez
- ☐
- Ez dakit

21. Ikastetxeak batxilergoko ikasleei etorkizuneko ikasketen aukeraketan hobeto laguntzeko
INFORMAZIO ETA ORIENTAZIO EKINTZA BERRIAK BURUTZEKO ASMOA DU:

- ☐ Bai ☐ Ez ☐ Ez dakit

**INTERESEI, IKASKETA AUKEREI eta
AUKERA PROFESIONALEI
buruzko GALDETEGIA**

Gipuzkoako batxilergo ikasleak. 2018-19

JARRAIBIDEAK

1. Erantzun aurretik, ARRETA HANDIZ IRAKUR itzazu ARGIBIDE HAUEK.
2. Eskala honek duen helburua **batxilergoa amaitu ostean batxilergoko ikasleek etorkizunari begira dituzten interes, ikasketa aukerak eta aukera profesionalak aztertzea da**. Emaitez batxilergo ikasleen etorkizuneko ikasketen aukeraketa prozesua erraztuko luketen interbentzioak diseinatu ahal izatea ahalbidetuko dute.
3. Helburua ez da inondik inora posizio indibidualak identifikatzea. Datuen konfidentzialtasuna eta partaideen anonimatua bermatuta dago.
4. Zure kasu partikularra kontuan izanda, eskatzen dizugu galderak zintzo eta arretaz erantzutea, kontuan hartuz ez dagoela ez erantzun okerrik ezta zuzenik ere.
5. Galdetegiko bloke bakoitzean (guztira 14) modu ezberdin batean erantzutea eskatuko zaizu, era egokian egin ahal izateko jarraibideak eskura izango dituzu.
6. Zalantzarik izanez gero, gelan egongo den arduradunari galdetu diezaiokezu inongo arazorik gabe.

MESEDEZ, GALDERA GUZTIAK ERANTZUN

1go BLOKE. DATU SOZIO- DEMOGRAFIKOAK

Aukera ezazu edo idatzi dagokiona:

1. **Gaur-Data:** _____ 2. **Sexua:** ☐ Emakumea / ☐ Gizona / ☐ Beste bat 3. **Jaiotze urtea:** _____

4. kurtsoa: ☐ Batxiler 1 / ☐ Batxiler 2

5. Batxilergo mota:

- ☐ Zientifiko teknologikoa, osasun zientziak
- ☐ Gizarte Zientziak
- ☐ Letrak, Humanistikoa ...
- ☐ Artistikoa

6. Non jaio zen zure ama?

- ☐ Euskadi
- ☐ Espainiar estatuko beste autonomia erkidego batean
- ☐ Europako beste herrialde batean
- ☐ Beste toki batean

7. Non jaio zen zure aita?

- ☐ Euskadi
- ☐ Espainiar estatuko beste autonomia erkidego batean
- ☐ Europako beste herrialde batean
- ☐ Beste toki batean

8. Jaiotze leku:

- ☐ Euskadi
- ☐ Espainiar estatuko beste autonomia erkidego batean
- ☐ Europako beste herrialde batean
- ☐ Beste toki batean

9. Euskaditik kanpo jaio baldin bazara, zenbat urte daramazu hemen bizitzen?: _____

10. Ikasten duzun herri berean bizi al zara?:

- ☐ Bai
- ☐ Ez

2. BLOKE. ZENBAIT OHITURA ETA ORIENTAZIO OROKOR

Adieraz ezazu, **hurrengo 3 esaldiekiko ZURE ADOSTASUN MAILA**, ondoko eskala erabiliz:

Gutziz kontra nago 1 / Ez nago ados 2 / Ez dakit 3 / Ados nago 4 / Gutziz ados nago 5

11. Pozik nago aurrera eramaten ari naizen ikasketekin	1	2	3	4	5
--	---	---	---	---	---

12. Ikasketek lan on bat aurkitzen lagunduko didate	1	2	3	4	5
---	---	---	---	---	---

13. Ikasteak pertsona bezala errealizatzea lagunduko dit	1	2	3	4	5
--	---	---	---	---	---

14. Oro har, egunero, eskola amaitu ondoren, zenbat denbora ematen duzu ikasten edota etxerako lanak egiten? (Mesedez, markatu lauki bat bakarrik).

- ☐ Oro har, ez dut etxerako lanik izaten
- ☐ Ez dut etxerako lanik egiten, ezta ikasten ere
- ☐ Ordu bat edo gutxiago
- ☐ Ordu bat edo bi ordu artean
- ☐ Bi ordu baino gehiago

15. Adieraz ezazu jarduera hauetatik zein edo zeintzuk egiten dituzun institututik ateratzean. (Mesedez, markatu behar dituzunak).

- ☐ Musika, dantza, antzerkia ...
- ☐ Kirolak (saskibaloia, futbola, soinketa...)
- ☐ Hizkuntzak
- ☐ Eskulanak, marrazketa, pintura, eskultura
- ☐ Akademia edo errefortzuzko klaseak
- ☐ Ez dut eskolaz kanpoko jarduerarik egiten

16. Zein mailataraino ikasten jarraitzeko asmoa duzu?

- ☐ Batxilergoa amaitu arte
- ☐ Lanbide Heziketa amaitu arte
- ☐ Unibertsitateko karrera bat amaitu arte

17. Errepikatu al duzu mailaren bat?

- ☐ Ez dut mailarik errepikatu
- ☐ Bai, Lehen Hezkuntzan edo DBHn errepikatu dut
- ☐ Bai, Batxilerren errepikatu dut

18.DBH-n zein nota izan zenuen arlo hauetan? ("X" -kin markatu)

[illegible]

19. Hurrengo galderak erantzun:

- A – NIRE MATERIA GUSTUKOENA:** Jarri 1 (3. gustukoenari), 2 (bigarren gustukoenari) eta 3 (gustukoenari).
- B – NIRETZAKO ERRAZENA DEN MATERIA:** Jarri 1 (hirugarren errazenari), 2 (bigarren errazenari) eta 3 (denetan errazenari).
- C – NIRETZAKO ZAILENA DEN MATERIA:** Jarri 1 (hirugarren zailenari), 2 (bigarren zailenari) eta 3 (denetan zailenari).

	A	B	C
Ingurumen Zientziak			
Biologia			
Geologia			
Gizarte zientziak, Geografia eta Historia			
Fisika			
Kimika			
Informatika			
Teknologia			
Teknologia Industrial			
Marrazketa Teknikoa			
Ekonomia			
Matematika			
Hezkuntza plastiko eta ikus-entzunezkoa			
Arte			
Euskara eta Literatura			
Gaztelania eta Literatura			
Atzerriko Hizkuntza: Frantsesa			
Atzerriko Hizkuntza: Ingelesa			
Gorputz hezkuntza / Soinketa			
Filosofia			
Latina / Grekoa			

3. BLOKE. DATU SOZIO- EKONOMIKOAK

20.Zein da zure amaren ikasketen maila? (Aukeratu mailarik altuena)

- ☐ Oinarrizko ikasketak bukatu gabe
- ☐ Derrigorrezko ikasketak bukatuta (OHO, DBH)
- ☐ Batxilergoa
- ☐ Lanbide Heziketa
- ☐ Unibertsitate ikasketak

21. Zein da zure aitaren ikasketen maila? (Aukeratu mailarik altuena)

- ☐ Oinarrizko ikasketak bukatu gabe
- ☐ Derrigorrezko ikasketak bukatuta (OHO, DBH)
- ☐ Batxilergoa
- ☐ Lanbide heziketa
- ☐ Unibertsitate ikasketak

22.Zer lanbide dute orain zure aitak eta amak? (adieraz ezazu “X” baten bitartez):

	Ama	Aita
Zuzendari edo gerentea (enpresa burua, departamentu burua edo administrazio publikoan: gerente, zuzendari, alkate, zinegotzi ...)		
Zientzialaria; intelektuala (mediku, irakasle, programatzaile, abokatua, ingeniaria, farmazeutikoa; ekonomialaria, kazetaria, marketin langilea, giza baliabideetako langilea ...)		
Profesional Teknikoa (delineatzaile, topografo, entrenatzaile, teknikari informatikoa, laborategi teknikaria, segurantz agentea,erradiologoa, hegazkin gidari ...)		
Nekazaritza-langile, baso lanak, arrantzale, abeltzaintza. (Nekazari, lorezain, arrantzalea, erlezain ...)		
Pertsonal Administratiboa (kontu-zain, biltegiko langile, administratzailea, hotel harreragile, telefonista, bankuko kutxazain, komertziala, saltzailea, postari, liburuzaina...)		
Zerbitzuetako langilea (saltzailea, zerbitzari, sukaldari, kutxazain, zaintzaile, ile-apaintzaile, zaindari, polizia, atezain, suhiltzaile ...)		
Industria eta eraikuntzako langilea (kofratzaile, igeltseroa, iturgin, soldatzailea, galdaragile (kalderero- galdaragile), elektrikari, igogailu instalatzailea, ...)		
Muntatzaile, instalatzaile eta makinaria teknikaria (makina muntatzaile, mekanikari; tren gidari, barku gidari, traktore gidari, hondeatzaile gidaria, garabi gidari, kamioi gidaria, taxi gidari)		
Oinarrizko lanak (etxe langile, garbitzaile, publizitate banatzaile, elikagai manipulatzaile, apal betetzaile, kale garbitzaile, ...)		
Soldatarik gabeko lana (etxeko lanak, Gobernuz Kanpoko Erakundeetan boluntariotza, ...)		
Jubilatu / Pentsionista		
Langabe		

23. Zenbat liburu daude zure etxean? (metroko 50 liburu kabitzen dira apal batean): _____

24. Ba al duzu zuretzat gela bat etxean? ☐ Bai ☐ EZ

25. Orokorrean etxeko zein tokitan ikasten duzu?

☐ Nire gelan (lan egiteko toki bat dago) ☐ Edonon (sukaldea, egongela ...) ☐ Ikasteko gelan

26. Adieraz ezazu hurrengo baliabideetatik zeintzuk daude zure etxean:

- ☐ Internet
- ☐ Wifi
- ☐ Entziklopediak
- ☐ Hiztegi eta kontsulta liburuak
- ☐ Literatura klasikoko liburuak
- ☐ Egunkaria egunero (paperean edota internet bidez)
- ☐ Aldizkari teknikoak edota espezializatuak
- ☐ Aurreko ezer ez

27. Hurrengo objektu eta tokietatik, zenbat daude zure etxean?

Ordenagailuak	
Kotxeak	
Komunak	
Logelak	
E-bookak	
Tabletak	
Smartphonak	
Smartwatchak	
Aktibitaterako eskumuturrekoak	

28. Ikasteko orduan, orokorrean nahiago dut:

- ☐ Etxean nik bakarrik
- ☐ Liburutegian nik bakarrik
- ☐ Nire anai/arreba/ahizpekin
- ☐ Nire gelakideekin (etxean, liburutegian, eskolan, ...)

29. Adieraz ezazu zenbat anai/arreba dituzun hurrengo ikasketak egiten:

- ☐ Unibertsitate ikasketak: _____
- ☐ Lanbide Heziketa: _____
- ☐ Ez dut anai/arreba/ahizparik
- ☐ Anai/arreba/ahizpa gazteagoak ditut

4. BLOKE

30. Irakurri ondorengo ekintzak eta **ADIERAZ EZAZU ZUTABE BAKOITZEAN (A, B eta C):**

A – GUSTOKOEN **duzuna.** 1 (zerbait gustatuko litzaizuke), 2 (asko gustatuko litzaizuke) eta 3 (gustukoen duzuna).

B – Zure **AUKERETARA eta EZAUGARRIETARA HOBEREN EGOKITZEN** **dena.** 1 (egokitzen da nahiko), 2 (egokitzen da asko) eta 3 (hoberen egokitzen dena).

C – Zure **BENETAKO AUKERA** **izango dena.** Jarri 1 (azken aukera), 2 (bigarren aukera) eta 3 (lehen aukera).

	A	B	C
Objektuak konpondu; eraiki, muntatu, instalatu edo eraikinak eraiki, makinak, autoak, azpiegiturak, etab.; erremintak erabili; maneiatu eta muntatu; makinaria eta teknologia ; gauza praktikoak egin...			
Nire sormena aplikatu; lanak edo aktibitate artistikoak; diseinatu; dekoratu; musika konposatu, eskulturak sortu, pintatu; janariak egin- prestatu ...			
Pertsonei zerbitzuak, arreta eta laguntza eskaini (fisiko edota psikologikoa)			
Proiektu sozialetan parte hartu; komunikabideetako proiektuetan parte hartu; ekintza politiko edota mugimendu sozialen parte izan; denbora libreko ekintzak edota komunitatean parte hartu (hirugarren adina, denbora libre, gazteak, eta abar)			
Ikertu; ikasi; laborategiko ekintzetan parte hartu; diseinatu eta makinaria, autoak edo teknologia fabrikatu; teknologia programatu, aplikazioak, jokoak, makinaria eta robotak; tokiak eraiki, eraikinak edo azpiegiturak; zerbitzu sozio sanitarioak eskaini pertsonei edota animaliei ...			
Zuzenbide eta gestio planak diseinatu; prozesuak organizatu; pertsonak eta taldeak gestionatu; iragarkiak eta salmentak kudeatu ...			
Artxiboak eta liburutegiak gestionatu; pertsonen defentsa legala (abokatuak) eta legeak eta arauak aplikatu.			
Irakatsi, hezi, orientatu edo beste pertsonak formatu- prestatu			
Nire enpresa, aktibitatea edo jarduera sortu			
Oinarrizko prestakuntza soilik eskatzen duten jarduerak aurrera eraman (dendaria, zerbitzari, garbitzaile, etxeko lanak, sukaldeko laguntzaile, garraiolari, kutxazain, apal-betetzaile ...)			
Nekazaritza lanak, baso lanak, basozaintza, arrantza edo abeltzaintza bezalako jarduera espezializatuak egin.			

5. BLOKE

Irakur itzazu hurrengo esaldiak eta guztietan **PENTSATZEN DUZUNA** adieraz ezazu. Ez dago erantzun okerrrik. **Zuri egokiena deritzozuna marka ezazu:**

Inoiz ez edo ia inoiz ez 1 / Oso gutxitan 2 / Batzuetan 3 / Askotan 4 / Beti edo ia beti 5

31. Matematikan nota ona ateratzen dut	1	2	3	4	5
32. Eskolan langilea naiz	1	2	3	4	5
33. Niretzat erraza da ordenagailu-programekin lan egitea	1	2	3	4	5
34. Ikasten behar den denbora guztia ematen dut	1	2	3	4	5
35. Ikasgai gehienetan nota onak ateratzen ditut	1	2	3	4	5
36. Matematikako ariketak ongi ulertzen ditut	1	2	3	4	5
37. Erraza egiten zait edozein ikasgai ikastea	1	2	3	4	5
38. Matematikako ariketak behar den guztietan berregiten ditut	1	2	3	4	5
39. Niretzat erraza da matematikako klasean lan egitea	1	2	3	4	5
40. Informazio eta komunikazio teknologiekin ongi moldatzen naiz (Internet, Office...)	1	2	3	4	5
41. Oro har, ordenagailuarekin ondo moldatzen naiz	1	2	3	4	5
42. Telefono mugikorreko aplikazioak erabiltzen azkar ikasten dut	1	2	3	4	5
43. Lidergo gaitasuna badut	1	2	3	4	5
44. Erraza egiten zait jende aurrean aurkezpenak egitea	1	2	3	4	5
45. Erosoago egoten naiz ekipo lanetan bakarkako lanetan baino	1	2	3	4	5
46. Bakarkako lanetan erosoago egoten naiz	1	2	3	4	5
47. Gauzak analizatzea, hausnartzea eta pentsatzea gustatzen zait	1	2	3	4	5
48. Gauzak kuestionatzeko eta kritikak egiteko gaitasuna dut	1	2	3	4	5
49. Gauzak aztertzerakoan, konponbideetan pentsatzen dut	1	2	3	4	5
50. Lanak kalitaterik hoberenarekin egiten saiatzen naiz	1	2	3	4	5
51. Ahaleginik handiena egiten dut lanak egiterakoan	1	2	3	4	5
52. Gehienetan klaseetara joaten naiz	1	2	3	4	5

6. BLOKE

Jarraian lan munduarekin zer ikusia duten zenbait esaldi duzu. Zein da **BAKOITZARI EMATEN DIOZUN GARRANTZIA?**:

Garrantzirik ez 1 / Garrantzi gutxi 2 / Garrantzia 3 / Garrantzi asko 4 / Erabateko garrantzia 5

53. Garapen profesionala baimentzea, proiektu profesionala izatea	1	2	3	4	5
54. Postu hobeagoak eskuratzeko aukera izatea	1	2	3	4	5
55. Soldata	1	2	3	4	5
56. Helburuak betetzeagatik inzentiboak edo pizgarriak izatea	1	2	3	4	5
57. Lan egingo dudan erakundeak sendotasun ekonomikoa izatea	1	2	3	4	5
58. Enpresak izen ona izatea	1	2	3	4	5
59. Komunitatearekin elkarlanean jardutea	1	2	3	4	5
60. Lana interesgarria eta sozialki inportantea izatea	1	2	3	4	5
61. Ordutegi malgua izatea	1	2	3	4	5
62. Lana gustukoa izatea	1	2	3	4	5
63. Gauza berriak ikasteko aukera izatea	1	2	3	4	5
64. Bizi naizen herritik lantokia hurbil egotea	1	2	3	4	5
65. Nazioartean lan mugikortasun izatea	1	2	3	4	5
66. Enpresan lan-giro ona edukitzea	1	2	3	4	5
67. Enpresa multinazional batean lan egitea	1	2	3	4	5
68. Bizi naizen herrian bertan enpresa egotea	1	2	3	4	5
69. Enpresak gizarte-irudi ona izatea	1	2	3	4	5
70. Sektore publikoko enpresa izatea	1	2	3	4	5
71. Lanean autonomia izatea	1	2	3	4	5
72. Enplegu egonkortasuna eta segurtasuna izatea	1	2	3	4	5
73. Enpresak ingurumena zaintzea	1	2	3	4	5
74. Enpresak sormena sustatzea	1	2	3	4	5
75. Lan eginkizunak askotarikoak izatea; ez lan monotonoa	1	2	3	4	5
76. Nire lanagatik nagusien errekonozimendua jasotzea	1	2	3	4	5
77. Neure kabuz lana egitea neure enpresa edo negozioa sortuz	1	2	3	4	5

7. BLOKEA

Batxilergoa bukatu ondoren, ikasiko duzuna aukeratzako orduan **BALORA EZAZU ONDOKO ESALDI BAKOITZARI EMATEN DIOZUN GARRANTZIA:**

Garrantzirik ez 1 / Garrantzi gutxi 2 / Garrantzitsua 3 / Oso garrantzitsua 4 / Erabateko garrantzia 5

78. Ikasketek ahalegin gehiegi ez eskatzea	1	2	3	4	5
79. Ikasiko dudana gustukoa izatea	1	2	3	4	5
80. Gerora egin nahi dudana lana egiteko, ikasketak beharrezkoak izatea	1	2	3	4	5
81. Ikasketa horiek diru asko irabazteko aukera ematea	1	2	3	4	5
82. Ikasketek izen ona edo prestigioa izatea	1	2	3	4	5
83. Ikasiko dudana zentroak izen ona edo prestigio izatea	1	2	3	4	5
84. Nire gurasoek ikasi zuten berdina ikastea	1	2	3	4	5
85. Ikasketak etxetik kanpo (beste hiri edota erkidego batean) burutzea	1	2	3	4	5
86. Ikasketek lana erraz aurkitzen laguntzea	1	2	3	4	5
87. Nire familiak ikasketa horiek ordaindu ahal izatea	1	2	3	4	5
88. Ikasketek ahalik eta iraupenik motzena izatea	1	2	3	4	5
89. Lagunen batek nahi ditudan ikasketa berdina egitea	1	2	3	4	5
90. Zentroa edo ikastetxea nire bizilekutik gertu egotea	1	2	3	4	5

8. BLOKE

Batxilergoa bukatu ondoren **JARRAITUKO DITUZUN IKASKETEI BURUZ DUZUN INFORMAZIOARI BURUZ** zenbait galdera duzu jarraian. Ondoko eskala erabil ezazu erantzuteko:

Inoiz ez edo ia inoiz ez 1 / Oso gutxitan 2 / Batzuetan 3 / Askotan 4 / Beti edo ia beti 5

91. Formazio-aukerei buruz nire kabuz informatzen naiz	1	2	3	4	5
92. Nire aitak lanbide irteerei buruz aholkatzen nau	1	2	3	4	5
93. Nire amak lanbide irteerei buruz aholkatzen nau	1	2	3	4	5
94. Nire aitak ikasi nahi dudana inguruan orientatzen nau	1	2	3	4	5
95. Nire amak ikasi nahi dudana inguruan orientatzen nau	1	2	3	4	5
96. Nire anai/arreba/aizpek nire ikasketei buruz informatzen naute	1	2	3	4	5
97. Ikastetxeko orientatzaileak ikasketen inguruan informatzen nau	1	2	3	4	5
98. Unibertsitateen “ate-irekien” jardunaldietan parte hartu dut	1	2	3	4	5
99. Egin ditzakedan ikasketen inguruan informazioa interneten aurkitzen dut.	1	2	3	4	5
100. Lanbide Heziketako zentroak bisitatzek lagunduko ninduke gero ikasketak aukeratzeko	1	2	3	4	5
101. Nire lagunak iritziek eragiten dute nire ikasketak aukeratzeko erabakian	1	2	3	4	5
102. Zentroko irakasleek nire gero ikasketei buruz orientatzen naute	1	2	3	4	5
103. Gero ikasketen inguruan unibertsitateko irakasleek esan dezaketena zuzen entzutea gustatuko litzaidake	1	2	3	4	5
104. Gero ikasketen inguruan lanbide heziketako irakasleek esan dezaketena zuzen entzutea gustatuko litzaidake	1	2	3	4	5
105. Gero ikasketen inguruan, lantokiak ikustea edota langile profesionalak esan dezaketena zuzen ikustea eta entzutea gustatuko litzaidake	1	2	3	4	5
106. Ahal bezain informazio zehatz eta osoa izatea gustatuko litzaidake ikasketak aukeratzeko orduan	1	2	3	4	5
107. Ikasketen inguruan ez dut ez orientazio ezta informazio beharrik ere	1	2	3	4	5
108. Hitzaldi informatibo, mahai-ingurutara eta abarretara joatea gustatuko litzaidake	1	2	3	4	5
109. Nire lagunak ikasiko dutena kontuan hartzen dut nire erabakiak hartzeko	1	2	3	4	5
110. Lagunek burutu ditzakedan ikasketei buruzko informazioa ematen didate	1	2	3	4	5
111. Institutuko tutoreek orientatzen naute gero ikasketak aukeratzeko	1	2	3	4	5
112. Lanari buruzko telebista edota interneten dokumentalak ikusi ditut	1	2	3	4	5
113. Batxilergoa amaitu ondorengo ikasketak aukeratzeko helburuarekin orientazio saioetan parte hartu dut.	1	2	3	4	5

9. BLOKE

BALORA EZAZU ONDOKO ESALDI BAKOITZA ondoko eskala erabiliz:

Gutziz kontra nago 1 / Ez nago ados 2 / Ez dakit 3 / Ados nago 4 / Gutziz ados nago 5

114. Argi eta garbi dut zer ikasiko dud an batxiler amaitzerakoan	1	2	3	4	5
115. Nahi dud an lanpostua lortzeko zer pauso jarraitu behar ditudan badakizkit	1	2	3	4	5
116. Erraztasunez azalduko nituzke nire desiratutako lanpostuaren ezaugarriak	1	2	3	4	5
117. Badakit zer lan mota nahi dud an	1	2	3	4	5
118. Lortu nahiko nukeen lanpostuari dagozkion gaitasunak ezagutzen ditut	1	2	3	4	5
119. Badakit zein den nire ezaugarrietara hobekien egokitzen den lanpostua	1	2	3	4	5
120. Badakit zein den gustatuko litzaidakeen lan mota	1	2	3	4	5
121. Argi dut zein lan inolaz ere ez dud an egin nahi	1	2	3	4	5
122. Bizitza irabazteko egin dezakedan lana zein den badakit	1	2	3	4	5
123. Badakit zein ikasketetara egokitzen diren hobeto nire ezaugarri pertsonalak	1	2	3	4	5
124. Burutu nahi ez ditudan ikasketak zeintzuk diren argi eta garbi dut	1	2	3	4	5
125. Ikasketak amaitu ostean lana izateak kezkatzen nau	1	2	3	4	5
126. Nire etorkizuneko lanarekin loturiko kontuek kezkatzen naute	1	2	3	4	5
127. Momentuz lanak ez nau kezkatzen; laneratzea oraindik urrun dago	1	2	3	4	5
128. Bizitza irabazteko egingo duan lana oso inportantea da niretzat	1	2	3	4	5

10. BLOKE

129.ERABAKIA HARTUTA IZAN EDO EZ, erantzun jarraian agertzen den galdera. **UNIBERTSITATERA** joateko erabakia hartuko bazenu, adieraz ezazu zutabe bakoitzean:

- A – Ahal izanez gero EGITEA GUSTATUKO LITZAIZUKEENA.** 1 (ez litzaizuke gustatuko), 2 (pixka bat gustatuko litzaizuke), 3 (asko gustatuko litzaizuke) eta 4 (gutziz gustatuko litzaizukeena).
- B – Zure EZAUGARRIETARA ETA GAITASUNETARA HOBEKIEN EGOKITUKO LITZATEKEENA.** 1 ez da ezer egokitzen), 2 (egokitzen da pixka bat), 3 (egokitzen da asko) y 4 (erabat egokitzen dena).
- C – LAN ON BAT LORTZEN lagunduko lizukeena.** 1 (ezer ez), 2 (zerbait), 3 (asko) eta 4 (erabat).

	A	B	C
ZIENTZIA SOZIALAK eta JURIDIKOAK (Adibidez: Enpresa zientziak, Soziologia, Zuzenbidea, Kazetaritza, Ekonomia, Lan harremanak, Gizarte langintza, Antropologia, Geografia eta Historia, Gizarte Psikologia, eta abar)			
IKASKETA TEKNIKOAK; ZIENTZIAK (Adibidez: Ingeniaritza, Informatika, Kimika, Biokimika, Matematikak, Fisika, Arkitektura, Geologia, eta abar)			
OSASUN ZIENTZIAK (Adibidez: Medikuntza, Biologia, Erizaintza, Fisioterapia, Odontologia, Farmazia, Psikologia Klinikoa, Logopedia, Terapia Okupazionala, eta abar)			
INGURUMEN, NEKAZARITZA eta ARRANTZA IKASKETAK (Adibidez: Albaitaritza, Ingurumen Zientziak, Itsas Zientziak, eta abar)			
HEZKUNTZA ZIENTZIAK (Adibidez: Pedagogia, Magisteritza, Gizarte Hezkuntza, eta abar)			
ARTE eta GIZA ZIENTZIAK (Adibidez: Filosofia, Arte Ederrak, Hizkuntzak, Itzulpengintza eta Interpretazioa, eta abar)			

11. BLOKE

130. **ERABAKIA HARTUTA IZAN EDO EZ**, erantzun jarraian agertzen den galdera. **LANBIDE HEZIKETA** egiteko erabakia hartuko bazenu, adieraz ezazu zutabe bakoitzean:

- A – Ahal izanez gero EGITEA GUSTATUKO LITZAIZUKEENA.** 1 (ez litzaizuke gustatuko), 2 (pixka bat gustatuko litzaizuke), 3 (asko gustatuko litzaizuke) eta 4 (guztiz gustatuko litzaizukeena).
- B – Zure EZAUGARRIETARA ETA GAITASUNETARA HOBEKIEN EGOKITUKO LITZATEKEENA.** 1 ez da ezer egokitzen), 2 (egokitzen da pixka bat), 3 (egokitzen da asko) y 4 (erabat egokitzen dena).
- C – LAN ON BAT LORTZEN lagunduko lizukeena.** 1 (ezer ez), 2 (zerbait), 3 (asko) eta 4 (erabat).

	A	B	C
ERAIKUNTZA MEKANIKOA, ERAIKUNTZA METALIKOA, MEKATRONIKA, AUTOMATISMOAK, ROBOTIKA, KONTROL NUMERIKOA (Adibidez: Doikuntza eta muntai teknikari, mekanizatzeko teknikari, delineatzaile teknikari, diseinu teknikari, makina-erreminta teknikari, aeronautika teknikari, instalazio teknikaria eta mantenu teknikari, soldatzaile teknikari, eta abar)			
ELEKTRIZITATEA eta ELEKTRONIKA (Adibidez: mantenu teknikari, automobilgintza teknikari, energia berriztagarri teknikari, aeronautika teknikari, eta abar)			
ERAIKUNTZA eta OBRA ZIBILA; INSTALAZIO eta MANTENUA; ENERGIA eta URA (Adibidez: eraikin eta makinaria mantenu teknikari, domotikan teknikari (eraikin automatizazioa), energia efizientzian teknikari eta eguzki instalazio edota hotz-bero teknikari, hidroelektriketako teknikari, kofratzaile, alikatatzaile, pintore, arotza, obretako makinaria gidaria, eta abar)			
ELIKADURA INDUSTRIA; KIMIKA; ERAUZKETAKO INDUSTRIA (Adibidez: Laborategi teknikari; kalitate teknikari; ur tratamendu teknikari; planta kimikoko teknikari; lur indusketa eta mineral erauzketa teknikari; gas edo erregai likidoen teknikari; eraikuntzako materialen erauzketa, eta abar)			
ADMINISTRAZIO eta KUDEAKETA; MERKATARITZA eta MARKETIN; KALITATE eta BERRIKUNTZA (Adibidez: kontu hartzaile, administratzaile, idazkari, kalitate teknikari, berrikuntza teknikari, merkataritza eta salmenta teknikari, logistika teknikari, garraio teknikari, stock eta biltegiko teknikari, banaketa teknikari, saltzaile, eta abar)			
ZERBITZU SOZIO-SANITARIOAK; SOZIOKULTURALAK; HOSTALARITZA eta TURISMOA; IRUDI PERTSONALA; KOMUNITATE ZERBITZUAK; JARDUERA FISIkoa eta KIROLA (Adibidez: diagnostiko teknikari –adibidez “X” izpiak-, erizaintza laguntzaile, etxez etxeko laguntza, kirol begirale, eta abar)			
ARTE GRAFIKOAK; INFORMATIKA; ESKULANGINZTA; IKUSENTZUNEZKOAK; BEIRA eta ZERAMIKA (Adibidez: bideo-joko teknikari, zine eta telebista teknikari, diseinu grafikoa teknikari, web garatzaile, programatzaile eta informatika sistematan teknikari, eta abar)			
NEKAZARI eta ABELTZAINZTA EKOIZPENA; ITSAS-ARRANTZA EKOIZPENA; EGURRA, ALTZARI eta KORTXOA (Adibidez: nekazaritza ustiapen teknikari; arrantzan, abeltzaintzan eta basozaintzan teknikari, konpost-egite, birziklatze, zurgintza, etab.)			

12. BLOKE

Ondoko esaldiak irakur ezazu eta marka ezazu **ESALDI BAKOITZAREKIKO DUZUN ADOSTASUN MAILA**:

Guztiz kontra nago 1 / Ez nago ados 2 / Ez dakit 3 / Ados nago 4 / Guztiz ados nago 5

131. Lanbide Heziketan nire gustuko ikasketak aurki ditzaket	1	2	3	4	5
132. Unibertsitateak nire gustuko ikasketak eskaintzen ditu	1	2	3	4	5
133. Lanbide Heziketa unibertsitatean sartzen ez direnentzako aukera da	1	2	3	4	5
134. Unibertsitateak duen gizarte errekonozimendua baxua da	1	2	3	4	5
135. Lanbide Heziketak prestakuntza oso espezifikoa eskaintzen du	1	2	3	4	5
136. Unibertsitateko ikasketak, oro har, teorikoegiak dira	1	2	3	4	5
137. Etxean unibertsitatera joatea hobe dela uste dute	1	2	3	4	5
138. Lanbide Heziketa argi eta garbi zer egin nahi duen pertsonentzako da	1	2	3	4	5
139. Lanbide Heziketak ez du intelektualki ikaslea formatzen	1	2	3	4	5
140. Lanbide Heziketak gizarte errekonozimendua eskasa du	1	2	3	4	5
141. Lanbide Heziketan eskuratutako prestakuntza praktikoa oso baliagarria da	1	2	3	4	5
142. Etxean Lanbide Heziketa bide hobe dela uste dute	1	2	3	4	5
143. Gizartearentzat Lanbide Heziketa baliagarriagoa da	1	2	3	4	5
144. Lanbide Heziketa batez ere industriara bideratuta dago	1	2	3	4	5
145. Ikasle on batek unibertsitatean ikasi beharko luke	1	2	3	4	5
146. Lanbide Heziketako ikasketak errazagoak dira	1	2	3	4	5
147. Ikasteak hiritar arduratsu izaten laguntzen du	1	2	3	4	5
148. Ikastea garapen pertsonalerako ona da	1	2	3	4	5
149. Unibertsitateak pentsamendu kritikoa bultzatzen du	1	2	3	4	5
150. Lanbide Heziketak pertsonen garapenerako aukera gutxiago eskaintzen du	1	2	3	4	5

13. BLOKE

Ondoko taulan **bizitzaren 10 aspektu** dituzu. **BAKOITZARI EMATEN DIOZUN GARRANTZIAREN ARABERA, BALORA EZAZU BAKOITZA 1etik 11ra**. Adibidez, gehien inporta zaizunari 1 eman, eta garrantzi gutxien duenari 11; ez ahaztu tarteko zenbakiak ere esleitzea: 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10. EZ ERABILI ZENBAKI BERA BI ALDIZ:

151. Gustuko dudana ikastea	
152. Ahalik eta denbora gehiena ikasten ematea	
153. Ikasi nahi dudanarekin lotutako lana egin ahal izatea	
154. Lan batean ahal bezain laster hastea	
155. Lana aurkitzeko aukera gehiago izatea	
156. Soldata ona izatea	
157. Etxetik alde egin eta nire bizitza egiten hastea	
158. Besteei laguntzea eta gizarteari ekarpena egitea	
159. Denbora libre izatea	
160. Nahi dudan kirola eta jarduera fisikoa praktikatzea	
161. Baloratua eta sozialki errekonozitua sentitzea	

162.- Zein bidetik lor daiteke LAN BAT AZKARRAGO:

- ☐ Unibertsitate ikasten
- ☐ Lanbide Heziketa ikasten
- ☐ Ez dakit

163.- Zure ustez, GIZARTEAK ZER ESKATZEN DU edo ZER BEHAR DU gaur egun ? Ez gara ari zure ingurukoek (familia, lagunak eta abar) duten iritziaren inguruan galdezka: Zure ustez komunikabideak, enpresak, instituzioak, politikoak edo agintariak gehiago eskatzen edo baloratzen ari direna adierazi:

- ☐ Unibertsitateko ikasketak
- ☐ Lanbide Heziketako ikasketak
- ☐ Ez dakit

14. BLOKE

Amaitzeko erantzun 4 esaldi hauek:

164. DAGOENEO ERABAKI DUT batxilergoa amaitu ondoren egingo dudana:

- ☐ Unibertsitateko ikasketak
- ☐ Lanbide Heziketako ikasketak
- ☐ Ez dut erabaki

165. Ezagutzen dut LORTU BEHARREKO GUTXIENGO NOTA ikasi nahi ditudan ikasketak egin ahal izateko:

- ☐ Bai
- ☐ EZ

166. Batxiler ondorengo ikasketak egiteko ERABAKIA HARTU DUT PRESIOPEAN. PRESIORIK HANDIENA EZARRI DIT (aukera bat baino gehiago adieraz dezakezu):

- ☐ Amak
- ☐ Aitak
- ☐ Anaiek/Arrebek/Ahizpek
- ☐ Familiak (osabek, izebek, lehengusuek eta abar)
- ☐ Irakasle/tutoreak
- ☐ Orientatzaileak
- ☐ Lagunek
- ☐ Ez dut presiorik jaso

167. Batxiler ondorengo ikasketak aukeratzeko orduan ERAGINIK HANDIEN DUEN IRITZIA DA HONAKO PERTSONARENA (adierazi eragin gehien duten 3 iritziak, non 1 pisu gutxien duena den, 2 nahiko pisu duena den eta 3 pisurik handiena duena den):

Ama
Aita
Anai/Arreba/Ahizpa
Familia (osabak, lehengusuak etab.)
Ikastetxeko irakasle/tutoreak
Ikastetxeko orientatzaileak
Lagunak
Lanean dauden profesionalak
Lanbide heziketako irakasleak
Unibertsitateko irakasleak
Nire irizpide propioa

MILA ESKER !!

GIPUZKOAKO GAZTERIAREN MOTIBAZIOA IKASKETEN AUKERAKETAN

EMAITZEN TXOSTENA